
ERREALISMO SOZIALISTAZ

ERREALISMO SOZIALISTAZ

JOXE AZURMENDI

KRISELU

1979 Uztaila
ERREALISMO SOZIALISTAZ
© J. Azurmendi
© J. Haranduru editorea
KRISLU
Alba C. Soria 28
DONOSTIA
Inprimtzean du
E. Itxaropana E. A.
Bitor Probeta 2 - Zarautz
D. L. S. 8 300 78
I. S. B. N. 84 7407-048-2

ERREALISMO
SOZIALISTAZ
JOXE AZURMENDI

1978 Uztaila
ERREALISMO SOZIALISTAZ
© J. Azurmendi
© L. Haranburu editorea
KRISELU
Alda. C. Sotelo, 26
DONOSTIA
Inprimatzen du
E. Itzaropena, S. A.
Bitor Pradera, 2 - Zarautz
D. L. S. S. 300/78
I. S. B. N. 84-7407-046-5

KRISELU

HITZAURREA

1. Apunteok apunte batzuk besterik ez dira.

Aspalditxo da, liburu bat prestatzeko asmotan apunteok hasi nituela. Baina, honez gero, garbi dago, liburuia prestatzeko astirik ez dudala berehalakoan izango. Eta behar bada apunteok ere aski dirateke liburuaren zerbitzua egiteko: irakurleari gogoeta batzuk egiteko eragitea, gure kultur lanean orientatzen asma dezagun.

Hor doazkizu, ba, dauden biluzia hortantxe.

Liburu formaz argitaratzen den guzia libururik izaten ez delako, egiten dizut aitortza hau: itxurak ez zaitzan engainatu.

2. Errealismo sozialistaz dihardute apunteok. Eta, beraz, *Kultura proletarioaz* liburuaren jarraitzapena ta osagarria dira. Eta aldrebes: liburu harek hau osatzen du. "Kultura proletarioa" etc. ez dira historiarik gabeko konzeptuak. Eta historiarik gabeko bezala erabiltzen direnean ez dute

nahasketa besterik sortzen. Edozeinek konzeptuak berak nahi duen sentidoan erabiltzeko eskubidea badu, ez dugu sekula elkar adituko.

Horregatik iruditu zait komenigarri apunteok argitara ematea: problemok eztabaidan darabilzkgigunez gero, apunteok agian problema horietan argi piska bat egiten lagun lezaketelakoan.

- Proletkulturalismoa kultura proletarioa *proletarioek berek* sortzeko entseia da.
- Errealismo sozialista kultura proletarioa *Estaduak* sortzeko entseia da. *Estadu proletarioak*, zuzen esanda.

Baina bi entseiuok, nahi aina diferente ta elkarren kontrario izanik ere, sustrai komun asko dute, batera ikusi behar dira, ta bion arteko batasuna ere ikusiz, hain zuzen. Bion batasuna, bion diferentzia baino ez gutiago. Apunteok batez ere teoria sozial-realistari begiratzen diote, ta ez produzio literario sozial-realistari.

3. Apunteok apunte hutsak izaki, ta haiek ez sistimaz lantzerik eta ez orrazterik egon denez gero, nire lanetan ohi den baino ere nahasmendu gehiago aurkituko du apika irakurleak. Barka beza. Atal bakoitza aparte egina da. Horregatik, batasunak asko sofritzen du, ta gauza asko bi-hiru aldiz alferrik esanda daude. Argi dago, apunte mordo bat elkartzea ez dela aski liburu bat egiteko.

Lehenengo kapituluak errealismo sozialistaren teoria argitzen du. Puntu nagusienak bakarrik, eta trazo haunditan. Kapituluaren eskemak Idazle Sobietarren lehenengo Biltzar

Orokorretik (errealismo sozialistaren proklamazioa) des-estalinizaziora darama (teoria honen krisia hasten den unea). Irakurtzeko beharbada errazagoa egiten da lehenengo bigarren kapitulua ta gero lehenengoa irakurtzea.

Bigarren kapituluan teoria horren testuinguru historikoa azaltzen da: teoriaren sorrera esplikatzeke baino gehiago, teoriaren funtzioa esplikatzeke. Fadeiewi buruzko orriek ez dute ezer "demostratu" nahi: adibide bat erakutsi nahi dute bakarrik, aski sintomatikoa delakoan, hain zuzen errealismo sozialistaren funtzio soziala hobeto erakusteko.

4. Apunteok polemikoak dira, ez dago zergatik ukatu. Baina hauxe gogoan izateko eskatuko nioke irakurleari: polemika batetarako idatziak izan zirela. Beharbada tonu horiek gaur pasatuxeak daude.

Literatura sobietarraren inguruan, halare, kultura proletarioa dela ta ez dela, ta literaturaren autonomiaren eta zereginen historioetaz, polemika asko sortzen da oraindik munduan. Niri, egia esateko, "munduak" gutiago inportatit guzi honetan, Euskal Herriak baino. Beraz, ez naiz errealismo sozialistaz historiagile bezala arduratu: Euskal Herriko problema batzuegatik baizik.

5. Apunteok polemikoak izan arren, ez dute, uste dudanez, neure eritzia aldarrikatu bakarrik egiten. Beti ere, materiala ematen saiatu naiz, *Kultura proletarioaz* liburuan bezalaxe. Azkenean, inoren eritzia jakitea baino inportanteago baita irakurlearentzat, bere eritzia osatzeko materialak edukitzea. Eta neuretzat ere bai: ez dut amenerik bilatu. Bistan dago, ta ez dut hortaz ilusiorik egi-

ten, material aukera egiterakoan neure eritziei segitzen nirela. Baina nire eritzirik gabe ere material horiek hor daude, ta nolabait esplikatatu beharko dira.

Gainera, sinestuta nago, gure arteko diferentzia ta polemika guziak ez bada ere, haietako asko behintzat, informazio faltak, material faltak, sortzen duela. Errealismo sozialistaren teoria profesatzen duten Estaduak ez bait dira informazioaren, eritzien interkanbioaren kontrol itsua daramaten bakarrak. Eta idazle sobietarrak ere, lumaren eta pentsamentuaren askatasun burruka egin beharrean dauden bakarrak.

Nire eritzien arras kontrariotakoak izan badaitezke ere, burruka hortan ari diren guziei eskaintzen dizkiet apunteak: gure kontrariotasunek, orriok defendatu nahi duten pluralismoa, hain zuzen konfirmatzen, eta ez ukatzen, dutelakoan. Eta, beharbada, geure diferentziak hobeto ezagutuz, eta diferentziok utzi gabe, guzior batasuna ere errazago izango da, geure ta gure herriaren hoberako.

Izan ere, diferentziak itotzen edo ukatzen dituen batasunik ez dut nik nahi: apunteok guziok ez dute besterik esateko. Baina diferentzien gaineratik batasunik lortzen ez badugu, gure diferentzia guziek ez dute ezer balio.

LEHENENGO KAPITULUA:

TEORIA SOZIAL-REALISTAZ

1. Idazle Sobietarren Elkargoa: lehenengo Biltzarre Orokorra

Azkeneko 20-gn urteetan, NEP-ak (Politika Ekonomiko Berriak) bere xedea bete ala (Erresuma finkatu ta ekonomia, gerrak hondatua, leheneratu ala, esan nahi bait da), eta Estaduaren etorkizunaz Alderdian sortu ziren joera burrukekin batera, literaturan ere printzipio eztabaidek izugarritzko sua hartu zuten berriro: gizarte sozialistako arteak ze funts eta zein aiurri duen, zein eginkizun duen, bere eginkizuna konplitzeko zein jardupide segitu behar duen, etab. Garai berean Stalinen eta Troztkiren arteko burruka gogorra burrukatzen zen. Errealismo sozialista Stalinen hildoan dago.

1929-an bilkurak antolatu ziren, artistaren egitekoaz eta artearen misioaz, eta batzuk zehazkiago, teatroaz, satiraz, etab.

1930-ean, Idazle proletarioen nazioarteko Batzarrean, Charkowen, gizarte sozialistaren sorreran literaturari zego-kion betekizuna argitzen saiatu ziren bazkideak.

Stalinek irten zuen garaile, Trotskiren eta komunista ezkertiarren kontra. Eta desarroilo berriak literatura ere bere gurdiaurrean, uztarrian, lotzen zuen: gizarte berria, "gizon berria" azterkatzea ta adieraztea eskatzen zitzaion literaturari. Apika baita "gizon berria" sortzea ere, piska bat (literaturak, ordea, literaturan bakarrik sor dezake "gizon berririk": paperezko gizon berria). Gerrak hondaturiko Errusia NEP-ak berriztatu bazuen, orain gizarte berri-berri bat eraiki behar zen: lur zabal guzia industrializatu. Eta denek hartu behar zuten zeregin honetan parte, Alderdiaren gidaritzapean. 1929 "iraulketa haundiaren urtea" deklaratu zen, eta gizarte sobietar osoa, goitik behe-raino, gizarte berriaren eraikidurari lotu zitzaion: lehenengo "bost urtetarako plangintzak" bururatzen zuen lan-tegiztapena —kasi mirari bat— gauzatzeko. Literatura ere sobietar herriaren eginkizun nagusi honi lotu behar zitzaion.

Eta, atxiki ere, gogotik atxiki zitzaion gizartegintzako epe berriak eskatzen zion betekizunari: ordura arteko ia gai bakarra Iraultza izan bazen, honez gero lan mundua kontsideratzera bihurtu zen ia literatura guzia. Maksim Gorkik enpeinu guzia erakusten zuen, eta bere izenaren ospe guzia jartzen zuen, literaturari bide berri honetatik sarra-

razteko. Berak abiarazi zuen, *Sobiet Batasuna zehar* liburuarekin, "zirriborro literatura" edo "apunte literatura": material informatiboa emateko literatura. Literatura haundirik egiteko astirik ez dugun euskaldunontzat, jarraigarria izan liteke bide hau: idazleek lantegiak bisitatzen zituzten, estudiatzen zituzten, eta apunte batzutan, haietako berri ematen zuten. Berritasun ekonomiko ta teknikoak deskribatzen zituzten, aurrerapenen berri ematen zuten, problemak azaltzen zituzten. Literatura nahiko gordina ta gehiegi landu gabekoa zen, noski, presaka egindakoa, baina bizitzaren ritmoari ondo-ondotik lotzen zitzaion eta jendeteriak eskolatzeko edo teknika-zaletzeko nahiz bizkortzeko guziz baliosa zen.

Alabaina, Maksim Gorki erralismo sozialistaren klasikorik bikainena baino gehiago da: haren aita ere bai bait da.

1917/30 bitarteko mogimendu literario urduri ia denek ezagutu zuten Gorkiren laguntzaren bat: berau zen letra sobietarren patriarka ta mezenas. Ba zen han mila eskola ta ekolatxo, mila talde, taldexka eta taldexkatxo, denak elkarren kontra ta elkarren lagun, eta bakoitzak bere bidetik sarrarazi nahi zion literaturari. 1921/29 arteko garaia, batez ere, molde orotako esperimientuen haroa da. Gorkiren laguntza guzienganaino ailegatzen zen.

Baina gizartegintzako ekinaldi berriarekin eta gizarte bizitzaren ordenamendu berriarekin, ordura arteko anarkia bukatu ta literaturari ere organizazio eta orientazio berri tinko bat ematea komeni zela, pentsatu zuen nonbait Gorkik. Ordura arte literatura bide bila zebilen, esperimenta-

tuz zebilen. Bide jakin bat hartu beharra zegoen, iadanik. Stalin, izan ere, Alderdiaren ordura arteko politika aldatzera zihoan, eta Sobiet Batasun guziko idazleak Elkargo bakar batetan antolatzeko asmoa zuen. Biok dira, beraz, Gorki ta Stalin, errealismo sozialistaren gurasoak: Gorkik eman zuen printzipio literarioa, ta Stalinek "desarrollatu" zuen, bere ikuspegiaren eta asmoen arabera. Luzarora, zer esanik ez, errealismo sozialistak Gorkirena baino Stalinen esku gehiago agiri zuen.

1932-an, Stalinek M. Gorkirekin eta Aleksis Tolstoi-rekin kontsultatu ondoren, Alderdi Komunistaren Zentral Komiteak dekretu bat eman zuen "Erakunde literario-artistikoen eraberrikuntzaz".

1934-eko abuztuaren 17-tik irailaren 1-era egin zen Idazle Sobietarren lehenengo Biltzarre Orokorra.

Batzarra demostrazio bat eta festa bat izan zen: idazle proletarioen, laborarien, pionieroen, inbestigazio-kolektiboen delegazioak Sobiet Batasunaren lau hegaletatik agertu ziren. Denak artearen eta gizartearen arteko batasun hestua gorai patuz eta aginduz. Herbesteko zenbait idazle ere tartean zen: Aragon, Nezval, etab. Louis Aragonek hitzokin gogarazten zuen Biltzarrea: "Sobietar Idazleek, beren lanaren oinarriak ezezik, mundu guzian proletarioekin batera burrukan ari diren idazle guzian lanaren oinarriak jarri dituzte". Eta egia da, Biltzarre honek, Sobiet Batasunetik kanpora ere, barruan bezalakoxe balio normatiboa izan zuela, mundu guziko idazle komunistentzat. Harrez gero, errealismo sozialista (edo sozial-realismoa) nazioarteko Alderdi komunisten teoria estetiko ofiziala

bilakatu da, berriki arte, ta teoria honen Sobiet Batasuneko desarroiloari segitu zaio mundu guzian.

Gorkik eta Schdanowek domeinatzen zuten bilkuretan. Gorkik behin ta berriro hotsegiten zuen, literaturaren ekin-tza sozial ta sozial bizitzari atxiki beharra. Gizartearen naturaleza menderatzeko burrukan sartu beharra. Errealismo sozialistak bizitza ekintza dela, konfirmatzen du: krea-zio dela, ta gizonaren dohainik ederrenen desarroiloa dela, naturalezaren gain garaitu arte, zoriontsu ta luzaro bizi da-din, bere sorterri duen lur honetan, eta gizadi osoaren familia batetan. Errealismo sozialista, Gorkik definitzen zuen bezala, "mundua aldatzen eta birreraikitzen ari diren gizonen errealismoa da". Sobiartar Idazleen Elkargoaren buruzagi Gorki hautatu ta izendatu zen.

Schdonow konkretoagoa zen: artearen "sozialista" izateko determinazioan insistitu zuen. Idazleari "arima in-jinadore" izateko eskatzen zion. Eta, funtsean, Alderdiaren zerbitzuan ikusten zuen literatura. Bizitza burruka da, esaten zuen Schdonowek: klase burruka ta klaserik gabeko gizartea eraikitzeke burruka. Literaturak burruka hortan parte hartu behar du: jendea heziaz eta burruka-zaletuaz. Burruka hori, aldiz, Alderdiak gidatzen du. Alderdiak gi-datuko du literatura ere. Gerorako desarroiloaren oinarriak irmo finkaturik zeuden, eta garbi asko aitorturik ere.

Problema konkretuak eztabaidatu zirenean: "Heroe positiboaren" arazoa, tradizio klasikoarekiko jokabidea, kritika sozialaren eta kritika literarioaren problema, etc. eritzi oso ezberdinak agertu ziren. Batzarreak irekitasunez jokatu zuen guzi honetan. Errealismo sozialistak inspira-

zio jeneral bat zirudien oraindik. Teoria hau ezaugarri guziz konkretoz eta arau zehatzez hornitzearen kontra gogorkienik mintzatu zen bat hain zuzen Fadeiew izan zen (geroago kapitulu bat eskainiko diogu Autore ta funtzionario honi).

“Metodo” literario bezala errealismoa konsekratzen bait zen, alde batetik formalismoa kondentatzen zen, eta, bestetik, “mugarik gabeko errealismorik” ez zen onartzen. Biltzarreak oso-osorik onartu zuen benetan kreatzaile libre bezala jarduteko idazlearen eskubidea. Bakar-bakarrik, gizartegintza sozialistari eragiteko ta laguntzeko eskatzen zitzaion (itxuraz behintzat). Eta puntu honetan erabatekoa zen bazkideen akordioa. Lehenago literaturaren tendentzia politikorik inola onetsi nahi ez zutenek ere, orain gogotik onartzen zuten. Iwanowen deklarazioak, “Serapion anaiak” taldekoen izenean (beren Manifestuan *tendentzia* guziz kondentatzen zuen talde bat), guzientzat balio lezake: azkeneko urteotako desarroiloak erakutsita, denek onartzen zutela orain, literaturak “tendentzia sozialista” edo “tendentzia boltxebikia” hartu beharra.

Horregatik, nekez esan liteke, Biltzarre honetan, idazleak “dogma” bat onartzera *behartu* izan zenik. Aitzitik, Biltzarreak eztabaidan zeuden arazoetan askatasuna uzten zuen, eta puntu literariorik gehienak ziren halakoak. Beraz, geroagoko desarroiloak (“schdanowismoak”) hasiera Biltzarre honetan badu ere, ez dirudi bidezko, Biltzarre hau bere geroaren argitan bakarrik juzgatzeak: “gero” hori ez bait da Biltzarreak berak eta berez emana, Alderdi stalinistaren jokabideak eta funtzionarioen presioak

bortxaturiko desarroiloa baizik. Hau Biltzarreak berak pres-
tatzen eta abiarazten zuen, hori bai. Eta ez dirudi idaz-
leek hori ikusi zutenik.

Beharbada hau ere konpreni daiteke, Biltzarrea bere
aurrekaldetik, aurretik zihoakion garaiko problemen alde-
tik, juzgatzen bada. Ikuspegi honetatik, idazleria indar so-
zial bezala ikaragarri indartu zuela, esan behar da. Hortxe
zegoen bere arriskua ere: aski bait zen erakunde hori fun-
tzionarioen eskuetan jartzea, Idazleen Elkargoa Alderdiak
eskutan zedukan eta bere gogara erabil zezakeen tresna
huts bihurtzeko. Hau, bene-benetan, Biltzarreak aisa erraz-
ten zuen: artean egiatia (errealista) izan behar zuela finka-
tzerakoan, artearen egia mundu-ikuskeraren aldetik defini-
tu bait zen. Eta mundu-ikuskeraren zuzentasuna Alder-
diak erabakitzen du. Beraz, azken finean, Alderdiari dago-
kio, artistak mundu-ikuskerara zuzena ala okerra darabilen
juzgatzea; eta, beraz, artea noiz egiatia den eta noiz ez,
ebaztea; beraz, arte lan bat arterik den ala ez, erabakitzea.
Baina ondorio hauk lehenik zentsoreen eta funtzionarioen
praksiak erakutsiko ditu, eta, gero, haien jokabidea zuzene-
nesteko muntatuko den teoriak borobilduko ditu. Bil-
tzarreko idazleek, nolana ere, ez zituzten arrisku horiek
igarri. Eta, dudarik gabe, ordura arteko idazle komunista
proletario ta laborari askoren amorratioaren aldean, Biltza-
rreak oso liberala zirudielako.

Biltzarreari laster segituko diona, kultur-terrorismorik
basatiena izango da. Apunteotan, krimen haien historia ez,
baino errealismo sozialistaren teoria ta historia azaldu nahi
da. Zehazkiago: ondorengoan azterkatuko den errealismo

sozialista funtzionarioen praktiak eta irakaspen ofizialen teoriak definitu duena izango da.

2. Errealismo sozialistaren oinarritzko printzipioak

Labur-laburki adieraziko ditut errealismo sozialistaren oinarritzko printzipioak, teoria honen barneko egitamua ta puntu diferenteen arteko lotura logikoa errazago ikus daitezten.

2.1. Artearen sozialista izan beharrari buruzko tesiak:

1. Artea gainegitura da:

- Gainegitura guziak bezala, produzio moldeak determinaturik dago, bai haren forma edo tankera ta bai haren mamia edo kontenidoa.
- Gizarte bizitza, funtsean, produzio harremanek hezurmamitzen dute, eta aldian aldiko gizarte bizitzaren tankera ta mamia ere, produzio moldeak taxutzen eta betetzen ditu. (Produziotik eta produziorako sortu izaten diren harremanei ohi deritze "produzio-harremanak").

Beraz: produzio mailak eta moldeak determinatzen dituzte, produzio harremanen moldea determinatzearen bidez, gizarte bizitzaren mamia ta forma. Ta gizarte bizitzak determinatzen du artearen zer ta nolako izatea. Gi-

zarte bizitzak determinaturik, artea gizarte bizitzaren espilu ta itxurapena da.

2. Produzio harremanek gizartea bi klasetan erdibitzen dute. Hain zuzen bitan.

- Gizarte bizitza klase bizitza da. Ta bi klaseok, produzio moldeak eta produzio harremanek berek eraginda, burrukan ari direnez gero, klase burruka da gizartearen bizimoldea. Bi klaseok egun burgesia (edo kapitalistak) eta proletargoa (edo industriako langileak) dira.
- Arteak bi klaseotako baten interesak eta mundu ikuskera kontraespilatzen ditu (produzio harremanek determinaturiko gainegitura bait da): burgesen arteak burgesiaren interesak eta mundua, proletarioen arteak proletargoaren interesak eta mundua.

Beraz, arteak nahitaez biotako bat izan behar du: burges ala proletario.

3. Baina, honez gero, marxismo sobietarrean, eta partikulazki errealismo sozialistan, bi aldakera inportante somatzen dira:

- Proletario bezala kontatzen dira iadanik laborariak ere; eta, areago, funtzionarioak ere bai, eta baita Estadua bera ta haren tresnak ere. Proletargoaren Iraultza eginik bait dago, Iraultzaren osteko Erre-suma besterik gabe proletargoaren Estadutzat ematen da. Estadua bera Estadu proletarioa da. Es-

taduaren interesak proletarioen interesak dira, teoriak dioenez.

- Estatuak eta funtzionarioek proletarioen interesak babestu ta gidatu besterik ez dutela egiten, egiten da kontu. Beraz, Estaduaren interesak zaintzen eta funtzionarioen gidaritzari segitzen dion artea, arte proletario deklaratu da: artea Estaduaren zerbitzuan dago, ta Estatuak zuzentzen du.

Beraz: artea ez da proletario hain zuzen proletarioek berek (industriako langileek) egiten dutelako, haientzat eta haien alde egiten delako baizik. Arte proletarioa proletarioen aldeko artea da, nornahik egin. (Batez ere puntu honetan berezten dira proletkulturalismoa ta errealismo sozialista: puntu honen ondorio guzietan, hala nola, artearen Estatu tresnen artean integratu beharra, etc., errealismo sozialistak eskatuko duen moduan).

Eta noiz dago artea proletarioen alde?

4. Erantzuna erraza da: proletargoaren interes *objetiboen* alde dagoenean. Hots, historiak berak proletargoaren alde darduzkan eskaintzen alde ari denean (eta ez proletarioen interes sujetiboen alde ari denean, hauk arras faltsoak izan bait litezke). Eta klase burrukan proletargoa interes objetiboen arabera gidatzen duena, interes objetiboak ezagutzen dituelako ta historiaren desarroilo legeak dakizkielako, Alderdi Komunista da. Proletargoaren konzientzia zuzena, horregatik, Alderdi Komunistaren zuzendaritzan eta teoriaran gorputzen da. Zuzendaritza horrekin ados dabilena, ta Alderdi Komunistaren teoriarekin bat datorrena, proletargoaren aldeko artea da: arte proletario ta sozialista.

Argitasun bat zor zaio honi, bukatzeko: ikusten denez, teoria honetan produzio moldeak eta produzio harremanek determinatzen dutena *egia* bat da, ez gizonok geu edo gizataldeok: bi egia daude, interes objetiboen konplexo bi, burgesiarena ta proletargoarena, eta gizonok biotako batu atxiki gakizkioke. Lanbidez proletarioa lot dakioke "egia" burgesari, ta bizikeraz burgesa "egia" proletarioari, halaber. Beraz, de fakto, bi pentsaeratan edo bi egiatan erdibitzen da mundua, iadanik, bi klasetan baino gehiago. Arte sozial-realistak proletargo konkretoari ez, baino haren "egia objetiboari" begiratu behar dio.

Historiak bere legeak dauzka, ta horien aginduari azpiratu behar du gizonak. Ez daukagu beste erremedioirik: haiek diktatzen bait dituzte gure interes objetiboak. Beraz, egiak eta interes objetiboek berezko zerbait dirudite, gizonongandik aparte (1). Objektibotasun hura Estadu proletarioan inkarnatzen da (= Hegel).

2.2 Errealismoari buruzko tesiak

Errealismo sozialistaren teoriak irakasten duenez, arteak sozialista izan behar du, ta errealista izan behar du.

Azken finean, errealista izateak eta sozialista izateak, teoria honetan, ia gauza berbera esan nahi du:

1. Artearen egiatia izateak esan nahi du, arteak errealidadearen berri zintzo ta garbi eman behar duela; errealidadea *den* bezalaxe (ez *agiri* den bezalaxe), aurreiritziz

(1) Historia gizonongandik aparteko zerbait *in se* bezala bururatzen duen objektibokeria honen kritika ikusi nahi duenak, ik. J. Arregi / J. Azurmendi, *Kolakowski*, JAKIN 1.972.

ala interes sujetiboz itxuragabetu gabe, adierazi behar duela. Honek bi muturren artean jartzten du benetako errealismoa, sozial-realismoak hau entenitzen duen bezala:

- artistak ez du errealidadea berari agiri zaion bezala, berari dirudion bezala, ikusi ta juzgatu behar, kolektibidadeari *dagokion* bezala baizik (berriz ere: ezta kolektibidadeari *agiri* zaion edo *dirudion* bezala ere). Hots, proletario klaseari dagokion bezala: sujetibismoa kondentatzen da, hortakoz.
- errealidadea une honetan den bezalaxe, gordin-gordin, bere hortantxe huts-hutsik eta orain ikusten dugun bezalaxe, deskribatzea edo kalkatzea, naturalismoa da, ta ez errealismoa. Naturalismoak, ordea, errealidadea faltseatu egiten du: ez **bait da ohartzten, oraina denbora haundiago baten** parte soila dela, totalidadeak argitzen eta esplikatzen duela parte, errealidadea beti desarroiloan **doala, ixurian eta joanean doala, oraina osotasun baten parte** izanez haren barruan ikusi behar dela. Hots, oraina ez dela ezer geroa ta lehena gabe, ta orainaren zentzua bere geroak bakarrik argitzen duela. Geroa, berriz, sozialista izanen da. Naturalistak oraina totalidadetik atera, "abstrahitu" egiten du. Beraz, faltseatu.

Beraz: artearen egiatia izateak esan nahi du, arteak errealidadea proletargoaren interesen (beti interes *objeti-boen*) ikuspegitik eta sozialismoaren argitan adierazten duela. Egiatia izateak alderdikor izatea hain zuzen eskatu

egiten du, ta ez ukatu. Alderdikor izan arren, arte hau egiatia ta objetiboa da, desarroilo historiko objetiboaren joeran dihardu-ta. Hala esplikutzen du teoria sozial-realistata sobietarrak.

2. Errealidadea burruka izanik, arteak ere burrukari ta alderdikor izan behar. Errealismo izenak ez digu artearen objetibotasun edo independentziaren batetan pentsarazi behar, hau mendebalean entenitu ohi den moduan.

Baina, alderdikaritzaren tesiarekin, artearen klase determinazioak ere berebiziko itxuraldaketa boluntarista sofritzen du: izan ere, artistari errealidadea bere desarroilo historikoaren sentidoan atzematea ta adieraztea eskatzen zaio. Baina nolatan eskatu hori, nolatan izan dakioke artistari posible hori, artistak zer egin, haren produzio harremanetako lekuak determinaturik baldin badago? Artista proletarioa bada, determinaturik dago proletario bezala jokatzerata; ta burgesa bada burges bezala jokatzerata: ala ez? Alderdikaritzaren eta determinazioaren bi tesien artean tirandura ikaragarria dago, kontradizio ez badago behintzat. Errealismo sozialistak askatu gabe uzten du korapilo hau.

Guzi honek, praksian, zera esan nahi du: artista "burges" batek gorabehera sozialen batzuen deskribizioa egi ten badu, ta deskribizio hutsa, hori ez dela benetan errealista. Zereneta errealidade guzi hura ankaz gora doala, suntsitzera doala, dekadentea dela, erakutsi beharko bait luke, "egia" erakustekotan. Idazle sobietar batek Sibiriako nekazarien lan gogorra, bizimodu gaitza, oinazea ta etsipena, ta alkoholismoan burua hondatzea, deskribatzen badu, hori dena sarri gertatzen dena da, baina hori ez da bene-

tan errealista: hori dena superatzera doan desarroilo baten barruan bait dago iadanik nekazalgo sibiriarra.

Beraz, burruka baten baitan gertatzen denez gero, artea nahitaez alderdikor gertatzen da, bataren ala bestearen alde. Artistak deliberatu behar du deliberatuki proletarioaren alde jardutea: askatasun pertsonal hau ta nahimen hau esplikatzea, halare, zaila da filosofia guzietan, eta areago filosofia determinista batetan, une berean norbanakoa klase-kolektiboaren zati deklaratzuz gero.

3. Errealidadea bere desarroiloan zuzen juzgatzeko, **arteak desarroiloaren legeak ongi ezagutu beharko ditu** (= marxismoa ezagutu behar du).

Historiak, osotara hartuta, legeak ba dituela, onartu arren, ordea, zaila gertatzen da une konkretu batetako gertakari konkretu batek duen esanahia atzematea. Horregatik, une konkretu bakoitzaren esanahia desarroiloaren baitan zuzen ezagutzeko, arteak Alderdi Komunistaren praktisa ezagutu behar du: praktisi honetan azaltzen omen bait da hura.

Praksian, honek esan nahi du: arteak eta artistak ez daukatela, ez jeneralean eta ez puntu konkretoren batetan, Alderdiarena (= Estatuarena) ez bezalako eritzirik. Are gutiago Alderdiaren kontrakorik. Stalinekin Hitlerekin itun bat egin, Alderdi sobietarra ta txinarra elkarrekin haserretu, Jrustxofek desestalinizazioa abiarazi ala Budapestera tankeak bidali, Brexniefek Praga zentzatuarazi aholku harmatuz ala Nixonekin tratutan hasi: beti Alderdiak erakutsiko dio artistari guzi horren esanahi justua desa-

rroilo historikoan. Horregatik, azken finean, arteak beti Alderdi Komunistaren gidaritzapean ibili behar du.

4. Errealismoak desarroilo historikoaren baitan eta argitan ikusten du mundua. Desarroilo historikoa, berriz, filosofia sobietarraren ustez, nahitaez eta zuzen-zuzen sozialismora doa: alienazio ta konflikto guzien gaindiakuntzara, gizonon eskubide guzien atseginera ta guzion berdintasun osora. Egia da, munduan oraindik gauza triste ta itsusi asko dagoela. Baina horrek ezer guti esan nahi du. Orain konfliktorik eta hertsapenik, desengainurik eta nahigaberik hautematen dugunean ere, ba dakigu ongi horiek denak pasakorrak direla. Horregatik, literatura sozial-realistak **optimista izan behar du, ez dauka samintasun horietan pausatzerik**. Pesimismoak desarroilo historikoa ez eza gutzea adierazten du, ta sentimentu burgesa da: lur jotzera doala somatzen duen burgesiaren antsia da. Proletarioak ba daki erabateko garaitzapenera doala, ta optimista da. Proletargoaren arteak ere optimista izan behar du.

5. "Errealismo" hitzak berak idarokitzen duen bezala, errealismo sozialistak tradizio errealistaren jarraikitzen ikusten du bere burua. Beraz, ez du ukatzen, proletkultuok egin zuen bezala, orain arteko tradizio literario guzia: ukatu ez, baino superatu egin nahi du tradizio hura. Historia desarroilo izateari dario hain zuzen ondorio hau. Errealismo sozialista orain arteko errealismo tankera guzien superazioa da; arte sozial-realista orain arteko arte guziaren gailurra da. (Orain arteko errealismoa ez da, noski, sozialista izan).

Hauk dira printzipio arruntenak. Punturen batzuk as-tiroago xehatu beharko ditugu.

Proletkulturalismoa proletario iraultzagile batzuen teoria zen. Errealismo sozialista Estaduaren teoria da: literatura (arte) bere zerbitzuan ezartzen duen Estaduaren teoria. **Totalidadean denak bategin behar du, bat bihurtu:** literaturak eta Estaduak ere bai. Gizartearen eta Estaduaren, Estaduaren eta gizabanakoaren, identitate osoa lortu (omen) bait da. Ia ez dago aniztasunik, Bat eta Bakarraren bariazio hutsak baizik: ezberdintasun guzietan bere buruarekin identiko den *totalidadea*.

3. Metodo sozial-realistaz

Saia nadin, eskematiko samar, teoriko sobietar ofizialei jarraiki, errealismo sozialista zer den erakusten.

Errealismo sozialista artea interpretatzeko edo adierazteko nahiz arte egiteko edo sortzeko metodo da.

Interpretazio metodo legez, arte lanaren klasifikazio historiko-soziala dauka eginkizun ta arau estetiko nagusitatzat: arte obra bat klase aurreragilearen aldeko den ala ez, horixe da ikuskera honentzat obraren ezaugarriarik txitezkoena ta begiragartiena. Klase aurreragilearen artea beti errealista da. Errealismoa progresista da. Era hontara ilustrazioaren errealismoa, errealismo burges klasikoa, errealismo kritikoa, e.a. berezten dira. Errealismo sozialista beste horien jarraikitzen dator. Errealismoak, halare, bestelako joera ta eskolekin ez du kontradizio elkar ukatzailerik eza gutu lehenago, Iraultza sozialistaren haro ta kapitalismotik sozialismorako iragaitz burrukaren egunotara arte. Errealismoa bere faltarekin batera kausitzen da, horregatik. Orain errealismo sozialista eta beste joera denak antagonikoak

dira. Ta errealismo sozialista ere errealismo hutsa ta garbia da. Errealismoa gizonak naturaleza ta errealidade soziala geroz gehiago ta zehazkiago menderatu ala gurendu da. **Errealismo artistikoa teknikarekin batera desarroilatu omen da, beraz.**

Sortzapen printzipio bezala, errealismo sozialistak lehen-lehenik arte lanaren bidez errealidadeaz egiaren —hots, errealidadearen beraren— arabera jabetzea eskatzen du. Hau da, errealidadean egiazki dauden harremanak bakarrik, eta daudenez, dauden eran, kontraespilatzea. Errealidadeari buruz erlijioak, mitologiak, e.a. sortutako bururapenen konbentzioz jarduterik ez dago errealismoan. Ez dagoen “izate trazendeteren” bat, “mitoak” eta “irudipen hutsezko kimerak” asmatzen bait ditu halako arteak. Picassorena, horregatik, arte moderno gehienaren moduan, burgesiaren arte dekadente da. Kafka, Ionescu, Joyce, e.a. zer esanik ez. (Baina, guztiz bitxiki, teoriko alemanen eritzian Goetheren *Faust* obra errealista da).

3.1. Interpretazio metodo

Artea lanetik sortu omen zen. (Hau erakusten Lukács ere gogotik lehiatzen da). Koba zuloetako marrazkietan linea errealista nabari omen dago, garai hontako magia ta mitoa lanaren zerbitzu zuzenean omen bait zeuden, **klaseak sortu aurretik.** (Magiok klaserik egon gabe nola sor zitezkeen esplikatzeko gelditzen da). Pintatzen den gaia ere lanari datxeko, orduko lana batez ere ehizea bait zen, ta kobetan pintatuta ere ehizea egon. Denborarekin irudipen magikoaren eta errealidadearen batasun-kontzientzia galdu

egin zen, eta apaizek naturaleza menderatzeko ez zen artea sortu omen zuten, lanarekin zerikusirik gabekoa: berek asmatutako izadiaren nagusi alegiazkoen irudiak (fetitxe, idolo, etc). Geroago jainkoen beren arteko eta gizon ta jainkoen arteko harremanak adierazten hasi ziren apaizak, irrealtasuna artearen gai itzuliz. Arte erlijiosoan (irudigintza, tenplo hargintza, literatura, musika, e.a.) ez dago errealismorik. Abstraktoa ta sujetibista omen da arte guzi hori.

Klaseek sorturik, artea berehalaxe klaseen, hots, nagusien tresna bilakatu zen: Egipto antzinakoan, adibidez, arteak faraoien jaurespenari zerbitzatzen zion. Nagusiek kanon eta arau zurrinak ezarri zituzten artegintzarako, naturalezaren irabazpide artistikoa jende xeheari eragozteko. Artea nagusien pribilejio bat omen zen. Mitologia egiptotarra tankera guziz herrikoikoa izanik, halare, nagusiak ezin artea erabat beren mende hartu izan zuten: horri eskerrak langile, idazkari, nekazari, dantzari ta bestelako jende xehearen agerpen errealista zenbait gelditu zaigu kultura hartatik: herri bizitza adierazten duen artea.

Grezian ere errealismoa artegintza abstraktoaren itsaso erdian agiri da, bakan ta urri, mitologiaz beterik bait zegoen pentsakera grekoa. Berdin agiri da artea ere. Osotarra harturik, zapalkétaren aldeko artea da Greziakoa. Baina errealismo burgesari zenbait asmo ta eredu eskainiz, humanismo grekoa sozialistarenaren guziz antzeko izanik areago (humanismo haren berbizkunde errenazentista dela bide), Greziako arteak ekarri bikaina eman dio errealismoaren kondairari. Bera errealistarik izan gabe ere, arte grekoak errealismoaren sorrerari asko lagundu dio.

Aintzinateko arte guzia dago bururazio mitologiko edo erlijiosoen eragindura pean. Horregatik, egiazko artea errealista baldin bada, erromanikoa, gotikoa, etc. utzi, ta benetako artearen historia lehen kapitalismoarekin hasia dela esan **daiteke, burgesiak Elizaren mantupetik** —edo ankapetik— irten eta zientziak bereber abiatuz batera. Lehenagoko guzia artearen prehistoria bezala ikusi beharko **litzateke. Errealismo sozialistaren teorikoek inpresio horixe** uzten dute behintzat. Hona *Kultur-politisches Wörterbuch*-eko pasarte bi:

“Aitzin-kapitalismoaren desarroiloa zehar eta burgesiaren plazaratzearekin iritxi ziren literatura ta teatro errealista (musika geroxeago) norabide artistiko osatu batetara, artearen aurrerabidea behingoan finkatuz. Honen oinarri **nagusiak hauk dira: (1) kapitalismoaren desarroiloa indartzeak** ekarri zuen jarrera berria errealidadearekiko, honek (praktikan nahiz teorian) “izadiaz eta gizakien arteko berezko elkar-loturez jende guzi-guziak eta edozein ohartzea ta jabetzea” (K. Marx) zekarrelarik, eta (2), **printzipioz** behintzat, izadiarekiko ta gizartearekiko jarrera mitologikoak deuseztu izana”.

“Bere zituen oinarri sozio-ekonomiko orokarrak, gizarteari jarritako helburuak eta bere egiturazko barne batasuna behar zutenaren arabera, orduantxe sortu zen lehenengo aldiz egiazko arte mundutar bat, gizadiaren aldi berri bati hasiera emateko. Eta hain zuzen errealismoaren ezaugarritz sortu ere”.

Berritasun honen tankera batez ere ideologikoki ta sozialki neurtzen dena ikusteko, bi pasarteok hori nahiko

garbi uzten badute ere, hona oraindik beste bat: “Aitzin-burgesiaren errealismoaren desarroilo aldirik galantena Errenazimendua da, sustrai-sustraietan hartuz gero sozialismoaren oso antzeko giza-irudi edo konzeptua sortu zuena. Elizkeriari ta erdiaroko dogma diren gizakiaren bekatu joerari, **giza moztadeari ta gizakiak horregatixe omen daukan** salbamen beharrari, kartsuki ta gogor kontrajarri zioten giza libertadea, guzior ahalmena geure buruon osatzeko ta edonork duen berezko erantzukizuna berez egiten duen guziaz. Gizakiarekiko ikuskera honi antzinateko arte ta filosofia birjasoz eman zitzaion gorputz... Humanismoaren **ekinaldi izpiritual honek, bada, berak sortu berri zuen giza** konzeptu ideal hartan txertatu zituen antzinate klasikoaren ekarriak; bere berezitasunaren eta indibidualtasun aberatsaren bideak finkatuta, orain *hasten da artea kondairan lehenengoz desarroilo bide zuzenean*. Aitzin-burgesiaren arte errealista garaian gizakiaren duintasunaz eta haunditasunaz lortu zen konzientziak bere estetikazko adierazpenik esajeratuenetan ere, oraindik ez bait zuen geroago absolutismoaren aurrean izanen zuen kontradiziorik ezagutzen, ezta urrun zeukan industri-kapitalismoarenik ere”.

Ilustrazio burgesak —geroago— diktadura klasizistaren arau hertsien kontrako burrukarekin jarraitu zuen errealismoaren desarroiloa. (Klasizismoa absolutismo feudalaren interesei omen zegokion). Frantzia errealismoa materialismoarekin (Diderot) eta konzientzia iraultzagilearekin batzea lortu zen. Handik aurrera errealismoa gizarte-kritiko izanen da, XIXgna. errealismo burgesaren haro haundia delarik, Ingalaterran eta Frantzia batez ere: Dickens—Balzac.

Musikan errealismo burgesaren gailurra Beethoven omen da.

Gaurko egoeran, industri-kapitalismoaren baldintza-pez, errealismoa alienazio kapitalistaren erdian desarroila-tzen da. Kapitalismoak, lurreratzera bait doa ta puska-tzen arı izanık, arte dekadentea besterik ezin sor lezake: simbolismo, naturalismo, e.a. —oro har, joera denak deka-dentismo soil, kapitalismoaren dekadentziari dagokionez: dekadentzia horrexen ondorio ta espilu.

Honez gero ez da proletargoaren edo sozialismoarena beste arte metodorik kabitzen: beste denak dekadente dira. Proletargoak ez dauka arte “errealista sozialista” besterik egiterik. Beste arte sozialistarik ez dago. Beste arterik ez dago, azken finean.

Gure maila hontan, izan ere, klase interesen arteko kontradizioa erabateko ta behin-betiko bilakatu da. Alegia, puntu hontan errealismo sozialistaren teoriko sobietarrak nahiko larri agertu ohi dira, batetik estetika-teoriko burgesen kontra, baina bestetik proletkulturalisten kontra ere bai, beren arte filosofia salbatzeko. Ta printzipio arrunt la-zo samarrak formulatu ohi zaizkigu, argitasun zehatz as-korik gabe. Arte burgesaren eta sozialistaren arteko, tradi-zioaren eta berritasunaren arteko mugak nahiko apetazko, aukerazko direla ta teoriko sobietarrek hemen gustora aipa-tzen dute Lenin: “Todos los límites en la naturaleza y en la sociedad son movibles y hasta cierto grado convenciona-les”. Printzipio batek, halare, tinko dirudi, formulazioan behintzat: errealismoaren neurria herriarekiko, batez ere langileekiko atxikitasunean dagoela. Haatik ere praktikan

printzipio honen bakuntasun ta erraztasuna engainagarri agertzen da: Sartre dekadente omen bait da, I. Mann eta R. Rolland errealista, —Kafka dekadente, A. Zweig errealista. Errealista burges, noski, erdi-errealista beraz. (Alderdi Komunistatik kanpora errealista osorik ez dagoela dirudi). Scholajov errealista osoa da.

3.2. Kreazio metodo

Errealismo sozialistak, arte sortzeko metodo gisa, oinarritzko printzipio bi dauka: *alderdikaritza* ta *herriarekiko atxikidura*.

Alderdikor izateak azkenean Alderdiaren mende jartzen du artea. Alderdi Komunista marxista-leninistaren arte-gidaritza prozesu iraultzagilearen lege objetibo beharrezkoa omen bait da. Premia honen teoria Leninekin oinarritu nahi izaten da, baina Lenin ez da inoiz arte osoaz eta erabat zentzu hontan mintzatu: Alderdiko idazle ta artistengandik bakarrik galdatu du Leninek Alderdiaren gidaritza onartzeko. Horrekin artearen askatasuna ezeztatzen eta galerazten dela, eragozpenari, askatasuna hain zuzen premia objetibo historikoari atxikitzean ez bestetan dagoela esanaz, erantzuten zaio. (Determinismo historikoaren arabera premia historikoa ezagutzean eta hari egokitzean datza askatasuna). M. Sholajovek (*El Don apacible*-ren egile) idazle sobietarren “askatasunaren” defentsa hauxe egin du: “Cada uno de nosotros escribe según el dictado de su corazón, y nuestros corazones pertenecen al Partido y al querido pueblo, al que servimos con nuestro arte”. Afanasieven judizioan Alderdiarekin bateginezko alderdikaritzak “asegura un alto nivel ideológico y artístico del ar-

te socialista, lo encauza a la solución de las tareas sociales más actuales y es una condición indispensable de la verdadera libertad de creación artística”.

Bigarren oinarrizko printzipioak herritiartasuna, herrikoitasuna galdatzen dio errealismo sozialistari. Herritiar, nolana ere, aurrerazale ta alderdikor jokatuz bakarrik ager daiteke. **Buru hontako testo klasikoa Leninek Klara Zetknekin solasean esandako hauxe da:** “El arte pertenece al pueblo. Debe calar con sus profundísimas raíces en lo más denso de las amplias masas de los trabajadores. Debe estar al alcance de las masas y granjearse el amor de éstas. Debe unir el sentimiento, el pensamiento y la voluntad de estas masas, debe elevarlas. Debe despertar en ellas a artistas y desarrollarlos”. (Bi puntuok oraindik astiroago ikusi beharko ditugu).

Formari begirazko printzipio orokor batek zera dio: arte lanak errealidadearen kontraespilu zintzo, leial izan behar duela. Ta printzipio honek, berebat, kondizio bi jartzen du: 1) arteak komunikagarri izan behar duela. Berak halaxe “ikusten” duela ta errealidadea beronen neurri araurasunaren jaramonik gabe itxuratzen —desitxuratzen— duen artistarentzat ez omen dago aitzakiarik: berak nolana ere ikusi, egia artistikoak komunikagarri izan behar bait du. Hontarako posibilidadade gutiago ta are sujetiboago arte lana, ta berdin artistaren errealidadearekiko harremanak ere. **Zenbat eta jende gehiagok ulertu ahal izan ta objetiboago, errealistago artea.** 2) Bigarren kondizioa aurrekoarekin batera dago: artistak ikusgune ta ikuskera sozialaz baliatu behar du, ez norbere indibidualez. Ikusgune sozial hau klase gizartean klasetasunaren taiukoa izanen da. Ta beti ar-

tearen komunikagarritasun oinarri. Kondizio honek arte obraren **mamiarentzat aia balio du formarentzat: arte obrak** edozeinek aisa ulertzeko modukoa izan behar du.

Kapitalismoaren gizarte baldintzek (etekin-irritsa nagusi izanik eta guziak guzien kontrako burrukan ari direlarik) errealidadea estetikoki menderatzeko ere modu pribatuz jardutera behartzen dute. Ta errealidadearen jabetze **pribatua, guzien kontrako burrukan egin behar bait da**, errealidadea norbere erara sujetiboki, guziz itxuragabetuz egiten da. Hauxe da surrealismoaren, kubismoaren, etc. iturburu historiko-soziala, kapitalismoa eror zorian dago-ta. Proletargoaren artea, aitzitik, errealista da, langileriaren harremanak errealidadearekin garbi ta naturalak bait dira, ez interes pribatu zikinek endekatuak. Langileria norberekeria edo sujetibokeriarik eta amarrurik gabe, jator, xaloki ta zientifikoki jabetzen da errealidadeaz. Errealismo sozialistaren arabera, hain zuzen ere. Arte burgesa, aldiz, modu pribatuan eta sujetibistan espresatzen da.

Arte obraren balio estetikoa artearen elemento edo osagarri sujetiboa da. Arte obraren balio obietiboa gizonaren jokabideen oinarriek **erabakitzen dute: intereseak**, mundu ikuskerak, arau moralek, e.a. Arte burgesa sujetibokeriaren eta objetibokeriaren artean balantzatzan omen da. Sujetibokeria formalismoa da, formaren estimazio gehiegizkoa. Objetibokeria forma zeharo zabartzea, hots, naturalismoa, errealidadea zuzen-zuzen kopiatzea. Arte burgesaren erdigune falta honek kapitalismoaren gaitzaldi danbaladak kontraespilatzen ditu.

“Errealismo sozialistaren metodo artistikoa”, izen na-

hiz teoria, Stalinen eragindura pean 1932-an oratua da, ta geroxeago idazle sobietarren elkargo estatutoetan jarria. Horiek errealismo sozialistaren definizio hau ematen dute: "Errealismo sozialistak... eskatzen dio artistari, errealidadearen itxurapen egiakor edo objetiboa, konkret-historikoa, beronen aurrerabide iraultzagilean".

4. Produzioa, errealismoa ta arte progresista

Beste edozein teoriari bezala, denbora ezberdinen premiek eta interesek errealismo sozialistari ere oso forma diferenteak eman izan dizkiote. Printzipioak alde batera ala bestera, itxura batetan ala bestetan, desarroilatzen dira, komeni bezala tiratzen eta bihurtzen dira, interesatzen diren ondorioetaraino ailegatzeko. Hau ideologia guzien tipikoa da, ta ez da zaila gertatzen, kontrol enpirikoari ihes egiten dioten afirmazioak egiten dira-ta, itxuraz besterik dirudienean ere.

Hau da, errealismo sozialistak agerkera bat ez, baino halako mila du, segun zein interesen aurrez-aurre aurkitu. Ez da harrigarria, hortakoz, errealismo sozialista azterkatu duten Autoreek, askotan, errealismo sozialista franko ezberdinak aurkitu ta azterkatu badituzte. Eta ez da harrigarria, beren buruak errealista sozialista deklaratu dituzten Autoreek berek, errealismo sozialistarekin gauza guziz ezberdinak bururatu izan badituzte. Fadeiew, errealismo sozialistaren garbitasuna inkisitorialki zaintzeko karguduna, esaten denez, errealismo sozialista zer den galdetuz gero ezer konkretorik erantzuten jakin gabe hil omen zen.

Honek, bistan da, truko asko permititzen du: errea-

lismo sozialistarekin bakoitzak nahi duena entenditzea, batez ere.

Desestalinizazioak errealismo sozialista ofiziala zeharo desprestijiatu zuenez gero, askotan Lukács aipatzen dela, ikusten dugu, errealismo sozialistarentzako salbazio taula moduan. Lukácsengan pertsonalizatu nahi izaten da errealismo sozialista, eta ez Stalinengan, Schdanowengan edo Fadeiewengan.

4.1. Lukács dela-ta: Lukács ez dela, alegia

Errealismo sozialistari dagozkion nototan —eta *nota bene* horixe, notak besterik ez direla— Lukács alde batera utzita dago. Hura aparte ikusi behar bait litzateke. Bi arrazoigatik: Lukácsen errealismoa Lukács marxista izan aurrekoa ta errealismo sozialistarik egon baino lehenagokoa delako, lehenik. Eta Lukácssek errealismo sozialistaren teoriari komeni zitzaizkion gauzetan bakarrik segitu diolako, bigarren. Errealismo sozialista ofizialak Lukácsi, berriz, ezertan ez. Persegitu, egin dio Lukácsi errealismo sozialistak, ez segitu.

Hemen, aldiz, ezin errealismo sozialistaren teoria ofizialaren eta Lukácsen arteko diferentziaz axola gintezke. Nolanahi den, sozial-realista denak zaku batetan sartzerik ez dago, ta hemen teoria ofizialari bakarrik begira geniezaioke.

Lukács eskierki errealista da, baina harena hemen eskuartean darabilgun errealismotik oso urruti dabil. Eta Lukács sozialista bada ere, berdin gertatzen da haren sozialismoarekin.

1949-an Lukácsek teoria ofizialen trasposizio bitxi hau egiten du, esate baterako: ekonomia sozialistaren goraita galantak, demokrazia proletarioaren hedapen azkarrak, gizarte sobietarreko nortasun apartekoen ekintzak eta eragipenak jendemendien gain, etab., intelektualik argiengainean berebiziko eragipena eduki duela — mendebale kapitalistan! Sobiet Batasunean oinarri materialari eman zaion irauliak, mendebaleko intelektualen konzientzi-aldaketa izugarria ekarri duela, alegia. Guziz postura berriak nabari direla mendebale kapitalistako intelektualen artean, Sobiet Batasunak eraginda. “Beste aldetik, gure literatura sobietarra, bere desarroiloa eragozten dioten tradizio burges dekadentearen hondarrei ezin gain harturik agiri zaigu” ... Honelakoak esan ondoren, Stalin ikaragarri amorratu bait zen, Lukácsek bere okerra ta bere “ezjakite arrasoa” publikoan aitortu behar izan zituen. Eta bere okerraren zuzenketa agindu. Nolabait ere lepoa salbatu zuen, behintzat. Eta Stalin hil zenean atzera lehengo lepotik erakutsi zuen burua, in *Problèmes du réalisme*:

“Le problème central du réalisme socialiste est aujourd’hui la liquidation critique de l’ère stalinienne. C’est naturellement la tâche principale de toute l’idéologie socialiste. Ici, je me limiterai au domaine de la littérature. Si le réalisme socialiste, devenu à la suite de l’ère stalinienne parfois même dans les pays socialistes une insulte méprisante, veut retrouver le haut niveau qui fut le sien dans les années vingt (hots, teoria ofizialik bilakatu baino lehenago) il lui faut trouver de nouveau un chemin qui permette de présenter l’homme actuel sous une

forme rélle. Or, ce chemin passe nécessairement par une description fidèle des décennies staliniennes avec toutes leur inhumanités”.

Ohartarazi, beraz: 1. Konzientziari oinarri materialak eragiten omen diolako tesia Lukácsek modu franko bitxian eta litertade haundiarekin aplikatzen duela; eta 2. errealismoari ez diola, iraganaldi stalinistaren kritikarekin ekinenez ezpada, bestelako irtenbiderik ikusten. Batzuek, izan ere, errealismoa “oraintxe honekin” bakarrik enplega dadila nahi lukete, haro stalinistari buelta gehiegi ematea sozialismoari kaltegarri izan lekiokoen kezka. Beldur hori bera ere stalinismoaren ondare da, ta Lukácsek ezin onartu du:

“Les bureaucrates sectaires s’y opposent sous prétexte qu’il ne faut pas remuer le passé, mais présenter exclusivement la situation présente, le stalinisme constituant un stade surmonté, disparu de l’actualité. Une telle affirmation est non seulement fausse —la manière dont elle est faite montre bien la présence toujours extrêmement influente de la bureaucratie culturelle stalinienne— elle est aussi complètement dépourvue de sens”.

Bistan da: edozein sozialismo nahi ez duenak, zenbait “sozialismo” kritikatu egin behar. Hori konprenitzen ez bada, alferrik da sozialismo demokratikoan amets egitea.

4.2. Lehenengo: produzioa

Stalinek “sozialismoa Erresuma batetan” eraiki beharra xede bezala finkatuz gero, berez zetorren ondorioa: Erresuma industrializatzea.

Stalin hartara jarri zen. *Gogor* jarri ere: Leninen buruzagitzan pean Zentral Komiteak zeuzkan 24 bazkideetatik Stalinek 11 garbitu zituen; 1934-ean (errealismo sozialista proklamatu zen urtean) Zentral Komitean zeuden 139 bazkideetatik 98, eta 1934-eko Alderdiaren XVII-gn Biltzarrean parte hartu zuten 1966 ordezkarietatik 1934, halaber. Berdin Trotzki, Rykov, Kamenev, Bucharin, Sinowiew, etc. Stalinek ez zion parean jartzen zitzaion ezeri barkatzen. Guziaren gainetik bere xedeak eskuratu nahi zituen, eta azpian harrapatzen zuen guzia zukutzen eta xehakutzen zuen.

Stalinek literatura ere industrigintzarekin lotu zuen. Eta hemen ere gogor. Lehendik ezagutzen dugu —proletkultuan ikusita— marxismo sobietarrak hasiera-hasieratik ideologia industrialista errazkoi baten aparteko tankera zuela. Orain arte larriagotuko da joera hori, halako sinplifikazioak batez ere. Literaturak eragikorra izan behar bait zuen. Probetxugarria. Halako literatura da literatura ona. Honela biztutako lanaren eta produzioaren erromantizismo bero-beroak ez zuen neurririk. Baina hemen ez dugu bistatik galdu behar, teoria sozial-realistaz ari garela, ez praktiaz. Haro honetako literatur produzioaren edo obren berri jakiteko, literatura sobietarraren edozein historia ikus daiteke.

Ofizialki irakasten denez, produzio moldeak determinatzen du gizarte bizitza. Eta, era berean, literatura ere, gai ala forma. Proletargoak produzioa bere eskuetan duelarik, honez gero ez dago konzientzia deformaziorik. Beraz, errealidadea gisa guziz errealistan hautematen ta konprenitzen da. Arte proletarioa, hortakoz, errealista da.

Irakaspen ofizialaren beste puntu batek dioenez, gizarte bizitzaren aurrerapena, edozein mailatan, produzioak determinatua da. Produzio molde perfektuenari literaturarik hoberena dagokio. Beraz, produzioari daragion eta produzio molderik aurreratuenari ta aurrerakoienari orpo-orpotik lotzen zaion artea, arterik progresistena ta aurreratuena da. Ikus ditzagun puntu biok.

4.3. Errealismoa

Errealismo sozialista, agiri-agiriki, errealismo jeneralaren espezifikapen bat da. Eta "errealismo", oso erabilkizun ezberdinetako konzeptu bat. Ba da errealismo filosofiko bat, eta negozioetarako errealismo bat ere. Irudigintzan forma konbentzionalen, idealizatuen eta estilizatuen kontrastea egiten du errealismoak. Literaturan bai estilo-tipologian eta bai haro literarioen izendapenetan aurkitzen dugu hitz hau.

Errealismoa, *haro literario* bezala, zabalero haundiko fenomeno da. Nahiko arbitrario da, noski, haren hedaduraren mugapena: Autoreak inolaz ere ez datoz bat. Kurioso da, esaterako, ikustea, alemanek eta inglessek zein Autore frantsez errealistatzat jotzen dituzten, frantsesek eta alemanek zein ingles, etc. Diferentzia bitxiak somatzen dira. Hemen ez dugu zehaztasun haundirik behar, noski. Hauk lirateke errealista klasiko bezala kontsideratu ohi diren Autore batzuk: Balzac eta Stendhal Frantzian; Gogol, Dostoiewski ta Tolstoi Errusian; Thackeray ta George Eliot Ingalaterran, eta batez ere Dickens; Espainian Pardo Bazán, Pérez Galdós, Valera, beharbada Trueba; Alemanian Fontane, etc. (1). Nazio bakoitzeko errealismoa diferentea izan

denez gero, zaila gertatzen da errealismoaren definizio arrun egoki bat. Internazionalki eragikorrenak, seguru asko, errealista frantsesak izan dira. Dickens ere bai. Errusiar errealistek XX-gn. mendean ezagutu dute arrakastarik haundiena.

1833-an hasi ziren Balzacen (1799/1850) nobela haundiak agertzen (hamasei liburukitan bilduta *Comédie humaine* osatzen dutenak): Balzacek bere garaiko bizitza ta oreka galdurik zanbuluka dabilen gizartea deskribatzen ditu. Bere protagonistak —Goriot aita, Grandet lukurra, etc.— ezin moldatu dira mundu berrian: prejudizio sozialen aurrean porrot egiten dute, edo diru grinak zipozten ditu, baina lur jotzen dute beti. Ilusio erromantikoek errealdadearen aurrean zeharo frakasatzen dute. Geroxeago “Bovarismoa” esango zaio honi, Flauberten *Madame Bovary* nobelagatik (1857). Emma Bovary, osagile baten emaztea, asper-aspertuta bizi da probintzian, eta bere asperkundera itotzeko, amodio abenturatan sartzen da. Bihotza ta burua galduta, azkenean, zorrez beteta, bere burua hilgo du, ohorea salbatzeko. Are gogorkiago salatzen ditu Stendhalek —*Le rouge et le noir*, *La chartreuse de Parme*— ametsen eta errealdadearen arteko leizea ta amildegia, gizarte napoleonikoaren hipokrisia, faltsukeria, zuri-keria, itxura ta azaluskeria.

(1) Autore klasifikazio hauk ez dago seriookiegi hartzerik, noski: Auto-reotako batzuk naturalisten artean ikusten ditugu askotan (esaterako, Dostoiowski), kostunbristen artean, eta batzuk errealismotik nahiz naturalismotik kanpora ere halaber (Dickens, adibidez, oso leku diferentetan lekuratu izan da). Izenon aipamenak, hemen, irakurlearentzako laguntasun eta orientazio piska bat besterik ez du izan nahi.

Errealismo sozialistak tradizio honen jarraikitzen ikusi
ko du bere burua (2).

Estilo-tipologian denbora guziz diferentetako gauzak, eta gauza franko diferenteak, ezaguarazi izan dira errealismo bezala. Antzinatearen errealismo mitologiko-sensuala, naturala (Homero), errealismo kristau figurala (ebanjelioetako parabolak, adibidez), etc. berezten dira. Arrunki esanda, errealismoa gauzak diren bezala ikusten saiatzen da, eta gauza korrienteak tratatzen ditu. Errealismoak ez ditu prototipoak sortzen, errealidadeko pertsonaiak eta situazioak hartzen baizik. Objektibista da, hortakoz.

Ikusi dugunez, errealismo sozialistak literaturaren (artearen) historia guzira errealismoaren gorapen neketsu baina garaipentsu bezala juzgatzen du. Garbi dago ikuskera honetan errealismo modernoa arte ororen neurri estetiko bezala finkaturik dagoela, ta lehenagoko artean hura gogaztzen duen oro errealismotzat eta errealismo modernoaren aitzindaritzat ematen dela. Errazkeria hutsa dirudi juzgatera honek, halare. Ez dago dudarik, errealismo modernoak ireki dituela begiak, antzinako artean ere errealismoa errekonozitzeko. Baina bidegabekeria dirudi, gaurko planteamoldeak historia guzira zabaltzeak; batez ere obren kalitatea ikusalde honetara mugatzeak. Eskilogandik Euripidesganaino, trajeria atikoa errealismo aldera desarroilatzen da: baina hobetu egiten ote da? Erdi Haro berantean,

(2) Eta, hain zuzen, ez errealismo sozialista ofizialak bakarrik, ezpada baita heretikoak ere (Lukácsék, adibidez). Baina honek ez beti: Brechték, esaterako, ez du haiek erredutzat hartu ta haiei segitu nahiko. Honetatik ere zaila da sozial-realista "heretikoak" errealismo sozialistaren eskola *batetan* egokitzea.

zaldun-idealak zimeldu ta gortesiaren balioen mundu erre-
finatu, izpiritualizatuak, lur jo orduko, literatura errea-
lista, agian hobe naturalista, sortzen da. Goraldi artistiko
bat ote da? Errenazimenduko burges giroan joera errea-
lista didaktiko-satirikoak indar hartzen du (Rabelais), baina
garai bereko joera "izpiritualistako" literaturaren gainetik
ote dago? Artean sarri gertatu da joera errealistek "tabu"
(sozial, erlijioso nahiz estetiko) ziren gaiak eta formak
hautatu izana beren lanerako: tematika erlijiosoaren orde-
z gai profanoak erabiltzea (pintura flamenkoak, esaterako),
edo itsusitzat edukitako postura ta higikuneak hautatzea
(Caravaggio), etab. (askotan errealismoa ta naturalismoa ez
dira berezten, edo nekez eta gaizki berezten dira). Baina
aski ote da hori, artearen "progresorako"? Arteak ez dau-
ka konbentzioen katetan egoterik, baina konbentzioak
haustea bakarrik ez da arte egitea.

Bitxia zera da: ba dela beste ikuspegi bat, errealismoa
hain zuzen beharapenaren eta noragabeziaren agerpen be-
zala juzgatzen duena. Ideal eta asmo haundiek bizituta-
ko gizarteak arte idealista sortzen omen du: karaktere no-
bleak eta prestuak, garaipentsuak. Idealak galdutako gizar-
teak, arte errealista: karaktere ziztrin petralak eta tragi-
koak. Eta ikuspide honek ere historian nahiko erakusbide
aurkitzen du, bere zuzentasuna "demostratzeko"...

Errealismoa XIX-gn mendean izan zenak ez luke bide-
ratu behar, nik uste, errealismoa beti ta gizarte orotan ha-
ren analogia bezala ikustea. Historia hertsatzea dirudi,
errealismoa nonahi ta beti gauza berdinen seinaleztat eta
gizarte orotan funtzio berdinekotzat hartzeak. Historia so-

ziala zehar konstante bat, hari bat (klase burruka) aurkitzen dela-ta, arte historia guziari ere derrigor hasieratik egunotara arteko hari progresista bat aurkitu nahi baldin bazaio, ez dirudi hari hau errealismoa izan daitekeenik, klase burruka modernoa ongienik kontraespilatu duena errealismoa bada ere. Egirudi batzuk gora-behera, analogia artifizialegia dirudi klase burrukarenak eta errealismoarenak, historia guzirako. Areago, historia soziala aldian aldiko bi klasetan bezala, arte historia guzia ere bi zatitan erdibitzea (zati errealista eta bestelakoa) ia bromatatik pasatzen da. Errealista ala idealista ote da *Quijote*? Azkenean: zer da errealismoa? (3).

(3) Konpara, esaterako, E. Legouis / L. Cazamian, *A History of English Literature*, 1964, or. 1199: "Realism in art is not a method but a tendency (errealismo sozialistak hitzez hitz aldrebes esango du), that is to say, something of a variable and relative nature, which can manifest itself in very diverse forms, and is difficult to gauge according to any fixed standards. It cannot be said to constitute the fundamental element to which one can trace back, as it were, the attitude of a writer; it is an effect as well as a cause; it is subservient to ideas, to motives of sentiment and principle, and these motives can be of extremely different character. There is scarcely any aesthetic intention which, if logically developed, may not lead to a more or less accentuated form of realism. It is clear, however, that in the unlimited range of artistic impulses there is a region which responds more especially to the realistic trend of creative effort; just as among theories of art there are some doctrines, the guiding principle of which is realism, and which aim at defining exactly the means of attaining to this form of artistic expression."

"it is in this more precise and, in a way, specialized sense that realism during the Victorian era assumes the character of a typical and dominant tendency. What had long since been, one might say, an instinct of paramount importance in English Literature, then became a theoretical and recognized necessity (neurri berdinean ez bada ere, honek edonorako balio du: ez dago errealismorik gabeko arterik). The general influences of the age tended to favour the taste and search for truth in art. The example of science and the prestige of a rational philosophy

Dena den, Stalinek historiaren eskema simple bat behar zuen, eta harek behar zuenerako eskema honek primeran balio zuen.

Alabaina, errealismo klasikotik sozialistara funtsezko diferentzia bat dago: errealismo klasikoaren oinarrizko ezaugarria, errealismoa errealista egiten zuena, Stalinek ez du bere errealismo sozialistan sartuko, eta gutienez dudagarria da, proklamazio guzien arren, errealismo sozialista egiazki errealista ote den, ala ez ote den gehiago literatura "idealista", konbentzional, idealizatuaren aliadua ta jarraikilea. Izan ere, errealismo klasikoak ikusten zuena tratatzen zuen. Horregatik, detailea maite du, xehetasuna. **Karaktereen desarroiloa erakusten du. Ez du filosofiarik** egiten, deskribatu ta desarroilatu egiten du, kanpotik bezala begiratzen dio munduari ta libre bezala uzten die bere nobeletako pertsonaiei. Ez dira konbentzionalak. Errealismoak indar sekretoen mendean ikusten du gizona, desmitologizatutako trajeria grekoaren antzera. Kate beti diferentetan, baina beti katetan dagoen Prometeo da gizona. Errealismoak hala ikusten du. Eta ez du liberatu nahi: halaxe dagoela *erakutsi besterik ez du nahi*. (Errealismo sozialistak hau dena ezin onartzea konprenitzen da). Errealismoak gave a more methodical character to the current conception of truth -even in the sphere of art- while, at the same time, they helped to extend considerably the limits of the artist's legitimate field of work. Documentation came naturally to be regarded as a literary ideal at a time when history, and the various moral sciences, were organizing themselves according to the example set by the different branches of mathematical knowledge; and naturalism, that is to say, the form of realism which seeks to treat of the aspects of life voluntarily neglected by traditional spiritualism, would also naturally make its appearance in an intellectual atmosphere where certain forms of physical knowledge, such as biology, were daily increasing their prestige and sphere of influence".

lista klasikoa, horregatik, estilo apalekoa ta zuzenekoa da, distanziatukoa, *pathos* gabekoa, mezurik gabekoa. Errealista klasikoa ez da mundua hobetzen edo salbatzen ari. Errealistak, batez ere, bere nobelako mundu konkretoa mugatu egiten du: historia konkreto bat eraikitzen du, historia hori gizarte filosofiaren paradigmatik bihurtu gabe. Gizarte bizitzako zati bat ebakitzen du, ta "horra hor, horrelaxe da", esaten digu. Hori gutiegi iruditzen zaio arte moderno guziari: arte modernoa, horregatik, konprometatua da. Puntu honetan arte moderno konprometatua ta sozial-realismoa batera datoz.

Sozialismo errealistak, aldiz, ez ditu gauzak berak azaldu nahi, gauzen "esentzia" baizik. Errealidadearen barnera begiratzen du, errealidadearen azpian ezkututzen diren joera historiko-sozialak argitu nahi ditu. Eta gizonon "salbazioan" parte hartu nahi du. Hezi. Beraz, errealismoa, estilorik-edo baino gehiago, metodoa da: hots, materialismo historikoa literaturan. Metodo honen bidez, arteak, Sobietarren ustez, bizitzaren agerkeria ezberdinen artean, *tipifikatu* egin behar du, lege historiko-sozial haiek agirian jartzeko ta konziente bihurtzeko. Honek esan nahi, esate baterako, nobela bat protagonista proletario batekin egiten baduzu, zure proletarioak proletario "tipiko" izan behar duela (materialismo historikoaren zentzuan tipiko, noski). Arteak ideologia bati obeditzen omen bait dio, ta obeditu behar omen bait dio. (Hemendik sortzen dira sozial-realismoaren eta arte moderno konprometatuaren arteko diferentziarik larrienak).

Izan ere, teoria sobietar sozial-realistak deritzanez, arte obra beti ideologia baten espresio da: klase baten eta

honek une jakin batetan desarroilo historikoan daukan leku-unearen ideologia azaltzen du. Adibidez, burgesia feudal-aristokratikoaren aurka ta eskubide demokratikoen alde burrukan ari zen garaian, ideologia burges aurrerakoia espresatzen zuen arteak berebiziko goramena ta aberastasuna ezagutu zuen. Proletargoa sortuz gero, ordea, burgesia defentsiban dago, klase atzerakoia da, atzerakoia haren ideologia ere, ta arte dekadentea besterik ezin sortu izan omen du. Burgesiaren gizonaganako mespretxua ongienik *l'art pour l'art*-en ikusten omen da egiteko gustoagatik egiten da artea, gizonen axola izpirik gabe.

Proletkulturalismoaren lekuan Alderdiak egindako teoria (metodo) estetiko da errealismo sozialista. Proletkulturalisten eta beste askoren kontra, orain ez da erizpidetzat edukiko artista jatorriz zein klasetakoa izan. Obrari begiratu tuko zaio. Obraren balioa juzgatzeko, berriz, *klase burru-karen (proletargoaren) interesetan dago neurria*, printzipialki behintzat egilea zein den ta nondik datorren begiratu gabe. Arte obraren balioa bere ideologiak, obraren joerak, eta zein estrategia politikoren barruan erortzeak, neurtzen eta erabakitzen dute. (Ez al da egunoro ikusten, nola edozein burgeskume probintziako langile denak batera baino oilasko proletarioago agiri den, teoriaren gangar gorri-gorritz?). Hezurak eta haragiak baino "materialistagoa" dirudi iadanik ideologiak.

Errealismo sozialistaren etsairik zitalena, horregatik, formalismoa da. Formalismoari ez bait dio batere axola "arte forma ideologikoak", ezta Autorearen ideologiak ere. Autoreak zein gai erabiltzea ere aisa bihurtzen da sekundario (halare ez inportantziarik gabeko derrigor), fun-

tsezkoa arte lana *nola* egin izanik. Hortixe izena ere, formalismoa. Mashinskik honela deskriba-kritikatzen du “zientzia literario marxista-leninistaren etsairik arriskutsuenetako” hau: “De esta manera, el *método* se convierte en fetiche para los formalistas. Al propugnar la idea de que el arte debe estar despejado de ideología, al rebelarse contra la interpretación sociológica y filosófica de la creación artística, los formalistas soslayaban el contenido del arte, por considerarlo un elemento secundario que no merecía la atención del investigador”.

Mashinskiren ustez mendebaleko estetika guzia formalismoari datzeko (seguru asko egia, baina ez hain egia Mashinskik formalismoa beste nolabait definitzen ez badu): estrukturalismoa guzien gainerik, eta harekin batera, intuitibismoa, freudismoa, “New Criticism”, e.a. Denak formalismoaren bariante omen dira. Eta, formalismoaren modura, ez omen dute estetika izenik merezi, funtsean: zeren-eta, “el formalismo aislaba el arte de la realidad, lo enfocaba desde el punto de vista estético, nunca desde el histórico. Tomaba la significación estética del material artístico en sí mismo. Se comprende que sobre semejante base metodológica no era posible crear una ciencia digna de ese nombre”. (Harrigarri samarra da, halare, ikuspegi estatikoa aislatu, balio bat *in se* bihurtu, ikuspegi huraxe bakarrik baliozkotzat kontsideratu, ta hain zuzen *estetika* izenik ez merezitzea...)

Sozial-realistek gustatzen ez zaizkien denak formalista deklaratzeko joera bizia dute. Literatur joerarik kontrarioenak ere formalista deklaritzen dira: *l'art pour l'art* for-

malista da, baina naturalismoa ere funtsean formalista omen da. Sozial-realistek beren hasieretan burrukarik gogorenak formalistekin izan zituztela, gogoratzen bada, aisa konprenitzen da hori. Formalismoaren aurkatz-aurka burutu zen ta definitu ohi du oraindik errealismo sozialistak bere burua. Harrez gero denbora ta gauza asko pasa da, baina sozial-realistek "kontrario" berri guziei ere formalista erizten segitzen dute. Ideologia kontserbakor guzien tipikoa da hori: etsaiengan ere berritasunik ezin ikusi da.

Formalismo modernoaren gurasotzat hain zuzen formalista errusoak hartu ohi dira. Baina egundo estetika-teoriko sobietarrek (ofizialek) ez dute "dekadentista" haiekin ezer jakin nahi. Zeren-eta "los formalistas se preocuparon de la búsqueda de las leyes internas del desarrollo de la literatura". Ta hori aldrebeskeria hutsa da, mundu guziak dakienez: Gauzen azterketarakoan gauzen beren baitako kontradizioak bilatu behar direla, esan izan da: baina horrek agian ez du Sobiet Batasunean balioko, Maok esana bait da.

Teoria estetiko sobietarrak hori zergatik estimatu ezin duen (erlijio arazoan erlijio-fenomenologia zergatik onartu ezin duen bezalaxe) arrazoi batek esplikatzen du: filosofia sobietarraren erreduzio-metodoak. Dena bere aurrekora erreduzitzen da, produzioari ezik beste ezeri norbera izaten utzi gabe, hori egin beharrak zerbaiten "aurrekoa" asmatu egitera maiz behartzen duelarik. Ezagunki, erreduzio metodo horrek artea ere azkenean produzioari lotzen dio, artearen esplikazioa produzio moldetik ateratzeraino gainera.

Ta produzioak, produzio moldeak eta produzio harremanek aurrera dagitenez, haiekin batera arteak ere aurreratu, progresatu egin behar.

4.4. Artearen progresoa ta arte progresista

Estetikaren teoriko (ortodoso ta ofizial) sozialistek ebazten dutenez, artearen kondaira errealismoaren desarroiloarena da, bere gaur arteko goena ta gailurra errealismo sozialistarekin lortu duelarik.

Hau oso bitxia da. Mendebaleko kategoriekin pentsatzen ohituari batik-bat arrotz agertu behar zaio errealismo sozialistaren ikusmolde hau. Artearen "progreso" batez mintzatzea ezohitua bait da hemen, esanahi honetan behintzat. Zergatik artearen desarroilo erpin-erpinean hain zuzen arte sobietarrak egon behar duen ere, nekez ulerlezake hemendarrak. Eta logikak ondorio hortaraxe darimala jakiteak ezin konbentzituko du: halako logika logika juts baino zerbait gehiago ez ote den, gero?. Deskuido batean gutako norbaitek teoriaren bat asmatuko balu, logikarik garbienarekin munduko ta inoizko arterik objektiboki gorenengoa, arterik jatorrena ta bikainena mundu guzian arte euskalduna dela erakusteko, inork egingo liokeen salakuntzarik bigunena ta errukitsuena txobinismo galantaren salakuntza izango luke. (Arrazoi ta erdirekin, gainera). Halare, halakoxe teoria bat Sobiet Batasunean Stalinez gero irakaspen estetiko ofiziala da, ta denok serio-serio.

Zientzia halakoxea da.

Hori nola gertatu den, oso simple da: arteari kondaira

filosofia ezagun bat aplikatuz. Artea oinarri material sozialak —hau da: produzioak, eta produzioagandiko ta produziorako sozial harremanek— determinaturik dagoen bezalaxe, oinarri haren desarroiloak determinatzen du artearen desarroiloa ere.

Ez dago aurrerapen honetan dudatzerik. “La ideología burguesa —oraindik Mashinskiren pasarte bat gehiago aldatzeko—, que desde hace tiempo ya perdió la fe en el progreso (?), rechaza en principio la posibilidad del desarrollo del arte, prediciendo su desaparición inevitable... ‘No existe ningún progreso estético de la humanidad’, declaró en su época Benedetto Croce. Ahora esta idea está de moda en el Occidente” (4).

Ez da ahaztu behar, sozial-realismoaren arabera artean, *lehenengo*, kontenidoak formaren aldean era guzizko lehenetasuna duela. Kontenidoak berak agintzen du formaren nolazkoa. Baina ez da aski forma gaiari egokitzea. Adibidez: Joyce baitan formak eta gaiak harmonia osoa dute, baina gaia burges dekadente delarik, literatura dekadente da Joycerena.

Eta, *bigarren*, ez da ahaztu behar, artearen kontenidoa beti ideologikoa dela. Ideologia dela. Klaseren baten ideologia, nahitaez. Afanasiev baitan irakurtzen den bezala: “El arte es una parte de la superestructura, y por eso sirve a la base, que la ha originado y sobre la cual se desarrolla. El moderno arte burgués, por ejemplo, sirve a la base capitalista, aspira a justificar la existencia de la socie-

(4) Cfr, *Unión*, junio de 1970, or. 178-186. “Unión: revista de la unión de artistas y escritores de Cuba”.

dad erigida sobre la propiedad privada y la explotación, a defenderla contra las fuerzas revolucionarias, llamadas a sustituirla por otra sociedad nueva, por la sociedad socialista''. Aldrebes, proletargoaren artea proletargoaren alde dago. Ta lehenasuna kontenidoak duelarik, arte obra zer-zen duena ideologia delarik, arte obra aurreratuen ta aurrerakoiena proletarioa da. Internazionalki ikusita, arte sobietarra: iraultza sozialista internazionalaren abangoardia Sobiet Batasuna da-ta.

Beraz, bi arrazoipidetatik ailegatzen da ondorio hartara: **produzio harremanik aurreratuenek arterik aurreratuen ta sortzen omen dutelako**; ta (arrazoipide honek mende-**debaleko proletargoarentzat ez bait luke balioko**) klase aurreratuen ta aurrerakoiena proletargoa delako.

Hartu diren abiaburuek berez eramaten dute, munduko literaturarik aurreratuen ta, pinturarik aurreratuen ta, muskarik aurreratuen ta, etab. sobietarrak direla ondoriora. **Ta teoriko sobietarrek milika ibili gabe onartzen dute hori, apaltasun guziarekin.**

Sobiet Batasuneko Alderdiaren Zentral Komiteak 1946-ko abenduaren 14-ean, xalo-xalo jakinarazten zuen hori, argudioaren zuinak esaldi trinko ta laburretan maisukiro ezarriz. H. Arvonek dakarren moduan aldatzen dut:

La force de la littérature soviétique, *qui est la littérature plus avancée du monde*, consiste en ce qu'elle est une littérature qui n'a et ne peut avoir d'autres intérêts que les intérêts du peuple, *les intérêts de l'Etat.*

La fonction de la littérature soviétique est *d'aider l'Etat à éduquer* correctement la jeunesse, à répondre à ses besoins, à apprendre à la nouvelle génération à être forte.

C'est pourquoi tout ce qui tend à propager l'absence d'idéologie, l'apolitisme, "l'art pour l'art", est étranger à la littérature soviétique et nuit aux intérêts du peuple et de *l'Etat soviétique* (nire azpimarkatuak).

Aurrerapena arte sobietarraren zerbitzuan ezezik, arte sobietarra aurrerapenaren zerbitzuan ere ba dago. Afanasiev baitan honoko hau irakurtzen da oraindik, artearen aurrerapenari azalpide emanaz eta beronen azpialde sozial-historikoa argituz: "El arte de toda nueva época conserva cuanto de progresista y mejor contiene el arte de las épocas históricas precedentes. Sobre la base de la lucha revolucionaria de la clase obrera y de su avance hacia el comunismo ha surgido un arte cualitativamente nuevo, socialista. *Al recibir todo lo mejor del arte progresista del pasado, el arte socialista constituye una etapa superior del desarrollo del arte*, correspondiente a las nuevas condiciones históricas. El método creador de este arte es el *realismo socialista*". Alleluia Alleluienova!

Garaudyren *Esthétique et invention du futur* liburuan zera irakurtzen da:

"Marx se moquait déjà de cette "manie prétentieuse des Français" du XVIII siècle qui, en vertu de leur matérialisme mécaniste, raisonnaient ainsi:

nous sommes supérieurs aux Grecs anciens par notre technique et notre économie, notre art est donc supérieur au leur!''.

Ez alferrik!

5. Idazleen protesta: hastapenak

Mundu komunistan literaturak ez du askatasunik. Jen-de askok bere jantziak urratzen ditu gaur honelakorik esaten bada. Izan ere, CIAk zabaldutako zurrumurru ta esames gaiztoak, etc. etc. omen dira horiek. Haatik ere asmatu ez zituen "ipuin horiek" CIAk zabaldu aina egin. Ez zeukan batere asmatu beharrik: Sobiet Batasunean aspaldion izpirituaren askatasuna ostikatu ta hankapean zukutu da. Egia horixe da. Nola hau errealidade bat den, borondate txarrak aprobetxatu egiten badu, onak ere jaramon behinik behin egin beharra dauka. Ta kontuak atera beharko ditu.

Kondairak ezagutu duen adimen zapalketarik astunena, izpirituaren askatasun faltarik arrasoena ta zeharokoen, "beste" eritziaren zanpaketarik ankerrena, hiru gizar-te sistematan gertatu da: Eliza katolikoan, faxismoan eta komunismoan. Hiru Inkisizio hauen moralak ez da inoiz odolaren aurrean ikaratu. Eta ideia sakratuenen izenean egintzarik kriminalenetan aihertuz hiruretan. Ideia santu batzuen aitzakiarekin, ideien askatasuna terrore bidez eragotziz. Ideien izenean errealidadea hertsatuz eta gizonaren bitzta destainatuz. Ordenuaren izenean libertadea akabatuz. Hiruretan askatasuna haundikeri grinari opalduz. Eta guk hirurekin dugu zerikusirik. Ez dago, bada, kasuistika-

rako eskubiderik: inon baino gutiago gure artean, herri eritziaren askatasun eskubideak kostala ala kostala defendatu behar ditugularik.

Berez errealdade ukazina batetik, eta, besterik, gogetara obligatzen duen problema berezi bat guretzat. Baina ba dago beste arrazoi bat ere, problema hau planteatzeko: Sozialismo ohi deritzanaren baitan egiazki dena sozialismo ote den galdera. Izan ere, faxismoaren azpitik etorritik gizarte sobietarra arte-kontuaren aldetik begiratzen hasten dena, bat-batean zura ta lur uzten du, errealdismo sozialistak eta faxistak forma ia berdin-berdineko arte-produzioa dutela kausitzeak: arkitekturaren eta pinturaren, batik bat, Hitleren Alemanian eta Stalinen Errusian erizpide estetiko berdinak aurkitzen dira, ta hain zuzen haietara bietan ideologiak eta bietan bide berdin samarretatik eramanda. Beste eritzien errepresioaren zuzenespena ere —beti printzipio abstrakto gorenagoen izenean— tankera berdinekoa bietan (formalki), eta bietan Eliza katolikoaren antzera. Mekanismo ideologiko berbera beti.

Hau triste da, baina triste arren ez da bestelakatzen. Eta izanak izan.

Ez dago askatasun faltaren fenomenoaren ere abstrakt ebazterik (baina gaitzesteko bezain gutxi onesteko, hori esaten duten gehienek gero Sobiet Batasuneko askatasun falta zeharo abstraktiki xuritzen bait dute): inola argitaratu azaldu ahal izateko askatasuna behar duten ideiak eta indarrak ba daudeneko askatasun falta, eta edozergatik halako ez indarrik eta ez interesik dagoenetakoa, guztiz ezberdinak dira. Idazle sobietarrek Alderdiak nahi duena besterik esateko asmorik ez balute, askatasun falta printzipial-

ki bakarrik salatu ahal izango litzateke, falta formal hutsa izango litzateke (kapitalismoan, osterantzean, askatasun formal hutsa omen dagoenez). Kasu hau, beharbada, jeneralean samar behintzat, 1920-koa izan zitekeen Sobiet Batasunean. Arras diferente da gaur: askatasun falta soilaz gainera errepresioa ere ba dago, ta gisa hontan bakarrik mintza daiteke iadanik hango askatasun faltaz. Ta orain aldrebes: errepresioak ere ez dira denak berdinak. Sobiet Batasunean herri eritziaren kontrol askoz gainera (hau nonahi dago), kontrolari ihes egiten dionarentzat zigor hestua dago. Areago: errepresioak, zigorrak bere burua zuzenets lezake uneko ta mementoko premia bezala. Orduan maila hortantxe azterkatu ta eztabaidatu beharko litzateke. Baina errepresioak bere burua printzipiozko arrazoipidez onesten badu, ez du balio hura pasadizoko gaitzen mailan epaitzeak. Sobiet Batasunean halaxe da: beraz Sobiet Batasuneko askatasun falta herri eritzia kontrolatzeko premia bezala zuzenesten duenak, problemari ihes egiten dio, horretaz gainera zigorketaren hauzia bait dago. Eta hau, teoria penal sobietarrean, ez da iragaitzezko problema bezala ikusten, klase etsaiaren teoriaren parte bezala baizik. Bestelako eritzien zigorketa ez da klase burruka besterik. Hauxe da, problema hau ezin isilik pasatzeko laugarren arrazoa: aurrekoarekin batera harturik, sozialismoak Sobiet Batasunean duen ideologia osoaren tankera hauziperatzen bait du. Funtsean, literaturaren askatasunarena ez, baino Deretxo Penalarena da problema. Bestelako mila printzipio ere inplikutzen du-ta.

Zentsura "sozialistaren" eta Erresuma haietako izpirituaren askatasun falta osoaren berri lehenengoz antikomun-

nismo faxistarengandik izan duenak luzaro ez du sinestu nahi izan. Isil-isilean beti itxaron du —ta agian oraindik itxaroten— albiste haiek denak gezurra zirela. Ez direla ikustean. ordea. konklusioak atera behar. Zer beste erremediorik dago. Bestela ez daki, sozialismoan jarrita dauzkan itxaropenekin zer egin.

Konklusio hauetan antimarxismo arriskua baldin badago (ta non ez dago arriskurik?), haien ezean ez dago faxismo gorriarena eskierki gutiago. Eta inor lehenengoan erortzea erori, ezin bigarrena konzientziaren makurkeriaz propio bilatzea baino gaiztoagotzat edukiko da. Eta niretzat behintzat, nola sentimental-edo ere ba naizen, errazago da ideologiak, estrategia, itxaropenak eta dena hauzitan jartzea, edonolako komenentzi zioгарик zapalduen zapalketa, isilduz ala ukatuz, onartzea edo toleratzea baino. Gainera, literatura errusiarraren izpiritua estimagarriegi iruditzen zait, Alderdi-politika motz baten erreparoenatik haren kateapen eta hildurapen sistematikoak ontzat emateko, galtzen denarekin konkret zer irabaz daitekeen hobeto ez dakigun artean behinik behin. Gainera, sozialismoak non huts egin duen garbi salatu ordeztasunak, beharbada asko lagunduko dio garaipen bidearen strategiari, baina estrategia horren barruko iraultza indarren artean ez sozialistenei, ta bai faxistoideenei. Indar iraultzagileen artean ere berezi egin behar bait da. Eta sozialismoa ezertan gaizki egon, baina kritikarik egiten ez bada, geroz eta gaizkiago joanen da. Gainera *Heautontimorumenos* deritzan liburu zahar batetan ez dago alferrik esatera sonatua, "homo sum, humani nihil a me alienum puto", jakitu-

riak bere sententzia borobilenak gustora bota ohi ditu latinez-ta.

Xelebrea da: errepresioaren kritika egiteko "eskubide" bila hasi behar. (Halare zapalketaren kontra omen gaude, edonon gertatu hau. Zerbaitek oso endreatuta daude gure konzientziak).

Haatik ere, ez da muntarik gabekoa konklusioak nolako izan: askatasun falta hau ikusirik, sozialismoari zaputz egin behar ote zaio? Ez: konklusio modu horietara, aldez aurretik hautabehar edo alternatiba eskemarekin pentsatzen duena bakarrik hel daiteke. Eta eskema (funtsean manikeo) hau ez da inolaz ere beharrezko, ezta bidezko ere. Teorian ez, argi dago. Ta praktikan ere ez. Bestela, esaterako, sozialismo nazionalen tesiak ez luke zentzurik; noiz nongo errealidade (sozialista) ezberdini nahitaez teoria ezberdina bait dagokio, ta dialektikoki aldrebes, teoria diferentea behar errealidade diferenterako. Alegia, marxismo ezberdina kasu hontan.

Dagoeneko sozialismo klasikoaren barruan ere kontradizioak sortu dira. Beraz, kapitalismoaren ezezkoan jarraituz protosozialismoaren, 1920 inguruan eratu zen sozialismo arkaikoaren eta 30-gn urteetako Stalinismoaren gaindiakuntza posible da. Posible ezezik beharrezko ere bai. Ta gaindiakuntza horrexetarantz joko dute nire konklusioek.

Horretarako, aldiz, problema zehazki ezagutu beharra dago. Guri, hemen, literaturaren arloa dagokigu.

Literatura sobietarraren hasiera, suharrak, alaitasunak

eta pozkarioak betetzen dute. Stalin hil eta berehalaxeko literatura entusiasmo harekin kontraste radikalean agiri da. Eta zoritxarrez harrez gerokoa ere bai.

Aurrenik, itxaroten zen kultura berririk ez da sortu. Aginpide sobietarrak laguntza asko eman dio kulturari: eskolei, prentsari, literaturaren zabalkundeari, e.a. Laguntasun guzia zenbatenaren galgan dabil. Ikasketak batez ere teknikaren aldetik eramaten dira: natur-jekintzen ikasle asko dago, giza edo izpiritu-jakintzetako hagitx gutxiago, ta zer ikasi ere txit kontrolaturik daukate. Zertasunaren aldetik, izan ere, lagundu ez baino eragotzi egin da Sobier Batasunean kultur berriztapena, arte ta filosofia moderno oro burges ta dekadente bezala kondenatu bait da.

Terroreak gizarte osoa uzkurdu ta kikildu zuen: halako gizartetan izpiritua dardaraz bizi da, bizi bada. Beldur da ezer ausartzeko. Beldur da agirian agertzeko. Ezin da ezer produzitu. Izpiritua bere baitan ezkututzen da. Ba dakit, ezkertiar “finen” artean ez dagoela ondo ikusita, holako “zatarkeriak” aipatzea, ta ez naiz detaileetan luzatuko. Permitti bekidate, halare, Roy A: Medwedew historiagile sobietar eta komunistaren pasarte bat aldatzea, terrorearen neurriak —neurrigabekeria— adierazteko. Iraultza egin ta handik hogeitertara, eta bake garaian, jazo-takoen berri ematen du:

“Kalkulo zuhurren arabera, 1936 eta 1939 artean, lautatik bost milioitara ailegatuko ziren arrazoi politikoengatik zigortutako pertsonak. Horietako gutien-gutienez bostehun milatatik seirehun milatara afusilatuak izan ziren funtzionario altuak gehienbat... Polizia sekretoak, bi urtetan bakarrik, komu-

nista gehiago hil zuten, klandestinidateko urte guzietan, hiru iraultzatan eta hiru urtetako etxeguduan hil ziren komunista guziak batera baino” (1).

Hau da: burgesia ksaristik sekula hil duen baino komunista gehiago hil dute komunistek berek. Pentsatu beharreko data da hori. Ksarismoa ala stalinismoa da komunisten (ez komunismoaren) etsai gaiztoagoa?

Jrustxofek, aginteratu zenean, 750 mila funtzionario destituitu omen zuen, 20-gn Alderdi Biltzarrean berak jakinarazten zuenez... Imajinatu ere ezindako zenbakiak dira guretzat. Eta itzul gaitezen literaturara.

20-gn Alderdi Biltzarrearen prestaketarakoan M. Solojovek *Prawdān* (1956, otsailaren 21) honela abixatzen zien bazkideei: kantitateak, hau da, Idazle Sobietarren Elkar-goak 3.773 idazle, lumaz harmaturik, edukitzeak, Biltzarrea ez ikaratu ta ez harrotu egin behar luke. Azkeneko urteetan inprimarazitako liburuen kantitateari ere Biltzarreak ez lioke kasu haundirik egin behar. “Aitortu beharrean gara, azkeneko hogeitau urte honetan eskukada bat baino gehiago taxuzko libururik ez dugula sortu, baina bai zirtzileria toneladaka”. Munduko literaturarik aurreratuen eta aurrerakoenetik hauxe gelditzen da.

Literaturari hegoak moztu zaizkio: horrela erraza zen mendean edukitzea, baina gehienetan literaturarik ere ez zen. (Halare ez zion inporta: agintariek maite ere ez bait zuten literatura). Stalin hil eta berehalaxe alde guztietan

(1) R.A. Medwedew, *Die Wahrheit ist unsere Stärke. Geschichte und Folgen des Stalinismus*, Frankfurt, 1973.

berebiziko urduria ta bizitasuna soma zitezkeen. Literatura ordura arteko eskema aspergarri beti berdinetatik kanporatzen ausartu zen. Une batez desizoztea ba zetorrela zirudien, ta izozpean loakartutako izpiritua, udaberri argitara irtenda, nagiak ateratzen hasi zen. Olga Berggolz poetisak ireki zuen kritika, 1953-ko apirilaren 16-ko *Literaturnaja Gazeta*-n: "Literatur arratsetan, Autore lirikoek beren poesiak irakurtzen dituztenean, sari ailegatzan dira mahai-burura entzuleen txarteltxoak: "mesedez, zerbait liriko irakurri". Horra, bada. Irakurtzen ari gintzaizkiena entzuleei ez zitzaien lirikarik iruditzen (eta gu nola Autore lirikoak ginen, gure obra lirikotik zerbait entzun nahi zuten). Honen arrazoia, nik uste, obra liriko askotan inportanteena falta izatean datza: gizatasuna, gizona... Giza sentimenduak honela ito izanaren erru ez gutxi sasi-kritiko hazalutsek daukate. Norbaitek kezka edo saminik poesiaren batetan azaldu orduko ta —Jainkoak libra gaitzala!— poesian tristurarik nabari bada areago (maitea despeditzekoan, adibidez) kritikoak garraxika ta zalapartaka hasten dira, 'pesimismo ta dekadentzia' haien kontra. Batez ere malinkonia hori segituan datorren zerbait pozgarrirekin erremediatzen ez bada: esaterako, maiteak alde egitean bakarrik gelditutako gure maitaleak su ta fu belar ta lasto produzioaren plan neurriak jo ta pasaz..." Denari aurkitu behar zaio ordariaren bat.

Olga Berggolzek salatzen duena sinplea da: literatur gidaritzan ofizialak literatura heroikoa, optimista, konformista bakarrik toleratzen du, produzitzaileak kemendu ta berotzeko. menekoak manuerraz lotzeko. Gizonak produzitzailetik eta "gizarte sozialistaren eraikitzailetik" ez dau-

kanak, pertsona "pribatuak", gobernuarentzat ez du axolarik merezi. Ta sentimentu pribatuak, tristura bezalakoak batez ere, "dekadentziaren" seinaleztat ematen dira, ez bait dira triunfalismo nagusiarekin ongi egokitzen: "Victorian Marxism" zeritzaion Marcusek sobietarrari.

Ilja Ehrenburgek aitzakia bera zuen (Snamja, 1953/10): kontrol azpiko literatura hontan gizonari ez baino produzio-makinari begiratzen zaiola, gizonaren sentimenduek ordez produzio prozesuak arakatzen direla. Baina konparazio dohakabe bat ere ezin kolkoan gorde izan zuen, ta garesti irtengo zitzaion: Ksaren garaiko erredatore zitelenari ere ez zitzaiola egundo burutik pasa Txejov, Tolstoi edo Gorkiri zertaz idatzi behar zuten agintzea: Sobiet Batasunean, aldiz, egunoroko egia zela hori. Funtzionarioen etengabeko sermoi azpian bizi behar zuten idazleak ezin ausart zitezkeela ezer negatiborik aipatzen ezta eguraldi txarrik ere!

W. Pomeranzew *Nowyj Mir*-eko kritikoak printzipioak berak bota zituen mahain gainera: zertarako da idazlea gizar-tean? Aginpide politikoaren eskua hauzitan jartzen zuen, idazleari dena larrosa koloretan azaldu ta parabisu antzeko egoerak deskribatu arazteari "liburu estereotipoen serie produzioaren" iturburu eritiziz. Hauek ez dira gizonek idatzitako liburuak, esaten zuen, makina automatikoren batek baizik. "Autoreren bat 'nire liburua' aipatuz badatorkit, laster galdetzen diot nik: nolatan gero zurea? Zer da, bada, zurea hor?"

Sensazio bat I. Ehrenburgen *Desizoztea* (1954) izan zen, iadanik haro guziari izena eman dion obra. Fraseo-

logia politiko hanpatua zeharo erantzi ta zahar "idealistaren" buruz-buru gazte bat jartzen du. Gazteak errealdak nahi ditu, ideia haundirik gabe: "ideiekin ez dago ezer egiterik, lepa-hezurra haustea ezpada". Zaharra Iraultzan parte hartu zuen maixu bat da, ta garai haren nostalgiaz bizi da: gazteriak hizketa berri bat duela, tradizio denak galdu dituela, idealismorik batere ez duela, ez duela gurasoen mundua ulertzen, eta kexu da gaixoa. Gazteak: "Xelebrea da. Aitak dena ideal modura ikusten du. Herriaren barrura joaten ziren, Iraultzaren alde burrukatu zuten, espetxeratuta egon ziren neskatxekin dabil oraindik ametsetan. Gaurko neskatxak film-direktore batekin edo jeneralen batekin ezkontzen dira. Edo lantegi-bururen batekin, horko neska hori bezala".

Daniel Graninek aldrebes ikusten du mundua *Norberire eritzia* kontuan: bere protagonista idorokunde bat egin duen tekniko gazte idealista bat da. Baina burokraziak ez dio aurrerapiderik uzten. Bere asmo idealista guziak hondatzen dizkion burokrate zahar malapartatua, behinola gazte idealista sutsu izandako bat da hain zuzen. Protagonista ere noizpait zahartu egingo da, etsi egingo du ta berekoi bihurtuko da, ez du problemarik nahiko, ez du begiratuko gauzek berez zer balio duten, erakundeari patxadaz funtzionatzen utz diezaiotela nahiko du, konformista itzuliko da. Mundua aldatu nahi duten gazteen zorakeriarik ez du entzun nahiko.

Bi diagnosi diferenteok ba dute puntu komun bat: gazteriak, idealista ala ez, iadanik ez duela hartukizunik erakundeetan finkaturiko gurasoen idealismoan, iraultzagile izandako gurasoen *establishmentean*.

Aldarte honek ez zuen asko iraun. 1954-eko Idazle Biltzarrean Alderdiak berriro ordenua lotu zuen. Idazle zenbait zigortu zen, baina inor "garbitzeraino" ailegatu gabe.

Bilera motela izan zen, Idazle Sobietarren lehenengo Biltzarrearen (1934) garrik batere gabe. Han eztabaidak sutan ibili ziren. Gorkiren nortasuna guztien gainetik zeintzen zen, Biltzarreari izpiritu emanaz. Bucharin, Alderdiaren ideologo dizdiratsuenetakoa bera, eritzi ofizialaren aurka mintza zitekeen oraino: literatura politikaren eta ekonomiaren funtzio soil itzultzearen aurka, literatoei literatura eskatuz, eta ez propaganda. Bucharinek, Goetheren *Faust* literatura unibertsalaren erpin eta errealismo sozialistaren eredu gisa aipatuz batera, "slogan politikoak ritmo piska batekin korapilatzen" bestetan ez zekiten poeta iraultza-gileak gogorki jorratzen zituen. Boltxebikien poeta laureatu zen Demjan Bedny batez ere. Berritxu horien aldean, benetako poeta, orduan ia inork ezagutzen ez zuen Autore isil bati zeritzan: Boris Pasternaki. Biek gaizki bukatuko zuten: Bucharinek lau urte geroago, hauzi barbaro baten ondoren Stalinek hilarazita. Pasternakena ezaguna da.

1954-ean ez zegoen eztabaida haundirik: hartarako ohitura galduta zegoen. 20 urte zen, azkeneko Biltzarrea egin zela. Alderdiari oso neke gutxi kosta zitzaion idazleak atzera manukortzea. Baina ilunte aldi laburra izango zen.

1953-ko martxoaren 5-ean hil zen Stalin. Literaturaren kontrola ta dirijismoa berehalaxe bigunagotu ziren. Urteotan prozesu berri baten epeak ikus genitzake.

1954 - Idazle Sobietarren Elkargoaren II-gn Biltzarre Orokorra: idazleen artean berriz ere diziplina jartzeko asmotan Jrustxofek deitua. Baina Biltzarre honetan garbi gelditzen da, errealismo sozialistak ez duela indarririk, prestijiorik. Horregatik, errealismo sozialistaren haroa, zentzu hertsian, 1934-1954 urteetara muga liteke. Alegia, errealismo sozialistak ez du oraindik ofizialtasunik galdu, horri begiratzeaz gerozkotan. Baina bai eragipena: 1954-az gero, errealismo sozialista krisian dago, eta, ba dirudi, hura seriotan hartzen duten bakarrak zentsoreak eta funtzionarioak direla.

1956 - Alderdi Komunista sobietarraren XX-gn Biltzarrea, ta Jrustxofen oldarra Stalinen kontra. Idazleentzat askatasuna gogarazten dien eta stalinismoaren aurkako burrukara deitzen dien seinale bat gehiago izango da.

1958 - Jrustxofek bere nagusigoa finkatzea ta buruzagi bakar gelditzea lortu du, ta, antistalinismo gisa batikbat, askatasun eremu haundi bat irabazten da. Jrustxofen ahaleginak gorabehera, idazleei mendean eusteko, harrez gero idazleak geroz-eta kontzientzia irmoagoarekin altxatuko dira Estaduari buruz-buru. Urte honetan (1958, urriaren 23-an) Pasternaki ematen zaion Nobel Sariak agirian nahiz pribatuan idazleen problema eztabaidatzera behartzen du Sobiet Batasun guzian. Idazleen problemak honez gero ez du bakerik emango.

Halare, harrez gero prozesotan ez dira maila ta problematika diferenteak nahastu behar. Azkeneko boladan ba dirudi, geroz-eta gehiago idazleek ia Estaduaeren juez bezala agertu nahi dutela. Hau da, beren buruak autori-

dade edo instantzia politiko autonomo bezala ikusten dituztela. Ez dago esan beharrik, idazle guziak ez direla eritzi politiko ta sozial berdinetakoak (Soljenizyn, adibidez, biziki kontserbadorea agiri da), denek ez dutela postura berdina Estadu sobietararen aurrez-aurre, etc. Honek jartzen dituen problemak (edozein idazleri "mandato politiko" moralik ote dagokio?, etab.) asko ta zailak dira. Eta nolana ere, problemaren maila hau ez da nahastu behar, nik uste, errealismo sozialista eztabaidan jartzearen mailarekin. Bi mailen problematika ia problematika kontrarioa bait da: hemen idazleak Estaduari kontuak eskatzerik ba ote daukan eta nola; errealismo sozialistarekin jartzen den problema, aldiz, aldrebes da: ia Estaduak idazleari kontuak eskatzerik ba al daukan eta nola. Perspektiba kontrariotako problematikak dira biok, puntu komun asko badute ere.

Hemen errealismo sozialistaz ari gara, ta hura nola eztabaidan jarri den erakustea bakarrik da gure zeregina. Besteak beste.

Errealismo sozialistaren aurkako protestak, lehenik, literatura estetika dogmatiko baten menpetik askatu nahi du. Funtzionarioen menpetik, gero. Katschaturianek Stalin hil ta berehalaxe esaten zuen moduan: "krezazio problemak ez dago metodo burokratikoak soluzionatzerik".

Idazleen II-gn Biltzarre Orokorrean behin ta berriro kondenatu ziren metodo burokratikoak literaturan. Eta Biltzarreak, idazleak nagusi berrien alde irabazteko zenez gero, ritual klasikoari segitzen bazion ere, deskontentu jenerala bistan jartzen eta kasi onesten zuen. Jrustxofen

taktikak elkartzeko zailak ziren bi polo zituen: batetik stalinismoa kondentatu, bestetik idazleak beretzat irabazi ta bere mendea gorde.

Biltzarreak ez zuen errealismo sozialista hauzitan jarri. Berriz ere errealismo sozialista konfirmatu zuen. Baina sozial-realismoaren definizio hau ematen zuen: "Errealismo sozialista sobietar literaturaren eta literatur-kritikaren oinarritzko metodoa da, ta errealidadearen isladatze egiatia ta historiko-konkretoa eskatzen du, haren desarroilo iraultzagilean". Honen luzapena, aldiz, bazterrera utzi zen: "Horrezaz gainera, isladapen artistikoaren egiazkotasuna ta osotasun historikoa jendeteria langileen aldakuntza ideologikoarekin eta hezkuntzarekin sozialismoaren izpirituan bateratu behar da".

Biltzarreak errealismo sozialistaren hutsak nabarmen uzten zituen. Eta berehalaxe hasi zen errealismo sozialistaren eztabaida. *Nowyj Mir*-en abenduko zenbakian Simonovek "oinarrizko metodo" esaldia kritikatzten zuen. Zer esan nahi da esaldi lauso ta arrunt honekin? Azkeneko hamar urteetako idazki denak banan-banan azterkatu beharko lirakeela, gomendatzen zuen.

Netschenkoren azterketa sakon ta garrantz batek segituzion: Netschenkoren azterketak hain zuzen errealismo sozialistaren 550 disertazio-azterketa ikertzen zituen. Eta konklusio honetara ailegatzen zen: azterketa guziok ez zirela egunkarietako artikulo batzuk besterik, ongi puztuta, berritasun izpirik gabe, eta puntu ilunen ta problemen argitasunik batere gabe. Betiko tesiak errepikatu ta problemai ihes egiten zietela. Besterik ez.

Netschenkoren ondoren errealismo sozialistaren eztabaidak teoria haren ia puntu guziak harrapatu zituen. Zer da "errealidadearen isladapen egia?" galdetzen zen. Zeintzuk dira egitasunaren kriterioak? "Errealidadea faltsoki isladatu" nahi duen inor ba ote dago? Zer da "errealidadearen isladapen historiko-konkretu ta haren desarroilo iraultzagilearen araberako" famatu hori, eta zer ikusi behar du guzi horrek kalitate artistikoarekin? Errealismo sozialistaren teoriko ofizialek hitzetik hortzera Lenin aipatzen bait zuten, Lenin testuinguru honetan aipatzearen zuzentasuna ere eztabaidan jarri zen: beti aipatzen zen haren izkribua, *Alderdi organizazioa ta Alderdi literatura*, lehenik, iraultza aurrekoa zela, gogorazi zen, eta gero, Alderdiko literaturarentzat egina. Eritzi haiek noiznahirako ta gizarte osorako lege bezala erabiltzeak faltseatu egiten zituela.

Azkenerako, errealismo sozialistaren problema nazioarteko komunismora zabaldu zen: Aragon, Lefebvre, Garudy, E. Fisher, eta nazioarteko komunismoaren deitura ospetsuenek, beren kritika azaldu zuten. Eta errealismo sozialista, astiro-astiro, ahaztuta-edo gelditu da nonbait. Isililik, bazterrean utzi da. Sobiet Batasunean orain sortzen diren idazle arazoak eztabaidatzerakoan behintzat, komunistek ez dutela teoria literariorik agertzen, ikusten dugu. Problemok problema partikular eta guziz pragmatiko bezala tratatzen dituzte, problema politiko huts bezala, gehienik ere. Ez dute inoiz berentzat problema estetikoren bat inplikaturik dagoen inpresiorik egiten.

Beraz, ba dirudi, praksian behintzat, errealismo sozialista iadanik teoria abandonatutzat eman litekeela, teoria

bezala. Alderdi Komunistak lotsa-edo direla, teoria hura jendaurrean profesatzeko. De fakto, halare, ta teoriarik honenez gero aipatzen ez bada ere, errealismo sozialista eragikorra da oraindik, harekin batera sortu ziren instituzio burokratikoaren eta jokabide moldeen bidez: bai Sobiet Batasunean eta bai komunismo internazionallean.

Baina itzul gaitezen 1954-era: errealismo sozialista konfirmatuz akabatu egin zuen II-gn Biltzarrerara, ta haren ondorioetara.

Stalin hil orduko kritika biztu bazen (Olga Berggolzen artikuloa Stalin hil ta hilabetera agertu zen), Biltzarrak idazleok berriro ordenura bihurtarazi nahi izan zituen. Kontserbadoreak indarturik sentitu ziren. Idazle "disidenteen" kritikan ekin zioten, holakoetarako dauden izen-lagunen harmaz: "antimarxista errebixionista", "traidore", "burgesiari saldutako" ta beste alenak. Burokrata onean, halako ta holako Alderdi deklarazio aipatzen zuten. Zenbait idazle Elkargotik erauzi zuten. Baina, guzi horiek, literaturan balio gutiko arrazoiak dira, ta hortik kanpora, kontserbadoreak defentsibara behartuta kausitzen ziren: errealismo sozialista ikuspegi literarioz eta estetikozen defen-datuz ezinik. Kontrarioek hein honetan eztabaidatzen bait zuten hura. Baina aparatxua beren eskutan zuten (eta duten) artean, errealismo sozialistaren problemak beti problema politikotan desenbokatuko du. Politikak erabakiko du problema honen paradoera. Ta, 1954-eant, lehenago ordenua berrezarri nahi izan bazen ere, giro politikoa funtsean liberalen aldekoa zen oraindik.

Stalin 1956-an, Jrustxofen eskutan, "bigarren aldiz"

hil ta gero berriro hasi zen literatoen ezinegona uhinak altxatzen. Stalinen aurka behinik behin nahiko lasai mintza zitekeen, eta zeharka ez zen zaila gizarte molde berri bat eskatzea. Jrustxof Soljenizyni laguntza emateraino joan zen. (Orain atzera kondenatuta dago).

Eztanda atomiko batekin alderatzen zuen *Literaturnaja Gazeta*-ko kritikoak Dudinzewen nobela, "Gizona ez da ogiz bakarrik bizi", ogiaz gainerakoari ere begiratzeko eskatuz. Gizarte molde sobietarraren kritikak indar hartzen zuen. 1957-rako almanakak haserre bizian jarri zuen Jrustxof: *Literaturnaja Moskwa*-n zenbait Autore kondenaturen idazti hauzatuak argitaratzen ziren (hilda zeuden Autoreok, eta beren obrak ezezagunak ziren Sobiet Batasunean), errealidade sobietarraren judizio garratz samarrekin. 1956-an bertan I. Bunin emigrante Nobel-Sarituaren obrak ere argitaratu ziren, bost zenbakitan, ordura arteko deskomunio ofizialaren gainera pasaz, e.a. Buninen nobelak errealistak dira, baina literatura sobietarren kondairetan Autore esilatu hau (1933-ko Nobel Saria) ez da ezertarako aipatzen, gaur bertan ere. Liberalizazioak bere martxa segitzen zuen. Jrustxofi gustatu izango zitzaiokeen baino martxa azkarragoa, gainera.

Aldarte bat sumatzen zen, argitu bat. Gero Ungariako altxamendua ta zapalketa. Lukács, bloke komunistako literatur teoriko nagusi ta gertaerak barrutik ezagutu zituen, altxatuen artean zegoen. Zapalduen artean gero. Funtzionario sobietarrek idazleak berriro menperatu nahi izan zituzten, baina oraingoan zailago gertatu zen. 1957-ko Idazleen Biltzarrean Dudinzew bapo kritikatu izan arren,

ez zen autokritikarik entzun ahal izan. Aitzitik, altxatu ta gerrako oroitzapen labur bat kontatu zuen: babes-erretene-tan zegoela, bere gainean hegazkin aleman eta sobietarren gudaldi bat ikustea suertatu zitzaion. Zihur zegoen sobie-tarrek irabazi behar zutela, dexente gehiago bait ziren, eta gainera berak beti entzunda zeukanez gudu hegazkin so-bietarrak munduko hoberenak izaki. Baina hegazkin ale-manek tximista batetan lurreratu zituzten sobietar denak. "Dena beltz ikusten dudala egozten zait. Ez, ikusten du-dana bakarrik ikusten dut, eta ikusitakorik ez dadila berri-ro gerta besterik ez dut nahi. Eta eskubide dut, horixe nahi izateko".

Jrustxofek nolarebait lortuko zuen idazleei menpean eustea. Baina harrez gero idazleek geroz eta sarriago bur-latu dute kontrola, ta baita zigorra beren gain hartu ere, kikildu gabe.

Gizonaren oroimena laburra da benetan, bestearen oinazearekin: Pasternak nola humilatu, Idazle Elkargotik bota, bizibiderik gabe utzi ta lagunen errukiari esker bizi-tzen utzi zen, laster ahaztu da. Jrustxofek "txerri bat bai-no okerrago" erizten zion Autore honi: "txerriak jaten duen aska behintzat... ez du zikintzen" (Hau benetan esaera errealista da, agian Pasternaki lezio bat emateaga-tik). "Judas" (*Lit. Gazeta*) ta "gizon sobrante" (*Prawda*) honek Sobiet Batasunetik aldegitua lukeela onena. Paster-nakek Errusian hiltzen uzteko eskatuz idatzi zion Jrustx-ofi ta Nobel Saria arbuia. Humilatuen humildadea hori da.

Idazleen protestaren hasiera hauk arrunki guti ezagu-

tzen dira. Gaurko istiluak gehiago. Ez naiz, bada, luzatuko, egiazki Erdi Haroaren duin den Sobiet Batasuneko literaturaren jazarpena Jrustxofez gero erakusten. (Ez da inolaz ere Europako zenbait lekutan, Hitler buru zela, 30-gn urteetan gertatuaren atzetik gelditzen). Gure interesa literatur teoriara zuzenduta dagoenez (praksiarekin batera hartu behar da hura, noski) hartarako gogoangarri den hiru puntu markatuko dut bakarrik.

Hona hiru puntuak.

1.- Aginpidearen eskuartera, literatura nahi duen eratan nahiz ordutan bere gustora maneiatzeko: Stalinen garaian Stalin goratu behar zen; Jrustxofen garaian Jrustxof goratu ta Stalin kondenatu behar zen; orain Jrustxof kondenatu behar da. Jrustxofek izugarritzko hitzaldiak egiten zituen, literatur xede ta eginkizunei buruz. Hartarako eskubide ta autoridade "objektibo" guztia, halare, bere puestoak ez besteak eman zizaiokeen, ezen ez gaiaren ezagupenak.

2.- Konponistei buruz bereziki dudagarri dirudite errealismo sozialistaren printzipioek. Stalinen kontra joateagatik bakarrik ezean, bestelako zein erizpideri esker deklaratu zitzakeen Jrustxofek Schostakowitx, Prokofiew, Katschaturian, e.a., ordura arte "dekadentistak", bat-batean errealista? Baina zergatik Stranwinsky ez da errealista oraindik?

3.- 50-gn urteez gero kritiko sobietar ofizialen eraso batez ere *naturalismoaren* aurka konzentratu da, hau ere formalista deklaraturaz (e contrario). Nolatan hori, gero, errealismoa ta naturalismoa sarri batez beste nahasteraino

elkarren hurbil egonik? Berehalaxe antzematen zaio: oposizioko literaturak errealdadea, "ikusten duena", jasotzen duela arrazontzen du. Baina —errealdadea bere hortan, den bezalaxe jasotzea, ez da errealismo. Errealismoaren definizioko azken txostentxoak gogorazi behar hemen: "Errealismo sozialistak... eskatzen dio artistari, errealdadearen itxurapen egikor edo objetiboa, konkret-historikoa, *beronen aurrerabide iraultzagilean*". Azpimarkatu hau mediante gaurko dolore ta neke oro garrantzi gabeko, pribatu, bihurtzen da, prozesu garaipentsu ta gloriatzko baten (aurrerabide iraultzagilearen) barruan gertatzen bait da. Hegel baitan bezalaxe. Ikuspegi honekin nahigabea istante pasakor hutsa da, ingurumari argitsuak galtzen da. Literaturak hori erakusten ez badu, dekadentista da. Erakusten badu, Berggolzek salatutakoa pasatzen da.

Honela errealismoa errealdadea etorkizun komunisten argitara ikustean datza. Baina etorkizunik ez dugu ezagutzen. Ezagutzen duguna, hartaz, ideologiaren batek esaten diguna da. Konbentzioko nobela gozoetan mirabe birtutetsua markesarekin esposatzen zen. Konbentzioko nobela errealistan —esaten du Mehnertek, in *Der Sowjet Mensch*— mirabe prestuak ganadua gizentzeko sistimaren bat asmatzen du, sari bezala irabazitako diruarekin koljosari ikulu (korta) bat egin arazi, ta egunkarietako lehen orrian agertzen da nola Alderdiaren Lehen-Sekretarioak musu bat ematen dion. Errealismoak gaurko gaitzak guxtiesten irakasten dio herriari, etorkizun hobe batetan itxaroten, ilusioak mantentzen. Nolanahi ere literatura errealistak oinaze ta neketan dabilen "herriaren opioa" izan behar du. Errealismoa, bada, azken finean utopismotan

mamurtzen da ta galtzen. Errealismoa ez da errealidadean oinarritzen, ezpada bai Alderdiaren helburu ta xedeen gainean ta iadanik horietxen zerbitzu hutsetara eroritako filosofian.

Hona dekretoz ezarritako errealismoaren errealismoa.

Errealismoa ez zen noski hasiera-hasieratik holakoxea. Hori urteak zehar bilakatu egin da, bere itzulbira dialektikoa azken aldion burutu arte, hots, bere buruaren (hasieran zenaren) kontrario bihurtu arte: errealismo \longleftrightarrow utopismo idealista. Prozesu hau Iraultza osoarenarekin batera bakarrik uler daiteke ongi, baina horrek Iraultzaren kondaira egitera behartuko gintuzke. Literaturakoa ez da osotasunaren zoria sofritzen duen atal bat besterik, prozesu orokor baten barruan.

BIGARREN KAPITULUA

TEORIA TA PRAKSIAZ

6. Teoriaz eta testuinguru historikoaz: errealismo sozialistaren funtzio soziala ta politikoa.

Argi dago artearentzat ez diren konzeptuak nagusiarazten direla teoria honetan, artea filosofia orokor bati zeharo menderatuz. Arte historia, honela eginda, ez da ekonomi-historia ilustratzeko besterik. Historia sozial-ekonomikoaren korolario bat, eraskin txosten bat. Arte kreazioa propagandarako medio bat, politikoen eskutan.

Ikus dezagun teoria honen testuinguru historikoa pisaka bat. Ze asmorekin sortu zen, eta zergatik daukan ta-xu bitxi hau.

Errealismo sozialistaren teoriak, lehenagotik zetorren ekintza prozesu bat, praxi bat, teorizatzen du: hasierako

“festaren” ondoren, Politika Ekonomiko Berriak lanaren gorazarrea ta diziiplina gogorra eskatzen zituen. Diziplinak eta kontrolak gizarte sobietar guzia geroz-eta hestuago lo-tzen zuten, “bost urtetarako planaren” garaian batez ere. Iraultza sobietarraren zerbitzuan ari zen literatura, 1921-az gero asko ugaritu bazen ere, errealismo sozialista ezin orduan hasitakotzat eman daiteke. Orduan joera asko ze-goen, noski. Ta beste edozein joeratan ere errealismo sozia-listarena izango zen elemento asko dago: errealismo sozia-listaren prehistoria bezala kontsidera litezke. Eta Iraultza aldikoan nabari diren talde ezberdinen aurretik bertatik ere, errealismo sozialistak bere hasiera bezala kontsidera ditzakeen obrak badaude: Gorkiren *Ama* ta *Arerioak* bere-ziki, 1905-eko Iraultzatik urte betetsura sortuak biak. Bi obrok jarri dituzte, ezpairik gabe, errealismo sozialistaren oinarriak (Gorkik berak “erromantizismo iraultzagileari” errealismo sozialistaren seudonimo deritza). Horiek lirateke, bada, errealismo sozialistaren abiera historikoak.

Errealismo sozialistaren teoria geroago finkatu zen, ha-lare: 1932-an, Stalinek, ordura arteko kultur politikaren kanbio batekin, literatur produzioaren erakuntzari ekin zion. Honi ere ez zegoen libre uzterik. Gizarte bizitza de-na erakunde hertsiz lortu behar zen, makina bat bezala-xe dena organizatu behar zen. Eta organizazio hortan gau-za bakoitzari bere eginkizuna zegokion: makineria politi-koan tokatzen zitzaion funtzioa, hain zuzen. (Geroxeago literaturari ez zitzaion beste funtziorik batere onartuko). Stalinek literatura sobietarrari *irakaspen zientifiko* baten arauak eman nahi zizkion. Irakaspen zientifiko horren arauera, idazle sobietarrek “arimen injinadore” izan behar

zuten. Asmo horrekin konsekratu zen errealismo sozialista-
ren teoria: 1934-eko abuztuan Idazle Sobietarren I-go Ba-
tzarrak errealismo sozialista gizarte berriaren eta Estaduaren
teoria bezala behin betiko establezitura utzi zuen.

Teoria honen punturen batzuk berriro aparte ikustea
komeniko da, beraz.

6.1. Pedagogismoa

“Stalin lagunak gizonaren arima-injinadore derizkie
gure idazleei. Zer esan nahi du horrek? —esplikatzen zuen
Schdanowek. Zein obligazioz betetzen ditu izendapen
horrek? Lehen-lehenengo, bizitza ezagutzera, ez eskolasti-
koki, ez hilda, ez “errealidade objetibo” soil munduan,
baizik-eta errealidadea bere desarroilo iraultzagilean ezagu-
tzera”. Beraz, errealidade objetiboa soilki azaltzea, den
bezalaxe, ez da errealismo sozialista. Hori errealista kriti-
koek egiten zuten. Errealista “burgesek”.

Schadanowek errealismo sozialistari eskatzen dion “ob-
tibotasuna” bestelakoa da: “Eginkizun honetan, azalpen
historiko konkretoa langileria ideologikoki sozialismoaren
izpirituan eraberritzeko ta heitzeko xedearekin bateratu
behar da. Honi derizkiogu guk literatura ederrerako ta li-
teratur kritikarako metodo errealista sozialista”. Literatura
Iraultzaren (de fakto, Erresumaren) tresna pedagogiko bi-
hurtzeak, errealidade objetibo soilaren deskonfiantza horre-
kin batera behinik-behin, franko nabarmen erakusten ditu
bide honen arriskuak: literatura “Gortearen teologia”,
hots, aginpidaren legitimatzaile ta laguntzaile huts bihur-
tzeko arriskua.

Gorkiren hitzotan are garbiago adierazten da errealismo sozialistaren xede pedagogikoa: "Ez diogu inolaz ere errealismo kritikoa lan galantari zaputz egiten (oroit: "errealismo kritiko" errealismo burgesari, Iraultza aurrekoari, esan ohi zaio). Bizi-biziki estimatzen ditugu haren irabazi formalak, hitz-pinturazko artegintzan. Hala ta guziz ere, (gaur) errealismo hura iraganaldiaren aztarrenak bistan jartzeko, burrukatzeko ta ezabatzeko bakarrik behar dugula, konprenitu behar. Errealismo forma harek ez du sekula nortasun sozialistarik hezitzeko belio izan, eta ezin balio lezake ere. Zeren-eta dena kritikatzan bait zuen, eta inoiz ezer ez baitetsi, azkenean atzera kritikatu zuenaren baitespenera itzuli behar izan zuen".

Guzi honek literatur negozioari nahiko estrinseko gelditzen zaiola ematen du. Estilo edo estetika irakaspenekin zerikusi guti dauka, ez dirudi inolako kanon literario-rik: hauk, egitekotan ere, funtzio pedagogiko horren ondorio bezala bakarrik egingo dira. Esaterako, errealismo sozialistan arteak forma sinplea, erraza ta konprenigarria eduki behar duela, esaten bada, betekizun pedagogikoa deribazioa besterik ez da hori. Literaturari lehen-lehenengo eginkizun bezala obligazio moral pedagogikoa ezartzea, berriz, ondo ala gaizki hartuko da, baina literaturaren historian berri ez beste guzia da. Platonek ongi ezagutzen zuen. Eliza katolikoak ez du sekula besterik nahi izan. Monarkia feudalistek eta absolutoez gauza berbera egin nahi izaten zuten. Eta seguru asko erakunde absoluto guziek, eta ez hain absolutoez ere bai.

Literaturaren historian, oralaren edo pedagogiarene artearen loturak asko eztabaidatu izan dira. Batzuek agian

Baudelairerena onartuko lukete: "Vous savez que je n'ai jamais considéré la littérature et les arts que comme poursuivant un but étranger à la morale, et que la beauté de conception et de style me suffit..." Holakoarentzat munduan edertasuna sortzea berez ta besterik gabe da eginkizun moralki aski zuzena: Edertasuna sortzea nahiko moral da.

Beste literato askok, erakundeekin hautsi (literatoa erakunderen baten zerbitzari baldin bada, ez dago problemarik), ta beren bideak zehar abiatu izan direnean ere, sarritan eduki izan dituzte beren buruak herriaren pedagogotzat. Voltairek aitortzen digunez: "Je regarde la tragédie et la comédie comme des leçons de vertu, de raison et de bienséance..." Eta Diderotek poesiari ta pinturari eskatzen zien, "de rendre la vertu aimable, le vice odieux, le ridicule saillant; voilà le projet de tout honnête homme, qui prend la plume, le pinceau ou le ciseau". Beraz, idazlea pedagogo bat eta moralista bat izango litzateke. Baina *bere* morala irakatsiko lukeena, halare. Autore "burges" indibidualistok ez bait dute inolako moral dogmatikorik ametitzen.

Errealismo sozialistaren teorian, aldiz, idazleak ez dira pedagogo ta moralista bezala ikusten bakarrik, ezpada pedagogia hori berena ez baino Estaduak eskatzen diena izango da. Alderdi Komunista sobietarraren Zentral Komiteak adierazten duenez: "La fonction de la littérature soviétique est d'aider l'Etat à éduquer correctement la jeunesse", etab. Hori arteari Platonek eskatzen ziona da, ezagunki.

Horrela, literatura sobietarrak alderdikoia izan behar du, errealismo sozialistaren teoriak dioskunez. Eta alderdi-koiki pedagogiko.

6.2. Literatura alderdikoia

Funtzio pedagogikoaren deribazio hutsa da hau. Edo hobeto: hura entenditzeko modu konkretua, praksian behintzat; eta biok historiaren filosofia determinista baten ondorio, Estaduaren zerbitzuan. Estadua da **kakoa**.

Izan ere, onar liteke, literatoa nahitaez gertatzen dela pedagogo samar, gertatze hau nire ustez gehiegi baloratzerik ez badago ere. Problema, esan bezala, zera da: idazlea bera al den pedagogo, kreatzaile, ala Estaduak diktatzen dion pedagogiaren barreiatzaile bakarrik. Alderdikortasunarekin berdin gertatzen da: alderdikor ere nahitaez gertatzen da idazlea. Hori badakite marxistek, batez ere literatura ekonomiak determinatuta dagoela esanez dabiltzanek. Baina, alderdikor izateko *agindu* egin behar zaionez gero, nahi litzatekeen baino gutiago determinaturik eta gutiago alderdikor izan ohi dela, pentsa liteke.

Ezinbestezkoa den neurrian alderdikor izateaz gainera, errealismo sozialistaren teoriak propio ta espreso alderdikoi izatea, agintzen dio idazleari. Schdanowek honela erantzuten die alderdikoikeria horren kritika guziei: "Alderdikoia dela aurpegiratzeak ez du literatura sobietarra lotsarazten. Bai, jaunak, sobiet-literatura alderdikoia da, klase burrukaren haroan klase gaisetik dagoen literatura itxuraz apolitikorik ez dagoelako eta ez delako posible ere egoitea".

Eta geroxeago, berriro: “Bai, gure literatura sobietarra alderdikoia da, eta gu harro gaude horregatik, gure alderdikeria langileak eta gizonak kapitalismoaren esklabotza uztarpetik askatu nahi izatean datza-ta”.

Baina literatura sobietarra ez da alderdikor bakarrik; Alderdiaren eskutan ere ba dago. Une bakoitzeko alderdikaritzaren modua Alderdi Komunistak irakatsiko dio idazleari. 1924-eko maiatzeko Idazleen Biltzarrean Vardinek eskatzen zuena, 1934-ean errealidade bihurtu zen: “Alderdiaren diktadura literaturaren barrutian ere”.

Oinarriok zekarten desarroiloak H. Arvoni judizio hau merezi dio:

“Sous un revêtement critico-littéraire, le réalisme socialiste représente ainsi une conception bureaucratique et administrative de la littérature qui frappe autant par le caractère flou et indéterminé de ses notions purement esthétiques que par la rigueur implacable des jugements portés le plus souvent en fonction de la seule opportunité politique” (1)

Eta beste hau, halaber: “La pression exercée sur les écrivains, réduits para le Jdanovisme au rôle de commentateurs dociles des décisions politiques du Comité Central et de thuriféraires du Parti, devient de plus en plus forte”.

6.3. Sinesmena, alderdikaritza ta optimismoa

Orientazio honek, baina baita giro iraultzagilearen berotasunak berak ere, literatura dokumental izugarria sorta-

(1) H. Arvon, *L'Esthétique marxiste*, 1970, or. 79.

razi zuten. Zernahi gertatu ere, gertatuari laster segitzen zion poemaren batek edo nobelaren batek. Fabrikaren bat eraikitzen zela, ubideren bat urratu, basoak nonbait bota, budinbiderik norabait egin, lurralderen bat elektrifikatu, uzta hobetzeko kanpainaren bat muntatu, inon koljosen bat motorizatu, inor "laneko heroe" deklaratu: literatura mordo sortzen zen gertakari haren inguruan. Sobiet Bata-suneko prozesu ekonomikoak paper literario asko bete du.

Obron balio dokumentala nola-halakoa da, ordea, gehienetan. Errealismo sozialistak optimista izateko agindua bait du. Sozialismoa zuzen-zuzen bere garaitzape osora doala sinetsiz gero, bidezko dirudi optimista izateak. Baina optimismo jeneral horrezaz gainera, literatura sobietarrari kasu bakoitzean eta problema bakoitzaren aurrean ere optimismoz beteta agertzea eskatzen zitzaion. Lukácsen arrazoiak: literatoari gutienez desesperatzeko eskubidea beti utzi behar zaiola, ez zuen nonbait inor konbentzitzen. Kolore ilunentzat ez zegoen lekurik, denak argi ta dir-daitu behar zuen. "Gure literatura entusiasmaz eta heroismoz beteta dago, deklaratzeko Schadanowek. Optimista da. Baina ez sentimentu animalen batengatik. Izaeraz beraz da optimista, gorantz doan klasearen literatura bait da, proletargoarena, klase aurrerakoi eta aurreratu bakarraren literatura".

Gorkik XIX-gn mendeko errealismo kritikoarekin alderatzen zuen errealismo sozialista berria. Literatura errusiar klasikoaren "heroe negatiboa", dio Gorkik, *kontra* bizi da. Beti kontra dago: gizartearen kontra, Erresumaren kontra. Bere burua alferrikako sentitzen du, bizitza hestue-

gi bihurtu zaio. Errealismo kritikoaren heroe gaixoak, zoroak, zorigaiztokoak, ameslariak, eskeptiko fatalistak, jokalariai, dejeneratuak, mozkorrak, suizidak, mistikoak, monje lirstak, noble endakatuak, hitz batetan, marjinatuak, izan dira. Errealista kritikok gizartea gorrotatzen (omen) zutelako. Orain, aldiz, gizona bere buruaren eta patuaren jabe bilakatu da. Ez da gizartearen kontra bizi, eta bai gizartearekin bateginda; ez Erresumaren kontra, eta bai Erresumarekin bateginda. Kontradizioak suntsitu bait dira, eta gizonak historiarekin bategin bait du. Horregatik, oraingo literaturak —errealista sozialistak— Erresuma positiboki ikusi behar du, eta literatura honen heroeak “positiboa” izan behar du. Ez bait dago negatibo izatera behartzen duen konfliktorik (eta halakorik noizpait sumatzen bada, pasakor hutsa da). Errealismo burgesak intrigen deskribizioan du bere indarra ta giharra: krimenak, bizioak, diru burrukak, haragikeria ta emagalduek, bekaizkeria, mundu dekadente baten nolanhiko graziak, tratatzen ditu. Baina mundu burgesaren zikinkeriak guziak superatu direnez gero, errealidade sozial berria kontraespilatzen duen literaturan heroea positiboa izango da. Optimista.

H. Arvonek: “Du fait que le réalisme socialiste exige de l'écrivain una adhésion totale à l'idéal socialiste, les héros qu'il met en scène dans ses oeuvres littéraires ne peuvent être que 'positifs'” (aip. lib., or. 84).

6.4. Abertzaletasuna edo abertzalekeria

Goiko puntuok elkarrekin hestu-hestu lotuta daude. Orain aipatu nahi nukeen —abertzaletasunaren edo abertzalekeriaren— puntuak, halare, ez dirudi goikoen deriba-

ziorik, batzutan halakoxe itxura eman nahi izan bazaio ere. Alabaina, Estaduaren interesek ongi esplikatzen dute. Alegia, sobietarrak ere harro daude beren sorterriaz, gizonik gehienek moduan. Abertzaleak dira. Aberriaren dohai-nak gogotik goraltzen dituzte. Ta, gorazarre honetan, munduko herririk azkarrena ta aurrerratuena Sobiet Batasuna dela, munduko literaturarik bikainena literatura sobietarra dela, etab. esaten (edo esan izan) denean, hori "demonstratzen" zuen marxismoak, marxismo baino gehiago zirudien "nazionalismoaren" edo ideologia txobinista korrienteenen bariante bat. Hemen marxismoa txobinismoaren zerbitzuan jarrita dago, erlijioa, legenda (Villoslada), hizkuntza, geografia bera, txobinismoaren zerbitzuan jar daitezkeen moduan. Jantzi egin du txobinismoak marxismoa, honek hura oinarritu baino gehiago.

Lehenengo orduko iraultzagileek, Errusiaren historia erabiltzerakoan, historia hartan aurkitzen diren iraultzagileak ohoratzen zituzten. Ez zuten Ksarik goraltzen. 30-gn urteetan, aldiz, bai literaturak, bai zinemak, eta bai eskoletako historia irakaspenak, Errusia haunditu zuten Ksaren gorespenetan ekiten diote. Errusiaren historia kontsideratzeko moduan erabateko aldakuntza bat nabari da, beraz. Eta honek, dudarik gabe, "sozialismoa lurralde batetan" bakarrik eraikitzeke tesi stalinistari erantzuten eta zerbitzaten dio. "Aberri sozialista" bermatu beharra dago. Hiritar sobietarren abertzaletasuna bizkortu ta bermatu beharra dago. "Internazionalismoaren ikurriña behera jaisteko ordua da", Krasin komisarioak deklaritzen zuen moduan.

A. Tolstoiren nobela historikoeak (garai honetan nobela historikoa berriro indartzen da) ederki agertzen dute hori, *Peter I-goak* batez ere. Errusia itxuraldatu zuen Ksar haundiaren bizitza kontatzen da, Autoreak bukatu gabe utzi zuen nobela honetan. Peter I-goaren historiaren tresna bezala agertzen da, baina ase ezinezko jakinmin eta grina gorizko gizon bezala orobat. Bere krudelkeria, jeinua, zorrotasuna, deliberamendua, bihotz bortitza, langiletasun porrokatua, ta, batez ere, Errusiaganako maitasun azken-gabea, erakusten dira: "Errusia eternoaren" aiurria. Super-gizon bat bezala azaltzen zaigu Ksar Peter I-goaren, Mosku feudalista xehatu ta Errusia berri bat —absolutista— inauguratu zuena. Eta azkenean Tolstoik Peter I-goaren krudelkeria ta odolgaiztoa zuzenesten baditu, altxatu zuen obrarengatik (Errusia modernoa), irakurleak Leninen eta Stalinen zuzenesten bat erraz irakur zezakeen lerro tartean. Iraganaldi ksarista eta orainalde boltxebikia loriazko sintesi batetan lotzen zituen. Ksar Peter I-goaren, izugarrizko titan paregabea, sobiet-gizonaren aitzindari ta erakusbide bezala agiri da. Haren obra galanta jarraitzen dutenak, dirudite boltxebikiak.

Hemendik aurrera, marxismoak eta abertzaletasun/abertzalekeria sobietarrak bat egingo dute. Batez ere gerra ondorenean (II-gn Mundu-Gerrari Sobiet Batasunean "Gudu Abertzale Haundia" esaten zaio). Behin gehiago Arvon (or. 85/86) aipatzeko:

"La victoire chèrement acquise en 1945 contre le fascisme issu du monde occidental renforce les ten-

dances proprement russes du réalisme socialiste. La volonté d'exalter la supériorité du génie créateur russe a pour pendant la lutte contre toutes les influences étrangères, contre cette tentation permanente et corruptrice que le Parti dénonce sous le nom de 'cosmopolite'. L'encyclique du 14 août 1946 du Comité Central du Parti Communiste de l'Union soviétique constate que la culture soviétique est meilleure que toute autre culture du fait que les écrivains soviétiques ont compris le sens des exigences du Parti contre l'apolitisme de la littérature et qu'ils ont déclaré la guerre à l'esthétisme''.

Eta, berdin:

“Le 'jdanovisme' que, après 1946, se confond pratiquement avec le réalisme socialiste acquiert son aspect définitif en accentuant ce chauvinisme d'après-guerre. “Notre littérature, déclare triomphalement Jdanov dans son livre *Au sujet de l'art et de la science* publié en 1951, est la plus jeune des littératures de tous les peuples et de tous les pays. Elle est en même temps la plus progressiste et la plus révolutionnaire... Seule la littérature soviétique qui est de la même chair et du même sang que notre édification socialiste pouvait être une telle littérature progressiste, riche en idées et révolutionnaire”.

6.5. Nola ailegatu zen errealismo sozialistara

Faltsifikazio izugarria izango litzateke, halare, hau dena (pedagogismoa, alderdikaritza, Alderdiari obedientzia, optimismoa, abertzalekeria) idazleei Alderdiak goitik behera ta besterik gabe inposatu ziela, pentsatuko balitz. Ezin esan liteke, hau dena Alderdiaren diktado batek sortarazi, ta literatura sobietarra bide hortara Alderdiak nahitaez behartu duenik. Hartaratu zuten kausak Alderdiaren nahi hutsa baino sakonagoak dira, eta prozesu moduan hartuz bakarrik konpreni litezke. Txobinismoa, esaterako, ez du "diktadoak" sortu Sobiet Batasunean. Sustrai luzeagoak eta sakonagoak ditu.

Lehenengo, idazle iraultzagileek berek eraman dute literatura situazio hortara. Idazleak berak izan dira, eskabide horiek predikatzen gogorkienik aritu izan direnak, 1932 aurretik. Idazle asko, behintzat. Idazleek berek sortu ta sutu zuten, literaturak iraultzagile beste ezer izan behar ez lukeen ideia.

Bigarren, Alderdi Komunistaren baitako prozesoa aipatu behar da (literaturari kanpotik daragiona): Trotzki ta Stalinen arteko burruka batik-bat. Burruka honetan irabazleak literatura ere bere mendean hartu nahiko du. Mendean hartu ta mendean lotu. Hau konprenigarri gertatzen da, Trotzki franko "liberala" zela kontuan hartzen bada, eta beraz, Stalini edozein "liberalismo" trozskismo kutsukoa iruditu behar zitzaioela. Errealismo sozialistaren teoriak Stalinekin zeraman sobietar gizartean erabateko batasuna lortu nahiari erantzuten dio. Diktaduraren eraikidurari, hortakoz.

Hirugarren: lehenengo “bost urtetarako plangintzarik” gabe ere ez legoke errealismo sozialista ulertzerik.

Eta, azkenik, laburpen gisa, zera esan beharko litzateke: Erresuma sobietarraren prozesuak eraman duela errealismo sozialistara.

Politika Ekonomiko Berriak (NEP) abiarazi zuen konpromisoen haroa, 1928-an bukatutzat eman daiteke. Stalinek Trotzki bere ondotik uzkali du (1927/1928). Eta “bost urtetarako plangintza” abiatzen da, Sobiet Batasuna industrializatzeko ta kapitalismoarekin konpetituko duen potentzia ekonomiko bihurtzeko. Stalinek iraultza mundialari itxaron eta lagundu ordez, “sozialismoa lurralde batetan” eraiki nahi du. Ta, hortarako, Sobiet Batasunari basamendu industrial indartsu bat eman. Ekintza honek ikaragarritzko nekea eta suharra eskatzen zuen. Eta jendeak, bigarren iraultza batek bezalaxe berotuta, gogotik ekin zion. Milaka jende sakrifikatu zen, egia da; baina milaka jendeak, halaber, bere burua gustora sakrifikatzen zuen. Entusiasmo ikaragarritz eta errepresio beldurgarritz, bietaz batera, ekin zitzaion plangintzari.

Marxek uste zuen, iraultza egin ahal izateko, ezinbesteko presupostua zela, industri maila altu samar hau lortuta edukitzea. Stalinek aldrebes zerabilen formula hau: iraultzak industri maila altu bat sortu behar zuela. Iraultzak Sobiet Batasuna industrializatu behar zuela. Beraz, proletargo ugari bat sortu, Erresumari oinarri bortitz bat emateko, langileak laborantzatik lantegietara aldatuz. Erresuma laborari ta feudal bat Estadu proletario bihurtu.

Baina laborantzak buruhauste gogorrek ematen zituen. Laborariak, lehenik, Iraultza aldikoan makina bat sofitruak ziren, eta ez ziren boltxebikiez batere fidatzen. (Leninek aitortzen zuenez: "Tout le système du communisme en guerre était entrée en collision avec les intérêts de la paysannerie"). Laborantza kolektibizatze eta nekazariak koljasetan sarrarazteko ere, Stalinek esku gogorrez jokatu zuen, eta laborarien erresistentzia hausteko, 1929 ta 1931 artean Stalinek milioi bat eta gehiago laborari deportatu, espetxeratu edo garbitu zuela, kalkulatzen da (1). Zenbait funtzionarioen astakariak azkenean Stalin

(1) Herri deportaziorik haundienak, ezagunki, geroagokoak dira. 1956-ko otsailaren 25-eko Jrustxofen mintzaldi sonatuan, Stalini buruz, pasarte hau irakurtzen da: "Are izugarriagoak dira Stalinek eraginda, eta Sobietar Erresumaren nazio politikarako oinarri leninisten arras kontra, gertatu zirenak. Herri osoen masa deportazioak nola egin ziren, gogorazi nahi dugu, inoren salbuespenik gabe, komunistak eta komsomoldiarrak berak ere deportatuz, egindako masa deportazioak. Ez zegoen inolako arrazoi militarrik deportazio hauk egiteko. 1943-an bertan, gure Harmadaren erasoak frontea hautsi ta Gudu Abertzale Haundiaren zortea iadanik gure alde itzuli zuen orduko, karatschaiar guziak beren jatorrizko lurretatik deportatzeko dekretu bat eman eta burutu zen. Garai berean, 1943-ko abenduaren azken aldera, Kalmuiken Errepublika autonomoko populazio oso-osoak zorte bera jasan zuen. 1944-eko martxoan Tschetschenoen eta Inguscheen Errepublika autonomoa ezabatu. 1944-eko apirillean Kabardinoen eta Balkaren Errepublika autonomoko baltar denak urrutietara arrastatu...". Gaur badakigu, hauk ez direla Stalinek egindako deportazio denak; nola ere bai, deportazioak ez zirela Stalinen nazio-tasun-politikako medio bakarra: Errepublika baltikoen, adibidez, bertakoen deportazioekin batera errusiarren inmigrazio galanta ezagutu zizuten. Eta berdin Kareliako suomitarrek. Kuriosoa da, nolanahi ere, Jrustxofek aipatu gabe uzten dituela, Stalinek aginduta berak egindako deportazioak: Wolga-alemanena, Krim-tataroena, ukrainiarrena ("Desjrustxofizazioak" jakinarazten duenez, Jrustxofek 1,5 milioi ukrainiar inguru "ezkutarazi" omen zuen).

bera kezkatu zuten, nonbait; neurriak gorde arazteko dekreto bat eman zuten behintzat.

Idazleak gogotik atxiki zitzaizkion ekintza honi. 20-gn urtehamarraren azkenetako ta 30-gnaren hasieretako literatura sobietarra, aginpide politikoarekin kolaboratzeko itsuitsu grinaturik agiri da, gehienbat (aparte ari ziren “literato hutsen” batzuk kenduta, behintzat). Garai honetan, idazleak beren kisa, edo bazterretan oraindik ugari ziren talderen batetan sartuta, bizi ta ari ziren. Baina plangintzak boterearen zentralizazio ia osoa sortu zuen moduan, produzio literarioan ere indar zentralistak sortu ta indartu ziren. Idazle guziei eginkizun bat bakarretan enplegatu arazi nahi zitzairen: “bost urtetarako plangintzaren” erabateko apoioan. “Artea ere bost urtetarako plangintzan” sartu behar zela, eskatzen zen; ez zen beste inolako literaturarik nahi. Proletkult garaiko zenbait asmo berbiztuz, literatur produzioa ere fabrika baten antzera organizatzeko asmoak berriro indar hartu zuen: poetak nahiz nobelistak nahiz dramaturgoak, katean lanegiten duten langileak bezala organizatu, ta literatura “probetxugarria” egin araziz. Plangintza batek organizatuko zuen liburu produzioa. RAPP-ek (Idazle Proletarioen Errusiar Elkargoa) 1930-ean deklaritzen zuenez: “Sobietar literaturaren problema bakarra bost urtetarako plangintzaren deskribizioa, ta haren baitako klase burruka da”.

Fanatismo industrialistak —“arteetako komunismo militarrek” (Gorki)— ez zuen mugarik ezagutzen: idazleak egunean eguneko gertaera konkretuak erabiltzera obli-

gatzen ziren. Lantegietara ta Koljasetara bidaltzen zituzten, gai konkretu bila. Esaterako, idazle brigada osoak eramán ziren Sibiriako lantegietara ta Don inguruko ikatz mehatzetara, haiek deskriba zituzten. Gutien uste zuenean, edozein idazlek jaso zezakeen enkargua, bi hilabete barru halako ta holako lantegi edo kolkosen gainean nobela bat entregatzeko. Edo esne produzioaren jasotzeari poemaren bat.

RAPP-ek idazleei egiten zizkien presioak gogorrak ziren, dudarik gabe. Baina idazleek berek ere ez zutela beren autonomiarik defendatzen jakin, dirudi. Ez zutela nahikoa deliberamenduz defendatu, egunean eguneko politikatik kanpora ere aritzeko eskubidea, idazle "konprometatu" hutsik ez izateko edo konpromisoa zentzu zabalagoan hartzeko eskubidea, lehen-lehenik literaturari obligatuta sentitzeko eskubidea, burruka politikoetatik distantziara gelditzeko eskubidea, etab. Bere buruari Estadu proletario zeritzan batetan, eta bazter guziak proletario ta iraultzagile tituloz apaintzen ziren garai batetan, konplesoren bategik kilduta agian, eta postura garbirik hartzen asmatu edo ausartu ezinda nolánahi ere, militante batzuen erasoari salduta aurkitu ziren. Nahitaez "literatura soziala", "arte iraultzagilea", egin behar zela, isilpean bederik onartuez gero, amilburuan jartzen zituzten beren buruak. Eta erasoak amildegian behera bota zituen. Tradizionalki aginpide politikoaren kontra egondako sobietar literaturak, aginpide politiko iraultzagileari lotu zitzaionean, ez zuen jakin hari buruz-buru bere autonomia gordetzen, seguru asko bere autonomia zer zenik ere ez zekien-ta. Bakan

batzuek egin zuten, eta beren zeregin literarioetan jarraitu zuten, politika hauzietan sartu gabe. Formalistek, adibidez. (Haietakoren batzuk marxista ziren, gainera: baina literaturaren praktia ta ekintza politikoa nahastearen aurka enpeinatu ziren). Bakarrik aurkitu ziren, halare, ta korronte nagusiaren, konformismoaren uhinpean ito ziren, literatura sobietararentzat ikaragarritzko galerarekin. (Gaur atzera modan samar jarri badira, haien ohoratzailleak ez luke galdetu gabe utzi behar bere burua, nolatan egon zitezkeen autore horiek berrogei urte ahaztuta, eta nola kondena zitezkeen autore horiek, Alderdiaren laudorio korutik aparte gelditzeagatik bakarrik... Ez dezagula guk ere, iraultzagile edo proletario ez omen izateagatik, berrogei urte geroago baliaberrituko digutenik kondena behintzat!). Honela, RAPPeko estremistek, idazleek elkar hartuz eta postura garbi batekin egindako erresistentzia irmo askorik gabe, egiazko "kultur-terrorismo" bat muntatu ahal izan zuten.

Fanatismoak beneran itsuturik, RAPP ez zen konformatzen, iadanik idazlerik gehienek iraultzaren desarroilolari begi onez begiratzearekin. Gehiago —gehiegi— nahi zuen, eta bere zitalkeriarekin ez zuen idazleak ozpintzea besterik lortu. 1931-an giro txarra zegoen idazleen artean. Deskontentu ta haserre ziren, baina ez ziren RAPP-i kontra egiteko, RAPP-en buruz-buru tente ta irme agertzeko gauza. 1932-ko apirilean, Stalinek, RAPP-en zuzendariak bota, zentsoreak, Editorialen eta aldizkarien zuzendariak aldatu, fanatikoena desterratu, idazleen elkargo denak desegin, eta elkargo berri bat sortzea erabaki zuen. Elkargo honek idazle denak bilduko zituen, eta idazle komunistek

elkargo honen barruko talde bat osatu beharko zuten. Elkargo honetako idazlerik gehienak ez proletario ta ez komunista ziren, baina bai gobernuaren lanari begi onez begiratzen ziotenak. Idazle sobietarren arteko "oinarrizko batasun" batek aski zirudien.

Stalinen erabakiak lehenengo batetan lasapen haundia zekarren: RAPP-en aldean moderazioaren argiz argiturik agiri bait zen. Ez da harritzekoa, orduan, idazleek Stalinen proposamendua (ta errealismo sozialista) ia ahobatez onartu bazuten. M. Slonimek ohartarazten duen bezala, bozemaldi politiko bat izan zen, ez literarioa.

Halare, soluzio honek bere barnean zuen geroke gaitzaren hazia: orain batasuna eskatzen zen tokian, laster uniformismoa aginduko zen. Idazleak lehen elkargo diferentetan bazeuden, orain erakunde bakarraren barruan zeuden, zentralizaturik, zentsura bat berari azpiraturik, funtzionario sare batetan bildurik, eta arte arazoetarako Komisariado bati menperaturik. Gero, literatura guzia menpean zuen administrazio-aparato horrek bere administrazioarako beharko duen teoria estetikoa osatuko da: errealismo sozialista. Idazleek ez zuten beren buruak RAPP-en menpetik salbatzen jakin, eta zapalketa hartatik salbatu zitueneren —Stalinen— eskutan gelditu ziren.

1932-an, Stalinek RAPP desegin eta errealismo sozialista proklamatu zuenean, askapen bat eta literaturaren salbazioa zirudien. Geroago ikusiko zen, zapalketa are gaitzago baten hasiera zela.

6.6. Optimismotik optimismo “zientifikora”

Errealismo iraultzagilea oso bestela hasi zen, hasi: idazleen apoio bezala Iraultzari. Beren gogoz egiten zuten hori, apoio hori ematera inork obligatu aurretik. Horregatik, literatura errealista-sozialistaz mintzatzerakoan, oso gogoan eduki behar da literatura honen prozesoa. Prozesoa bezala bakarrik uler bait daiteke.

Iraultza egin zenean, idazleak barreraren kanpokaldek zeuden, begira. Sobietar idazleak aspaldian aginpideagandik urruti bizi ziren, eta aginpide burrukotan ere aparte gelditu ziren, gehienbat. Gero, errealidade berriekin kolaboratzen hasi zirenean, gogotik egiten zuten. Lehenengo industri-nobeletako entusiasmoa benetakoa da. Erreforma sozialek eta industrializazioak animoz bete zituzten idazleak, boltxebikien dogmatismoa irunstea askori zaila egiten bazitzaion ere. Problema horiek erabiltzerakoan, gogoz eta atxikitasunez egiten zuten. Propagandako panfletismoan erori gabe, noski. Baina berrikuntzari eragin nahi bait zioten, *happy-end-nobelak* idazten zituzten, beti ondo akabatzen diren nobelak alegia, baina guziz egirudizkoak oraindik. Problemarik ukatu gabe, ikusalde tragikoa ere haintzakotzat hartuz. Errealismoa errealista da, eta idazleen apoioa gizarte berrikuntzari sinesgarri ta zintzo da oraindik. Adibide eder bat Twardowskiren *Murawia miragarria* poema folklorikoa litzateke:

Nikita Morgunok *mujik* kaskagogorraren pasadizoak kontatzen dizkigu Twardowskik. Nikita kolektibizazioak nazka-nazkatuta dago. Amorraturik, etxea ta familia abandonatu, ta, bere zaldi maitea-

rekin, Murawia zoragarriaren bila etxetik aldegiten du, koljosik eta kommunarik gabeko lur zoriontsuaren bila. Murawian, Nikitak dakienez, laborariak normal eta zoriontsu bizi omen dira, beren lana ta beren bizitza bakean egiten omen dituzte, egunero funtzionarioekin desesperatu arte ibili beharrik gabe. Nikitak lehenagoko bizimodua bilatzen du, Iraultzak dena endreatu ta nahastu aurrekoa. Kolektibizazio guziekin higuinduta dago. Nola bazter denak endreatu diren, eta Murawian bizitza zein ederra ta lasaia den, pentsatuz doa Nikita, esperantzaz beteta, nazkaz gainezka. Baina egunak joan eta egunak etorri, gauak etorri ta gauak joan, halako batetan zaldi kuttuna harrapatzen diote Nikitari. Nikitari su ta fu dario, baina ez du ezer laguntzen. Oinez segitu behar. Bere esperantzak ere zerbait epelxeagoak bilakatzen dira. Geroxeago kulak desjabetu talde batekin topo egiten du bere bidean. Nikita bezalaxe, kulak hauk ere amorratutako jendea dira, endreatzaile guzienganako gorrotoz beteak, eta beren penak alkoholetan itotzen dituzte. Nikita adiskideen artean sentitzen da, ta majo bustitzen du boltxebiki mada-rikatu haienganako gorrotoa. Edanak, halare, mozkorra ta burruka ta iskanbila dakar, eta Nikitak goiz aldean berriro bideari ekiten dionean, hezurren batzuk mailaturik eta saihets tarteren batzuk zerbait biguntxoegi baldin baditu, esperantzak ere zerbait ahuldu zaizkio. Hurrengoan koljos baten ingurura ailegatzen da Nikita. Ezteiak ospatzen dira

koljos honetan, eta ohitura onari jarraiki, bidazia ere konbidatzen dute festara, ta Nikitak, ba, bidea ere luzea izan du-ta, nekaturik ere badago-ta, ezin ezetz esan. Koljostiarrek adiskidetasunik haundienarekin tratatzen dute Nikita. Denak alaitasunez dabilta, bozkariarik haundienez, baina mozkorrik eta itsusikeriarik gabe, dena txukun dago, dena garbi, denak moduz portatzen dira. Nikita benetan **gustora dago, ia-ia hementxe ere geldituko litzateke** bizitzen, baina ez: Murawiaraino ailegatu behar du. Eta hala segitzen du Murawiarako bidean, tipitapa, oinez, esperantza gehiegirik gabe iadanik eta duda gehiegirekin honez gero. Joan ta joan, oraino zaharretan bizi den hauzo batetara darama bideak Nikita, eta berriz ere Iraultza aurreko gizarte errusiar laborariko egoera latzarekin konfrontaturik aurkitzen da aurrez-aurre. Nikita Morgunoken poza ez da lausorik gabekoa: tira, erreformaren batzuk **behintzat bene-benetan premiazkoak liratekeela** iruditzen zaio, honela ere ez dagoela bizitzerik...

Azkenerako, onena patua onartzea ta kondairaren martxarekin konformatzea duela, ikusiko du Nikita Morgunokek. Burugabekeria dela beti joandakoaren ametsetan ibiltzea, Murawiaren bila. Ilusioak utzi beharra dagoela. Nahigabe asko kostatzen bada ere, historiari obeditu beharra dagoela, zozokeria dela aurrerapenaren kontra jartzea.

Tonu honetan hasi zen errealismoa. Aurrerapenean sinesten zen, baina aurrerapenak eskatzen zituen sofrikarioak eta oinazeak ez ziren erdeinatzen eta isilpean pa-

satzen. Oraindik ohore egiten zitzairen irauli sozialak opal-
dutakoei, kulakei ta "zuriei" berei ere, dena zuri ala beltz
pintatu gabe. Triunfalismorik gabe. Gizonen penak eta
saminak errespetatzen ziren. Eta lan pedagogikoa polliki-
polliki egiten zen.

Eta aldrebes: gobernuaren ahaleginak aprobatuko zi-
ren, baina zenbait jokabide kritikatzeko, edo animalki serio
ez hartzeko, erreparorik ez zegoen oraindik, Ilja Ehrenbur-
gen *Bigarren Eguna*-ko bi pasartetan ikus dezakezunez
(tarteko uneren batzuk kenduz aipatzen dut, laburtzeko):

"Zilipurdikaldi ta gainazpikadura haundi haien
urtean zen. Bileretan bat arnasarik gabe gelditzen
zen, hainbeste numero ta kontu zebilen han gora
ta behera. Pathos historikoaren pathos izugarriaren
izugarritz eta izugarri serioz, komisioetako lankideek
angina pectoris harrapatzen zuten... Moskun, berriz,
zili-zalaparta guzi honi "bost urtealdirako plan-
gintza" esaten zioten...

Sedentarioen garaia zinez pasea zen: ezerk geldia-
raziko ez lukeen mogimendua abiatu zen bazter gu-
zietan, jende guziak mugimenduan. Ukraniarrak
eta tataroak, kalmuikak eta barjetak, Jusowkako
mineroak, Kolomnako ehuleak, Riasango harrobi-
kari bizartsuak, komsomoldiarrak, kulak desjabe-
tuak, behar-lanetara zigorturiko espekulatzaille ta
desfalkogileak, abentureroak, entusiastak, tranpo-
soak, eta denetatik ezer ez faltatzeko, baita sekta-
predikariak ere, giza talde nahasiok guziok nora-
bait bidez-bide ziren, nahas-mahas mugimenduan,

eta hori bazekiren Moskun. Gau ta egun eraikitzen ziren barrakak, eta halare ez zen denentzako aina teilaperik. Familia osoak sartzen ziren kamaina bakar batetan, gau igaro. Gizakumeok ilunpetan egiteko denak egiten zituzten, azkatu ala besarkatu nahiz larrua jo. Ohantze aurrean beren zarpazarrak esegi, biluzia ezkutatzeko, ta... nomaden bizitokiak ziruditen barrakek. Barraketan lekurik aurkitzen ez zutenek lurtean zulatzen zituzten beren sator-zuloak. Egonaldiko lekugunera ailegatu orduko, basapiztiak bezalaxe hasten zen jendea. jo ta ke lurrak zulatzen, aterpea lurpean egiten. Gelditu gabe lanegiten zuten, ez zegoen atsederik, Sibiriako negu mina ganean zen, eta denek zekiten, ederki jakin, negu honen aurrean federik haundienak berak ere guti berotzen duela...

Atzerritik adituak etorri ziren, espezialistak. Denak harritzen zituen: jendearen animazioak, arkakoso ta zorriek, hotzak. Aparte bizi ziren, beren etxe ta kantinetan, eta beren sinesmenarekin. Dolarrean sinesten zuten, eta pagatu ere dolarretan pagatzen zitzaien. Kulak desjabetuek amorrazioz sutan lane-giten zuten. Haietako inor ez zen errudun, eskuarki, baina zer, denaren errudun zen klase hartakoak ziren-ta''.

I. Ehrenburgentzat lantegiztapenak ia konpreni ezinezko fenomeno neurrigabea dirudi, mundu berri baten sorrera antzekoa. Baina hemen ere ez da ezer triunfalismoz edo doktrinarismoz mistifikatzen. Denetariko lantegiztapenaren "heroe" dago, lantegiztapena ez da inolaz

ere sobiet-gizon berriaren obra zoragarria bakarrik, heroismoa mixeriaren erdian eta lantegiztapenaren miraria mundu zikin ta gogor baten erdian, gertatzen dira, haundikiariaren mitologiarik gabe. Solojoventz antzera.

Jakina, hemen gaiari ta garaiari ere begiratu beharra legoke. Gorkik bezala, Iraultzaz idazten bada, "triumfalismoa" ta "heroe positiboa" errazago gertatzen dira. Protagonista bezala iraultzagile porrokatu gazte bat hartzen bada, kontrarioak beltz eta lagunak zuri errazago pinta litezke, egirudirik galdu gabe, ekintzaren desarroiloa ongi hautatu ta mugatuez gero. Batez ere Iraultzak garaitu ta gero, garaitzapenaren ikuspegitik. Zailago dirudi, halare, koljos edo lantegiren batetako egunoroko lana burruka bixi-bixi bezala, heroismoz eta entusiasmoz beterik, azaltzeak. Langilerik sutsuenak ere iraultzagileak baino mila aldiz "mundu pribatu" gehiago bait du, eta pribaturik ez den bere munduan ere, errealidade prosaiko ta hotzen mendeanago bait dihardu.

Haundia da, orduan, ideologiaz puztutako obrak idazteko arriskua. Edo ideologiak zeharo desfiguraturako "heroe positiboak" sortzeko. Hain zuzen, Alderdia kanpaina ideologiko izugarri batetan enplegaturik zebilen, jendeari kolaboratzera eragiteko. Ta idazleei ere "obra probetxugarriak" idazteko eskatzen edo agintzen bazitzairen, propaganda idazteko esatea bezalatsu zen hori. Alabaina, ideologia eragikor huraxe zen, hain zuzen, idazlerik gehienegi gutien-gutiena gustatzen zitzaiena. Idazlerik gehienak hotz zituen Gobernuaren predikatzen ari zen ideologiak. Gobernuaren ahaleginak onesten ziren, baina haiek legitimatzeko ta oinarrizteko, idazleek ez zuten Alderdiak bezalako

arrazoipiderik erabiltzen (geroago egin beharko duten bezala). Aitzitik, asmoei ta eginkizunei oneritziz ere, behin baino gehiagotan azaltzen zuten, ideologia ta jokatibideak ez zitzaizkiela beti gogoko: ekintza onartzen zuten, baina ez ekintzari ematen zitzaion filosofia. Azkenean bere burua hilgo duen Wolodia Safonow "herriaren etsaiari" esan arazten bazaio ere, I. Ehreburgi posible zaio oraindik kritika:

"Jendea isil-isilik egoten ohituta zaudete zuek. Batzuk beldurtu ta ikaratu egin dituzue, ta isilik daukazue. Besteak erosi egin dituzue. Gaur, egia-rik sotilenak esateko ere, martiriaren adorea eduki behar da. Galileiren garaietan bezala, orain ere egia Inkisizioaren su ta gar artetik bakarrik azal daiteke. Zuek kultura darabilkizue beti ezpain artean, baina kultura zer den ulertu ere ez duzue egin. Zuek rebeldeak, ameslariak, filosofoak eta poetak mundu honen gainetik garbitu egin dituzue. Bai, analfabetismoa kendu duzue, ta haren truke, barbaroen basakeria jarri. Bai, arrazoizkotasunaren eta logikaren jarraipiderik konplituena txingorri talde batena da, baina halako taldeak duela mila urte ere bagenituen. (Hunoen hordak adierazi nahi ote dira? Boltxebikiak haiekin konparatu nahi ote dira?) Txingorri langileak, txingorri espezialistak, txingorri gidariak, ba daude. Baina txingorri jeinurik ez da egon oraindaino. Beren taldea dute, ta beren lana egiten dute. Hori da dena. Beren habi-ttonttorrak altxatu, lasto apurrak inguratu, eta arraultzak erruten dituzte. Gero elkar jaten du-

te, ta zoriontsuak dira. Zuek baino egiatiagoak dira, nolana ere: kultura hitzik ez dute aipatzen... Bai, bai: erlijioa zentzugabekeria hutsa da. Baina, halare, gauza bat da Kristo gurutzean, eta beste bat ez dakit nolako zer labe-klase asmatu omen duen Don Pello bat. Industriak eta lantegiak jasotzen dira atzerrian ere. Baina han labe bat labe bat da, ta kitto. XX-gn mendean honelako fetitxismo primitibo bat sartzeko ez dago dretxorik, ez dago dretxorik...

Hau dena apoio gutiegi ta epelegia iruditzen zitzairen iraultzagile estremistei, ta proletkultoak bezalaxe RAPP-ek, eta berdin-berdin sozial-realismoak, idazleen erabateko onespena esijituko dute Alderdiaren politikabideenganako. Eta, hortarako, *idazleak marxismo sobietarra onartzera behartuko dira*: konkretuago, errealismo sozialistaren teoria aitortzera. Honela lortu zen "optimismo zientifikoa", ez zen mistifikazio bat besterik. Zurikeria ez zenean behintzat. Errusiar literatura ideologiei buruz-buru libre ibiltzen ohitua zen, ta libertade hortantxe zegoen bere indarra. Literatura sobietarrak, libertade hura gabe, ez du inoiz indar hura erakutsiko.

6.7. Utopia platonikoa

Artearen autonomia absolutizatzerik ez dagoela, edo hura neutraltasun axolagabe eta gizartearen problemetatik aparte ibiltze bezala entenitzerik ez dagoela behintzat, aspaldidanik ezagutua da. Iadanik antzinako grekoek politikaren mugetan nahi zuten artea. Periklesek Hannah Arendt-en itzulpen esplikatioan esaten duen bezala: "Nous aimons

la beauté à l'intérieur des limites de jugement politique et nous philosophons sans le vice barbare de la mollesse''.

Eta H. Arendtek komentatzen du:

D'abord, on nous dit clairement que c'est le polis, le domaine de la politique qui pose ses limites à l'amour de la sagesse et de la beauté, et puisque nous savons que les Grecs pensaient que c'étaient la polis et la "politique" (et nullement des réalisations artistiques supérieures) qui les distinguaient des barbares, nous devons conclure que cette différence était également une différence "culturelle", une différence dans leur mode de relation aux choses "culturelles", une attitude différente à l'égard de la beauté et de la sagesse, qui pouvaient être aimées seulement à l'intérieur des limites posées par l'institution de la polis. En d'autres termes, c'était une sorte de sur-raffinement, une sensibilité sans discernement, qui ne savait pas choisir, qui passait pour barbare - et non pas une manque primitif de culture comme nous la comprenons, ni aucune qualité spécifique dans les choses culturelles elles-mêmes" (2).

Grekoekin batera, guk ere, hodeietako arte hutsa eta guziz apolitikoa —beraz, funtsean, ez publikoa— arte barbarotzat eman genezake. Barbarotzat, halaber, kupidarik gabeko zenbait kritizismo, dena hauzitan jartzeko gustogatik bakarrik edozeren erlatibizatze teorikoak, errealidade pobreen begirunerik batere gabeko teorizazio abstrakto hi-

(2) Arendt, *La crise de la culture*, 1972, or. 274.

largitarrak, denak izurratzeagatik botatako ostikada "jenialak", datorezia formalistak ala sensazionalistak, horiek denak ere barbarotzat har genitzake. Ta, hestu-hestuan, gure herria herri barbarotzat hartu beharko genuke: Periklesek uste duen legez, politikarako zentzurik gabeko herria barbaroa baldin bada behintzat. Mendebaleko tradizioz jatorrena genuke hori dena.

Grekoen jarraikitzen orobat mendebaleko tradizio klasiko den bezala, artea ta politika ez bata besteari azpiratzea:

"Athènes, au contraire, ne trancha jamais le conflit entre la politique et l'art unilatéralement en faveur de l'un ou de l'autre - et c'est peut-être, d'ailleurs, l'une des raisons du déploiement extraordinaire du génie artistique dans la Grèce classique, elle garda le conflit vivant et elle ne le nivela pas en une indifférence des deux domaines l'un à l'égard de l'autre". (H. Arendt).

Etengabeko tiranduran bizi beharko duen gizartea idealetik oso urruti egongo da, ta askotan mingarria izango da politikoaren eta artistaren arteko burruka, batzutan barbarokeriaraino ailegatuko da apika, baina barbarokeriarik galantena tiradura hori bortxaz itotzea litzateke: "En d'autres termes, la culture indique que l'art et la politique, nonobstant leurs conflits et leurs tensions, sont liés, et même en mutuelle dépendence" (H. Arendt, aip. lib. 279).

Beste zerbait da, stalinismoak, faxismoak, etab. nahi izan duten bezala, artea politikaren mugetan ez baino politikaren arras mendeen lotu nahi izatea. Aspaldiko as-

moa hori ere. Aspaldiko utopia: Estadu perfektoaren eta oso-osorik kontrolagarriki organizatuaren asmoa, arrazoizkotasun perfekto ta osoaren utopia. Baina guziz bestelako tradizioa da hori: tradizio platoniko-totalitarioa, ez tradizio atiko-demokratikoa.

Errealismo sozialistak:

- arte zientifikoa nahi zuen,
- arte pedagogikoa nahi zuen,
- arte probetxugarria nahi zuen,
- ez zuen nahi ideologiak ezarritako normetatik kanporako arterik.
- Estaduaren zerbitzurako nahi zuen artea.

Ez dut uste asmoon sorreran Platonek zerikusirik eduki zuenik (marxista "zientifikoei" Platon eta Hegel ez zaizkie batere atsegin, beharbada antzekoegiak dituztelako) baina xedeok guziok zuzen-zuzen Platoni kopiatuak dirudite.

Platonek ere filosofiak inspiratutako poesia "zientifikoa" nahi du, inspirazio filosofikoa ta teknika bateratzen dakien poesia (*Fedro*, 245 a). Arteak zerbitzu politiko bat bete behar du. Dantzak berak ere, soinuak, Estaduaren babeserako ta indarrerako zerbitzutan behar omen du (*Errepublik*a, IV, 424 d): dantza jendea hezitzeko omen da. Eginkizun pedagogiko honen arabera, musika konplikatu ta linburia musika txartzat eman behar dira: alferrikakoak edo kaltegarriak omen dira. Musikak, pedagogikoa izateko, erraza izan behar du. Ritmoa zeharo purifikatu behar da. Esan dezagun: errealista izan behar du. (Guzi honek eguzkialdeko Estadu batzuetan mendebaleko dantzetaz pentsatzen dena gogoratzen du).

Musikak Estaduari ta Estaduaren moralari zerbitzatu behar dionez gero, *Legeen* filosofoak ere laster asmatzen du Inkisizioa, mundua ordenan jartzeko: doinu mixolidioa debekaturik gelditzen da, sentimentala ta negartia omen bait da; doinu ionikoak debekaturik halaber, likits eta lizunak omen dira-ta. Doinu dorioa —guduzalea, bulardetsua— ta doinu frigioa —bare ta mantsoa— bakarrik permitituko dira, Estaduaren interesen arabera. Arteak probetxugarria izan behar bait du, hemen ere.

Arteak estetikaren printzipio jakin eta establezitu batzuei obeditu behar die. Arteak, beti ere, ideal orokar batzuen espresio “tipiko” izan behar du. Sozial-realismoak bezalaxe, Platonek ere —*Legeak* liburuan— legeak ezartzen dizkio arte krazioari. Lege guziz kontserbakorrak, halabeharrik:

“Han behean, Egipton, tenploetan erakusten diren obra maisuen lista bat, deskribizioekin, promulgatzen da. Ez zen haizu, ta ez da orain ere haizu, pintoreak, edo nolanhiko irudiak egiten dituen irudigileren batek, antzinako tradizioekin konforme ez dagoen inolako berritasunik asmatzea ta ez ezer bururatzea. Ikusleak, duela hamar mila urte pintaturiko edo landuriko obrak, aurkituko ditu han. Eta hamar mila urte esaten badut, ez da zerbait esateagatik, esaera bat: ez, halaxe da, egia hutsa da. Obra haiek gaurkoak baino ez ederragoak eta ez itsusiagoak dira: arau berberei segituz eginak dira”.

Hau da Platonen ideala: arte hieratikoa, norma jakin batzuen arabera egindako edertasun objetiboa. Plato-

nek modernismo oro kondenatu du, errealismo sozialistak arte moderno guzia bezalaxe.

Sozial-realismoak bezalaxe, Platonek ere ez du arte "naturalista" engainagarririk, objetibotasun mugatuko errealismorik, nahi. Horregatik, Platoni, pintura arte biziki arriskutsua ta traketsa iruditzen zaio: ba dirudi, errealidadea kopiatzen eta adierazten duela. Irudiak osotasun bat ba duela, sentido bat ba duela. Baina hurbildik eta hobeki begiratu ez gero, dena zati puskek besterik ez dela, kolore mordo sakabanatu batzuk baizik ez dela, ikusten da. Itxuraz bakarrik adierazten du errealidadea den bezala. Pintura "itxura" hutsa omen da. Engainatu egiten du. Eta, *mutatis mutandis*, sozial-realismoak ere honela moduzko kritika egiten die errealismo klasikoari ta naturalismoari: itxuraz gauzak diren bezala pintatzen dituztela, agiri diren eta ikusten diren bezala, baina gauzen "esentzia" batasuna, adierazi gabe. Nolanahi ere, Platonek pinturaren teknikan ikusten zuen failoa, ta sozial-realistek ideologia faltan.

Beraz, sorpresarik ez da, utopia zaharra dugu hau guzia: eta beti lau alboetatik debekuz eta aginduz irmo irmotutakoa gainera. Stalinena platonismo bat gehiago izan da. Beti bezain krudela. Artea Estadu interesei zeharo menperatu nahi izan bait zien.

6.8. Literatur-kreazio zientifikoa edo esklabo literarioak

Injinadoreek edo teknikoez bezalaxe, idazleek ere Erresuma sozialista eraiki behar zuten. Eta haien lana bezala-

xe, idazleen lana ere, produzio literarioa alegia, "lege zientifikoz" antolatu nahi izan zuen Stalinek. Lege hauk diktatzeko bildu zuen, idazleen elkargo denak desegin ondoren, Idazle Sobietarren I-go Batzarra.

Stalinek zuhurki jokatu zuen: RAPP-en kontra zegoen erresumina bere alde aprobeztatzen jakin zuen, eta liberal agertu zen.

Batzarrean bi joera nabari ziren. Bata, literatura lukainka bezala, serie berdinetan eta errezeta berdinen arauera, egin araztearen kontra saiatu zen. Doktrinarismoaren aurka. Literatura egitearen alde, ta zeregin honetako idazleen autonomiaren alde. Bucharin mintzatu zen gogorkienik. Panfletismoa superatzeko ordua zela, esaten zuen. Slogan politikoak bertso moduan atontzea ez dela aski poesia egiteko. Demian Bedni, A. Bezymenski, Michail Swetlow, Alderdiaren algoazil lirikoak, poesiari traidore hutsak zirela, deklaritzen zuen, koplak gutirekin. Poeta laureatuok kondentatuz batera, zenbait poeta orduan guti edo gaitzetsi jartzen zuen eredu bezala: Pasternak, Tichonow, Selwinski. Kritika gogorak bizkarreratu bazituen ere, kritikek ez zuten isilarazi:

"Surkow lagunak nire aurkako salakuntza hau egiten du: Bucharinek poesia proletarioa likidatu du. Likidatu, seguru asko, zeragatik likidatuko nuen: ahaztu egin dudalako esatea, Bezymenski Shakespeare bat dela, Swetlow Heine bat dela... Maikowski nik ere oso goratik estimatzen dut, baina horrek ez du esan nahi, Maikowski bezain bikaina izanda ere, inor fetitxe baten moduan adoratu

behar denik. Idolatra ta fetitxista besterik ez da, ordea, bizitzak aurrera segitzen duela konprenitu gabe dagoena. Ni, jeneralki, ez nago (...) inolaz ere poesia alderdikorraren kontra, hitz hori esanahi zuzenean hartzen bada... nik diodana zera bakarrik da: agitazioak berak ere honez gero diferentea izan behar duela; gaurkotasun konzeptua iadanik aldatua dela; dagoeneko ez dagoela inor konformatzerik, slogan operatiboak xehetasun guziekin bertotan jarriaz edo periodikoetako editorial artikulok bertotara pasatuz; sintesi bat lortu beharra dagoela, arte indartsu, aberats eta ugari baten sintesia”.

Beste joerak literatura Alderdiari are hestuago lotu nahi zion. Eta Batzarrean besterik bazirudien ere, joera honek irten zuen garaile. (Konklusioetan atzera puntu honetara itzuliko naiz).

Idazle Sobietarren Elkargoaren estatutoetan gaur arte agintzen duen norma hau dago, sozial-realismoaren izpiritua ikus dadin, aipatzeko:

“Idazle Sobietarren Elkargoaren xede da... (Autoreei) Alderdi Komunistaren jakituria gorena ta heroismoa gaitzat dituzten obra artistikoak sortzeko eragitea”.

Honela, idazleei inspirazioa ta metodo literarioa diktatzen dizkien Alderdia, literaturaren gaia ere bada: literaturaren bai sujeto ta bai objeto, idazleak —tresna antzean— bitartekatuta. Hau da sujetoaren eta objetoaren identidate absolutoa. “Lege zientifikoa” hauk gordearaztea zentsoreen eta funtzionarioen esku zegoen. Legeon kon-

plimendua garantizatzeko neurri hanitz ba zen: idazleak ogibiderik gabe uztetik preso-zelai edo likidazioraino.

Faraoiak izan zirenez gero ez du munduak ikusi, abiaburu hauekin munduko literaturarik aurrerakoienak eta aurreratuenak sortu zuen bezalako himnologiarik:

“Fronte literarioko langileek,
idazle, kritiko, kudeatzaile, agerkari,
herri osoarekin batera,
Stalinengana jasotzen dituzte begiak
maitasun eta jaierez beteta.
Harengana daude zuzenduta
herri haundi honen sentimentu ta pentsamentu
/denak,

Sobiet Batasunaren aitarengana,
gizadiaren eguzki argiarengana,
gure denboretako jeinu haundienarengana.
Lurbira osoko langileek
maitasun eta poz neurrigabez aipatzen dute
Stalinen izena,
bizitza berri, zoragarri baten sinbolo bezala.
Stalinen banderari jarraiki,
fedekementsu ta tinkoz
doa gure lurra beti aurrera
garaitzapenik garaitzapen”.

H. von Ssachanok hitzokin ematen du epaia: Stalinekin Literatura sobietarrari bere azkeneko balioa kendu zion: Balio dokumentala.

H. Arvonek dioenez, errealismo sozialistak, zurikeria-

rako balio ez zuten idazlerik onenetako gehien-gehienak isiltasunera kondenatu zituen: Pilniak, Babel, Juri Olescha. “Ayant orchestré la chaos et l’enthousiasme, le refus, l’instabilité, l’éternelle remise en cause, bref l’élan révolutionnaire à l’état pur, ils ne peuvent se résigner à cette subordination à des fins circonstancielles qu’on exige d’eux”.

Idazten jarraitu zuten batzuek, ez zuten gehiago lehenagoko mailarik lortuko: lan eskas eta merkeak bakarrik aterako dituzte, hala nola Fedinek, Leonowek, Kataiewek. Sholojowek bakarrik eskaini du errusiar tradizio literario haundiaren parean desmerezitzen ez duen obrarik. Literaturarik gehienarentzat Twardowskik nobela sozial-realistari egindako kritika honek balio lezake (Twardowski Lenin sariz saritua da, franko “ofiziala”, hortakoz):

“Hau da ezer tatxatu ezinezko nobela jatorra:
erakusten du,
larriluak nola bata bestearen gainean jarri,
bigarren direktore atzerakoia,
lantegiaren buruzagi aurrerakoia,
eta nola azkenean aitona ere komunista bilakatu zen.
Hemen bai Eleder ta bai Gerrieder (3)
langile buruzagi dira,
motorra beti jarrita dago ta martxa emanda,
Alderdiaren antolatzailea, ekaitza, istripua, krisia,
gero ministroak lantegia bisitatzen du,
festako bazkari galanta ondoren.

(3) *El y ella*, Eleder eta Gerrieder-ekin euskaratu dut, euskal literaturan beste pareja “tipikoagorik” ez zait bururatu-ta. Nobela guzietako pareja protagonista adierazi nahi da, noski.

Hori dena indikazio xehe-xehez beteta,
dena errealidadea bezalakoxea,
edo errealidadea agian posible litzatekeen
bezalakoxea.

Hori dena batera jarri, fuerte nahastu,
ta hain inork ezin iruntsizko botika da,
ze tripako minez karraixika ito beharrean hasiko bait
zinateke”.

Sobiet Batasunean literatura desestalinu omen delarik, errealismo sozialistak lur jo duela dirudi. Lukácsek, hitz horiek norbait iraintzeko erabiltzen direla, esaten du. Errealismo sozialista zeharo desprestijaturik dagoela. Eta Kolakowskik, Poloniari dagokionerako, atzera errealismo sozialistaren dotrinetara itzultzeari, organizazio stalinistara itzultzeari bezain sinestu ezinezko derizkio. “Errealismo sozialista, dotrina bezala, bere oinarririk garrantzitsuenetan —ertiaren kontraespilatze teoria edo erti baiezkor, optimistaren slogana, adibidez— objetiboki faltso eta erdiaren kondairarekin elkartu ezinezko agertu bait zen. Baina ez hori bakarrik. Ekintzan heriozko ondorenak zekartzan erti mailako sorketaren desarroilorako” (4)

Errealismo sozialista hilda baldin badago, egongo da hilda. Hilobiratuta behintzat ez dago. Eta, oker ez bageude, ta hobe oker bageunde, idazle sobietarrei oraindik neke ta burruka asko kostako zaiela ematen du, hilobiratu arte.

(4) Ik. *Kolakowski* liburuan, or. 209. Honen arrazoi bat or. 205-ean eman da: arrazoikotasun hutsaren ideologikeria, “ideologia zientifikoaren” bizitza maila guzietako diktadura.

7. Fadeiew

Aleksander Fadeiewek errealismo sozialistaren historia bere pertsonan inkarnatzen du. Hala bihurtu da izen hau errealismo sozialistaren sinbolo (errepresio literarioarena Schadanow bezala). Errealismo sozialistarekin batera igo zuen, biok elkar eraiki zuten, eta biok batera erori ziren. Bizitza tragiko hau labur-laburki adieraziko dut, kasi teoria sozial-realistaren historia bera bait da.

1. Aleksander Fadeiew Errusia Zentralean jaio zen, 1901-eko abenduaren 24-ean. Oso ume zen, aita (osagile bat) eta amarekin Sibiriara joan zenean. Sibiriaren lantegiztapen ksarista guziz primitiboa ta anarkikoa zen. Deportatuak besoek jaso gehienbat, eta kondizio guziz gogorretan. Sibirian inon ez bezala gorrotatzen zen ksarismoa. Fadeiewtarrak, nolana ere, ez ziren langile deportatuak, eta Aleksanderek Eskola Nagusi Komerzialean estudiatzen zuen.

Aleksander 16 urteko ikaslea zen, Iraultzaren lehenengo berriak Wladiwostokera heldu zirenean. Teatralismo patetiko galantezko erabaki batekin, gurasoen etxean zegoen Ksarraren irudiari tiro bat jo zion, gero bere irudiari, espiluan, beste tiro bat; idatzita zeuzkan poesiak eta paperak erre, ta etxetik aldegin zuen, partisano joateko. Fadeiewek *Txikizio* (edo *Hemeretziak*) nobelan garai haren dokumentu trinkoa eskaini digu. Benetako errealismoa. Esposizio garbia ta sinplea, ekintza erraza: sibiriar partisano talde bat Harmada Zuriaren lazo batetan erortzen da. Ja-

ponesek eta zuriak inguratutik, burruka gogor batez salbatzea lortzen dute, baina hemeretziak bakarrik superbizitzen dute operazioa. Hauxe besterik ez da kontatzen den historia. Hizkuntza elemental eta estilo zuzen, trinkoan. Pertsonaia nagusia partisoen komandantea da, Levinson judegua. Partisano taldeko komunista bakarra. Honen jakituria guzia esaldi batetan biltzen da: "Gauzak diren bezala ikusi, izan ba dena aldarazteko, ta izango dena lehenbailehen izateratu dadin". Levinson ekintzalea da, ez teorizalea, Fadeiew zen bezalaxe: Fadeiewek bere burua proiektatzen du pertsonaia honetan. Hauxe da nobelaren "mezua" ere, ta hein honetan, Fadeiewen nobelari ez zaio asmo polemikorik falta.

1927-an agertu zen nobela hau. Hau da, nobela iraultza-romantikoen uhina pasatu samarrik zegoelarik. Fadeiewek Iraultzari buruzko nobela produzio gehienaren zuzen-zuzen kontrastean egin du bere nobela. Haizepuzkeria simbolista denak baztertzan ditu. Ta haizepuzkeria ideologikoak ez gutiago. Ez du ditiranborik maite. Gauza garbiak nahi ditu, ta situazio garbiak azaltzen ditu. Ez dago "iraultzaren misteriorik", ez heroismoaren mistika arrastorik ere. Neur daitekeen heroismoa dago. Ez dago motibo ilunez eta indar kosmikoz dagien jende elementia muga gaberik: esku bietako hatzamarrekin konta daitezke pertsonaia guztiak, eta guztiak banan-banan ezagun daitezke, beren egin-tza, agerkeria fisiko nahiz psikologiko egitamuan.

Fadeiew marra ta muga zehatzetako mundu-ikuskeria erakusten du, "intelektualen" korapilo ta endreo ta bihurtune ta misterio zoko ezkuturik gabe. Mundu ikuskera sotila, deliberamendua, iraultzaren helburu guziz konkre-

tuak, eta basta. Interpretazio haundi bila joan gabe. Zeharokoa ta zirti-zartaria, beraz. Gizon pragmatikoa agiri da, arrazional hotza, baina gori-gori barnean. Aiurri zaildua.

Fadeiewi, lehenik, higuingarri zaizkio beti konzienzia konfliktoetan nahastuta dabiltzan intelektualak: ezin sofritu zuen *bai-baina-halare*-rik. Literaturak ere garbi-garbi Iraultzaren alde alderdi hartu behar zuela, adierazten zuen, beraz. Bestetik, Iraultzari buruzko literaturaren irrazionalismo sujetibistarekin bukatu nahi zuen, heroe positibo sotil bat aurkeztuz. Sentimentu erromantikoak sortu-tako Iraultza zaletasuna higuingarri zaio Fadeiewi. Fadeiewek ekintzale errusiarraren tipo berri bat sortu du: hotza, gogorra, sofritua ta iraunkorra, bere helburuetara zuzen-zuzen doana, problematika ta konzienzia nahaste guziak erantzitakoa, zer nahi duen eta nahi duena nola lor dezakeen garbi dakiena edo zuzen-zuzen bilatzen duena, konsekuentea. Iraultzazale helburu ta asmo konkretu batzuen-gatik dena, eta ez erromantizismoagatik.

Halare Fadeiewek ez digu robbot iraultzagilerik, berotasunik gabekorik, deskribatu. Aitzitik, errealismo sikologikoaren hasiera seinalatzen du obra honek. Haren partisansoak pertsonak dira, sikologia guziz fin estudiantua dute, ez dira inolaz ere filosofiaren baten inkarnaziorik. Fadeiewentzat Iraultza pertsonen zeregina da. Bere Iraultza ez da, hortakoz, *gertatzen* : egin egiten da, gizon batzuek beren erara eginda. Nobelaren tirandura, drama, hain zuzen Metschik intelektualaren eta Levinson partisansoaren artean dago. Metschik estudiantea da, erromantizismoz iraultzagile bilakatua, baina Iraultzaren egunoroko bizitza gogo-

rraren eskabideak ezin eramán dituená: ezin erabakirik dago beti, sentibera ziniko bat da, federik gabekoa ta karaktererik gabekoa. Azkenean desertatu egingo du. Bere goeta guziekin ere, alferrikako gizon bat besterik ez. Levinson liburu gutiko gizona da. Baina bizitasun eta zentzu positiboz gainezka dago bere bizitza. Fede simple baina garbikoa, nahimen irmokoa, "hitz labur eta ekintza luzetakoá".

Levinson komandantea da nobela honetako pertsonaia zentrala, ta nortasunik bereziena ere. Bere mutilak guziz diferenteak dira beren artean, eta motibo guziz diferentengatik partisano sartuak. Metelika, mutil artzain simplearen eta zintzoaren ondoan (zuriek preso hartu ta ehoko dute) Morozko mineroa dago, astako bat eta anarkista, eta Morozkoren emazte Waria, santa bat ez beste guzitsu, andre beroa, ta ez Iraultzaren alde bakarrik berotuta. Metschik estudiantea; Pikar, langile sofritu zaharra, Gontscharenko, erraldoi gazte bat, on puska hutsa, gogor jokatzerá behartuta eta ezin gogor izaten asmatuz, etab. Trazo gutitan emanik ere, pertsonaia bakoitzaren sikologia nabar nabarmen azaltzen da. Levinsonék badaki, jendeoi batera eusteko ta diziplina gordearazteko, burdinezko eskuz manejatú beharra dagoela, ta hortarako, "beren ahulezia erakutsi behar zaie, ta norbere ahuleziari gain-hartu behar zaio". Buruzagiak beti seguru agertu behar duela, uste du Levinsonék. Buruzagiak baietz ala ezetz esan behar du; ez du darik, zalantzarik, agertu. Eta jardun ere, halaxe dihardu. Partisanoak sinesturik daude, inguratuta daudenean, ia galduta egon arren, Levinsonék badakiela salbabide bat. Bakarrik, ez duela oraindik esan nahi. Eta adoretzu senti-

tzen dira. Egiazki, Levinsonnek ez daki tutik ere, zer egin litekeen, inguramenduari nola ihes egin ahalgo dioten, baina beti segurantziaz haundiena agertzen du. Konfiantza isurtzen du.

Autoridade politikoaren eta autoridade moralaren problema da nobelaren gaia. Hain jende diferentea talde diziplinatu batetan integratuko bada, autoridadea behar da, buruzagitza segurua behar da. Eta honetan Alderdiaren morala irakasten du Fadeiewek: honela bakarrik lortuko da, anarkistak, artzain uzkurak, langile esperantza gabekoak, Estadu berriaren eraikiduran gogotik kolaboratzeko irabaztea. Autoridadeak bateratzen du ta gidatzen du herria. Bestela herria nahasmasi bat da.

Baina, horrezaz gainera, Fadeiewek, hirietatik, organizazioetatik, Alderditik bertatik, Harmadatik, Sibiriako zabalgoetara eramaten du Iraultza. Hirietatik kanpainara. Iraultzaren zientziatik instintoz edo senez bezala egindako, beharrak eragindako, Iraultzatara. Jende sinplearengana. Basoa, errusiar baso mitikoa, ta hibai hotza, dira hemen Iraultzaren markoak. Naturalezaren erdian egiten da, eta naturalezako animaliaen instinto seguroz egiten da. Partisano egiten diren jendeok ez datoz teoriaren batek kontentzitu dituelako, jende tipiaren instintoak erakusten die-lako baizik, zein duten lagun ta zein etsai. Iraultza zaldiz dabil. Eta lurralde azkengabe hartan partisano taldeak altxatzen dira nonahi, oraingo burruka honen azkena zein izango den galdetu gabe, gosearen eta mixeriaren kontrako gizadi osoaren burrukan parte hartzen dutela jakin ta besterik jakin beharrik gabe. Hauena izan zen Iraultza, esan nahi du Fadeiewek, eta jende tipi kuraiatsuarena gelditu

behar du... Baina, ordurako, Iraultza jende tipiaren eskue-
tatik burokratiko ta arribisten eskuetara pasatzen hasia zen.
Fadeiewek berak ere prozesu honetan sartu behar izan-
go du.

2. Fadeiewentzat idaztea ere burruka forma bat zen.
Ez zuen asko idatzi, baina bai eragipen galanta literaturan
eduki.

Fadeiewek bazekien, propagandazko ta eztabaidazko
literaturak ez dezakeela aparteko obra ederrik sortu. Baina
literatura ederrik egitea baino premiazkoago iruditzen
zitzaien gizarte sobietarra eraikitzea, ta hortan saiatzen
zen. Gudua bukatu zenean, lumarekin jarraitu zuen bu-
rruka. Eta lumarekin ere partisano bat izaten segitu zuen.

Fadeiewek bere buruari jarrita zeukakion diziplinatik
apartatzen zena, Fadeiewentzat, besterik gabe, etsai bat
zen. Dudatan zebilena, gauzak konplikatzen zebilena,
alde onak eta txarrak "objeliboki" neurtzen zebilena,
etsaiak ziren. Ezertarako balio ez zuen alferrikako jendea
ziren.

Gizartearen desarroilo pluralista, ezberdin bat, parti-
sano talde indiziplinatu bat bezain guti onets zezakeen.

Anartean Fadeiew Idazle Errusiar Proletarioen (RAPP)
buruzagitara ailegatua zen, ordea, Sibirian eta Ukranian
Alderdi Komunistaren antolatzaile izan ostean. Hemen,
benetako fanatismoz erasotzen zion, berea ez beste bideren
batetatik zebilen edozeini. Fedearen "garbitasuna" zain-
tzeko espezialista guzien, hau da, Inkisizio guzien zorroz-
tasunarekin, ikusten zituen lankide idazleak. RAPP pro-

letkulturalisten buruz-buru Alderdiak muntaturiko lehenengo harma bait zen, Fadeiewek Alderdiari zerbitzatzen zion. Gogorki zerbitzatu ere. Oraindik partisano zebilela, uste zuen agian Fadeiewek.

Proletkultoak lehenik idazlearen jatorriari begiratzen zion, idazlearen mentalidadea batez ere haren esperentzia-munduak taxutua zelakoan: proletario izan zedila idazlea, ez sorkuraz bakarrik, baita bizibidez era. Idazlearen eskuek proletario esku latzak izan behar zuten. Alderdi Komunista sobietarrak sortarazitako RAPP-ek, aldiz, idazlearen mentalidadea batez ere ideologiak taxuturik ikusten zuen, eta ortodosi ideologikoari, ideien garbitasunari, begiratzen zion: idazle "ona" izateko marxista izan behar zen. Fadeiew eta bere lagunak (Serafimowitsch, Furmanow, denboraldi batez Maiakowski ere bai) garbitasun honetaz axolatzen ziren, eta zinez axolatu ere. Hain zinez, ze 1932-an Alderdiak RAPP erakundea desegitea hobe zela, deliberatu bait zuen, haren "sektarismoagatik" eta Alderdiaren "alianza-politika eragozteagatik". Baina RAPP-ek posibilitatu zuen errealismo sozialista, hein handi batetan.

Fadeiwen karrera literatur-politikoa han bukatu zela, pentsatzen zen. Baina ez. Urte batzuetarako haren izena isilpean galdu zen. Baina 1936-an Gorki hil zenean, hura izandutako Idazle Sobietarren Elkargoaren buru - Fadeiew bilakatu zen, guzien harrimen galantez! Gero Fadeiewek karrera azkarra egingo zuen Stalinen morrontzan. 1939-an Zentral Komiterako hautatua, Stalin Sariaren epaikari komitekoa, Bakerako Batzar Sobietarraren Lehendakari, Ba-

kerako Batzar Mundialaren Lehen-Ordezko, etab. Lenin ordenaz ohoratua zen.

Fadeiew —Iraultza ostean Moskun injinadore ikasketak egina— Stalinek behar zuen “arima injinadorea” zen. Eta beste mila ta milaka lehen-orduko iraultzagile zintzo bezalaxe, geroz-eta gutiago pertsona, geroz-eta gehiago funtzionario, bihurtuko zen. Stalinismoa literaturan aseguratzen zuen funtzionario. Bizitzaren azken aldera oraindik gelditzen zitzaizkion lagun gutitako bati berak aitortzen zion: “Bat ia ez da gizonik, dagoeneko bat funtzionario hutsa da”. Stalin hila zen, eta Fadeiew agian bere buruaz kupitzen hasia zen.

“Garbizio” haundien 30-gn urteetan, Fadeiew Stalinek behar zuen lankide leial, itsua agertu zen. Tropa diziplinatu ta manukor bezala eduki nahi zituen Stalinek idazleak. Eta lortu ere lortu egin zuen, mehatxuz, kanpainaz, administrazioz, eta zigorrez. Inork ez daki zenbat idazle hondatu edo preso-zelaietara ta zigor-lanetara bidaliarazi zuen Fadeiewek, nagusiaren gustoa egiteagatik. Fadeiewek partisoaren diziplina itsuz betetzen zituen berriz ere goitik zetozkion indikazioak.

3. Hain seguru agertzen zen Levinson komandantea, barnean kezkek eta dudak jota zegoen, eta inbidiaz ikusten zituen harmonia ta ziurtasun gehiagotako partiso taldeak. Levinsoni bezalatsu gertatzen zaio haren kreatzaileari ere: Fadeiew ez zen inolaz ere bere ofizioan agertzen zen gizon hotz, itsu ta intolerantea. Izpiritu guziz kritikoa ta langile porrokatua zen, eta problema literario ta moralik ezberdinetaz ere asko ta asko pentsatua ta kezkatua, haren gu-

tunetan ta egundari bixi-bixietan ikus daitekeenez. Halare, bere kezka ta problema guziak Alderdiko lanari sakrifika-zen zizkion. Barnean odola bazerion ere, jendaurrean eta ofizioan "Alderdiaren gizon diziplinatu" hutsa zen. Eta bere barneko sua bezalaxe, literatur-produzio sobietar guzia kontrolpean eduki nahi zuen.

Alabaina, Fadeiew ez zegoen gustora bere ofizioan. Ekintza gizona zen, ez zen bulego lan zurrunezko gizona. Gerra hasi zelarik, utzi puesto denak, eta frontera joan zen Prawdaren eta Informazio Buro Sobietarraren gudu-albistari bezala. Fadeiew berriro bere saltsan zegoen. Eta Fadeiewen barruan aspaldiko idazlearen arima berbiztu zen. Gerrako katramila ta larri guzien erdian ekin zion *Goardia gaztea* nobela berriari. Berriz ere gerra ta partisanso giroan daukagu Fadeiew. Berriz ere gazte idealisten komunismo espontaneoarekin. Naturaltasunik galdu gabeko izpiritu iraultzagilearekin.

Goardia gazteak Don inguruko gazte talde baten burruka klandestinoak kontatzen du. Gertaera historiko batetan oinarritzen da nobela: alemanek okupaturiko Krasnodon mehatz hirian, 1942/43 urteetan, zenbait neska ta mutil gazte komsomoldiarrek erresistentziarako elkar hartzen du. Laster ehun ta hiru laguneko talde bat osatzen da: zortzik bakarrik irtengo du bizirik, beste denak alemanek torturatu ta txikituko dituztelarik. Nobelak gazte talde honen burruka ta hondamendia kontatzen du.

Fadeiewek berriz ere gazte baten sotiltasun garbiarekin ikusten du mundua. Eskeptizismorik gabe, horizontean lainorik gabe, marra sinpletan, konplikazio gutirekin.

Garbi-garbi berezita daude nobelako hiru blokeak:

- 1.- Erresistentziako gazteria, "heroe positiboa".
- 2.- Alemanak, "antiheroek", anker eta zital, doilorkeria ta basakeria sadista guzietan.
- 3.- Polo biok dauden eremua, populazio sobietarra da, herri jende elemeniak, berdurrak jota, eba-kuazioaren nahasmendiek ikaratu ta nahastuta, kemena zeharo galduta, koldarkeriaz eta korruptioz beteta, beti bentaja bila, koipekeria ta azpikeriatan norbere burutxoaren alde, izpiritu egoista kaskarreko jendea, izpiritu sozialik batere gabe.

Nobelak egitamu guziz eskematikoa du, beraz.

4. Fadeiewen nobelak izugarritzko arrakasta eduki zuen, irakurle gazteen artean batez ere. 1945-ean agertu zen. 1946-an Stalin Saria irabazi zuen.

Gero Stalin berriro lehengo lanari are enpeinatuagorik lotu zitzaion. Gerra garaian zerbait liberalizatu bazen, funtzionarioek gizarte sobietarra berriro itxi zuten. Eta berriro hasi zen Alderdiari atxikirik aski ez ziruditenen ehizea. Eta oraingoan Fadeiewek bere burua harrapatu zuen: Alderdiak ez zuen haren nobela alderdikor aski kautsizen. Eta 1947-an liburuaren kondena ailegatu zen:

"Stalinen gudate haundia falta da... Ebakuazio eszenen deskribizioak esajeratuak dira [Fadekewek deskribatzen dituen ebakuazioak kaotikoak dira]. Ez da gertakarien zentzu historikoa atzeman, ezta

ebakuazioak zuzen eramateko neurrien zuzentasunik adierazten ere. Tipikoenak haiek bait ziren, ez beldurak eragindako nahasmendi ta sakabandaldiak. Hauek salbuespenak izan ziren. Inposible da, halaber, komsomoldiarren burruka Alderdiarengandik independente bezala agertaraztea, Alderdiak zerikusirik izan ez balu bezala''.

Gazteok komsomoldiarrak izateak ez du ondorio berezirik historiaren harian: ideologiak ez dauka sartu-irtenik, gazteok beren baitatik dihardute, espontaneoki. Berriz ere bihotza da eragile, ez ideologia. Komsomoldiarrok ez dira "mundu hobetzailerik". Egoera konkretu batetan ekintza konkretu batzuk eta burruka konkretu batzuk egiten dituztenak baizik.

Eta ideologiak bezain zerikusi guti du, berriz ere, organizazioak, erakunde haundiak: gazteek beren kisa dararamaten erresistentziak berebiziko arrakasta du. Alderdiko funtzionarioek antolatzen dituzten ekintzek, aldiz, porrot egiten dute. Nobela honetan, Alderdiak ez dirudi ezertarako; edo, izpiritu iraultzagile naturalaren, biziaren, eragozpena bakarrik dirudi. Slogan borobilak, plan ausartak, ahoz-aho zabaltzeko bakarrik.

Fadeiewek berriz ere mendez-mendeko lozorrotik irartzartzen, esnatzen den gizon sobietar berria deskribatzen du: gazte, alai ta heroiko apal, bere helburuei gorputz eta arimaz entregatuta, sotil ta garbi, kementsu. XIX-gn mendeko errealdisten pertsonaia korapilatsu, kezkatiegandik mila legoatara gaude. Eta mila legoatara, orobat, ideologiaren puztutako nobela-heroe sobietarretatik.

Ez da tonu haundi solemnetan erortzen, unerik dramatikoenetan ere. Gauzak zuzen eta apalki deskribatzen dira. Torturak, esaterako:

“Hilargi zuriak argitutako patio biluz batetara atera zituzten... Stachowitsch zaharra atera zuten lehenengo. Zeharo ahuldua ta inuzo samarra zegoen gajoa. Aidean dilindan eragin ta kamioi barrura bota zuten. Gero Anatoli Popow, anka bat moztu zioten. Ragosin eta Scheinak bien artean Witia Petrow zekarten: begi biak atera zizkieten. Wolodia Osmuchini beso bat moztu zioten, baina tente zihoan”.

Pathos hagiografikorik gabe. Datoa biluz-biluzik. Gainera dato historikoak dira.

Bat-batean kritikoak ere nobela hau hutsez beteta zegoela ohartu ziren. Lev Subotski kritikoak labur-biltzen zuen funtsezko kritika:

“Autorearen huts ideologiko ta artistiko gogorrenak, zeretan finkatzen dira: ez duela boltxebikien egitekoa, gazteriaren gidatzaile ta hezitzaile bezala, merezi haina adierazten; eraberean, ahaztu egiten duela Alderdiaren ekintza klandestinidadetan erakustea”.

Labur: Alderdiaren merezimenduak ez dira aski goratzen, haren gidaritza batez ere.

Fadeiewek bere nobela defendatu nahi izan zuen. Baina Stalinek berak pertsonalki *Goardia gaztea* nobela eraberritzeko agindu zuenean, Fadeiewi ez zitzaion dizipli-

nari burua makurtu beste erremediorik gelditu. Bere nobelaren berrikuntzari ekin zion. Lagun bati egindako gutun batetako pasarte honek ongi erakusten du Fadeiewen diziplina itsuzko izpiritua:

“Dakizunez, oso gogorki kritikatu naute. Behar-beharrezkoa da, zinez, Alderdiaren klandestinidateko ekintza nabarmenago jartzea. Ez dago organizazio kontuan deus ez zekiten boltxibista batzuk bakarrik deskribatzerik. Ezpada, erresistentzia beneran organizatzen jakin duten funtzionarioen lana destakatu behar da. Azkeneko hau nabariki tipikoago da, eta nire okerrak zuzentzen saiatuko naiz”.

Baina, tipiko ala ez, nobelak horixe nahi bait zuen: organizazioaren lana ez baino, gazteriaren erresistentzia espontaneoaren erakutsi, Fadeiewi asko kostako zitzaion bere nobela joera berri honetara “aldatzea”. Lau urte behar izan zituen (idazteko baino doble). Eta nobelaren batasun dena birrindu zuen: lehenengo tramak ez bait zuen Alderdiaren eta Stalinen glorifikaziorako tarterik uzten, haren egitamuaren bururapenagatik ere. Baina Fadeiewek Stalinen agindua bete zuen, Alderdiaren gustoa egin zuen:

“Stalingrado, horra estrategia jenialearen agerpe nik bortizena. Stalingrado, horra hor aginpide sobietarraren a zpiari hasitako gizandi berriaren organizaklra,1 dohainen demostraziorik argiena. Stalingrado, horra gizarte zaharraren aldean, haren anarkiarekin, sistema ekonomiko berriak dituen bentajen demostraziorik siesgarriena. Stalingrado, horra kapitalismoaren atzamarretatik askatutako he-

rri baten ahalmen izpiritualen eta esanahi histori-koaren espresioa. Stalingrado, horra hor, hiriari izena eman dion jeinuaren fruturik gozoena', etc.

Estiloa ere aldatu egin zaio iadanik Fadeiewi: estilo deklamatorio, faltso, ustel bat besterik ez du egiten asmatzen.

Fadeiewek obeditu egin du. Baina barrutik txikituta dago. Gainbehera sartu da. Ez du gehiago ezer idatziko. Gainera, ba daki, ez duela Alderdia kontentzerik lortu. Bere berrikuntzari postizokeria habari zaio,, bistan dago Fadeiewek ez duela idatzi gogoz.

Bitartean Stalin hiltzen da, eta gizartearen azpitik prozesu ilunak somatzen dira. Lehenagoko "arau zientikoek", orain nobela egoera berriari egokitzea eskatuko liokete. Bere larrian, Fadeiewek berriro aldatu nahi luke bere nobela. Baina ezin du: ez daki non dagoen, ez du ulertzen gehiago mundua. Fadeiewek eranari ematen dio. Abandonatuta aurkitzen da, bakarrik, bere urritoko puestoan. Nagusi berriek ez diote indikaziorik ematen, ezta konfiantzarik ere. Menpekoak aldendu egin zaizkio.

Alderdiaren XX-gn Bilkurarako hautatuen zerrendan bere izena aurkitu ez zuenean, bazekien Fadeiewek, bere kondena konsumatua zela. Jrustxofek desestainizazioari ekin zion: Stalin estratega txar, organizatzaile txarrago ta agintari sobietarrik txarrena zen orain.

Eta, geroxeago, bazter guzietatik Fadeiewen kontrako kritika hasi zen, Idazle Sobietarren Elkargoan. Laster jakinaraziko du Sholojowek Fadeiewen kondena. Aurpegira bota zion, guzien aurrean:

“Gorki hil zenean, Fadeiew lagunarekin Idazle Elkargoaren buruzagitza kolektiborako talde bat sortu nahi izan genuen. Horren arrastorik ere ez agertu. Fadeiew aginte-grinaz amorratuta zegoen, larderikoeiegia zen, talde-buruzagitzaren printzipioetara konbertitu ahal izateko. Idazkariei geroz-eta zailago zitzaien harekin lanegitea. Hamabost urte luze honela. Gaur halaxe galdegiten diot neure buruari: zergatik ez genion Fadeiewi hasieran bertan garbi esan, Idazleen Elkargoa ez dela Harmadatik koartelean, hainbat gutiango batailoi diziplinariorik, eta gu, idazleok, inolaz ere ez geundela hire aurrean firme jarrita egoteko prest, Fadeiew?”.

Fadeiewek ez zuen erantzun.

Segurtasun dena galdu du. Bere nobelaz kezkatzen da, aldatu egin nahi luke: “Bitartean hainbeste oinarri-oinarrizko gauza berri gertatu da. Seguru asko nire nobelak sakonki eraberritu beharra edukiko luke”, idazten dio adiskide bati.

Baina maiatzaren 13-an bere buruari tiro bat eman eta hil zen.

Aldizkarietan parte ofizialak eratearen eta depresioen ondorioz garbitu zuela bere burua, jakinarazi zuen. Maniako bat zela, eta eranari emanda zegoela. Honek, haatik ere, esplikazioak eskatzen dituen esplikazioa dirudi...

Problema ez da pertsona baten trajeria, halare. Pro-

blema Sholojowen galdera da. Eta batez ere, Sholojow orain oldartsuak bere galdera, “zergatik?”, zergatik ez zuen lehenago bota, da problema.

Problema diktadura da, ta haren kolorea.

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	7
Lehenengo kapitulua: Teoria sozial-realistaz	11
1. Idazle Sobietarren Elkargoa: Lehenengo Biltzarre Orokorra	11
2. Errealismo sozialistaren oinarrizko printzi- pioak	18
2.1. Artearen sozialista izan beharrari bu- ruzko tesiak	18
2.2. Errealismoari buruzko tesiak	21
3. Metodo sozial-realistaz	26
3.1. Interpretazio metodo	27
3.2. Krezazio metodo	32
4. Produzioa, errealismoa ta arte progresista	35
4.1. Lukács dela-ta: Lukács ez dela, alegia	36
4.2. Lehenengo: produzioa	38
4.3. Errealismoa	40
4.4. Artearen progresoa ta progresista	50

5. Idazleen protesta: hastapenak	54
Bigarren kapitulua: Teoria ta praktikaz	75
6. Teoriaz eta testuinguru historikoaz: errealismo sozialistaren funtzio soziala ta politikoa	75
6.1. Pedagogismoa	77
6.2. Literatura alderdikoia	80
6.3. Sinesmena, alderdikaritza ta optimis- moa	81
6.4. Abertzaletasuna edo abertzalekeria	83
6.5. Nola ailegatu zen errealismo sozialistara	87
6.6. Optimismotik optimismo "zientifi- kora"	94
6.7. Utopia platonikoa	101
6.8. Literatur kreazio zientifikoa edo eskla- bo literarioak	106
7. Fadeiew	112